



**ABILEZIAREN ULERMENA HEZIKETA FISIKOAN
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO
GRADUKO IKASLE ETA IRAKASLEEN IKUSPEGITIK**

Understanding of ability in physical education
from Physical Activity and Sport Science
students' and educators' perspectives

Itsaso Nabaskues Lasheras

2020



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

OSLOMET

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Gorputz eta Kirol Hezkuntza Saila

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

ABILEZIAREN ULERMENA HEZIKETA FISIKOAN

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO

GRADUKO IKASLE ETA IRAKASLEEN IKUSPEGITIK

Understanding of ability in physical education from Physical Activity and Sport Science students' and educators' perspectives

Doktorego tesiaren egilea:

Itsaso Nabaskues Lasheras

Doktorego tesiaren zuzendariak:

Oidui Usabiaga Arruabarrena

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Øyvind Førland Standal

Oslo Metropolitan University

Gasteiz, 2020

*Gorputzutako gizarte-egitura eta diskurso ikusezinan aurrean,
haien ahotsa oharkabean irentsi eta,
egunero koan ausardia eta kemen handiz oztopoei aurre eginez,
baztertuak izan diren bizitza-historiak
argitara ateratzeko bidea egin diguzuen emakumeoi.*

*Barne gatazka batean murgildurik
askatasunerako trena hartu nahi dutenei,
egunero zalantzan jarri gabeko mamuei
aurre egitea erabaki dutenei.*

*Non importa quanto si vive, ma con quanta luce dentro.
A te, per la tua vitalità.*

ESKERTZA

Nire lehen esker on beroenak tesi honetan zuzendari lanetan egon zaren horri. Mila esker Oidui zure gertutasun, laguntza, positibotasun, eskuzabaltasun, pazientzia eta gauzak eraldatzeko ilusioa transmititzeagatik. Lan honi eskaini diozun esfortzua eta denboragatik, bihotzez, eskerrik asko.

Øyvindi, tesian zehar bide lagun izan dugunari. Urrun egon arren zuzendaritza lanetan laguntzeko prestutasuna erakutsi eta galdera konplexuen aurrean argibideak eskaintzeagatik. Euskal Herrira gure gonbita onartu eta euskal kulturan barrena murgiltzeagatik.

Bestetik, ikerketa hau egingarri egin duzuenoi. Alegia, ikerketa honetan murgildu zareten ikasle eta irakasleei, egindako elkarrizketetan zuen ikuspegiak partekatu eta ikerketa-galderak aztertzeko atea zabaldu izanagatik, eskerrik asko.

Ezin ahaztu tesi prozesuan zehar bidean egon zaretenoi, bereziki, (H)ariketan ikerketan taldeko Uxue eta Nagoreri; esparru akademikoan eredu eta alor pertsonalean partekatu ditugun momentu txikietan lagun izateagatik. Valentziako kongresuan ezagututako pertsonei, Nerian, Dani eta Javiri etxearen bezala sentiarazteagatik. Dani, batik bat eskerrak zuri tesi honetan egindako ekarpenengatik eta bizitza-historien kontakizuna testuingurua eraldatzeko tresna zientifikoa izan daitekeela erakustegatik. Eskerrak ere Lorena eta Kevini, zuen implikazioa eta lan egiteko profesionaltasunagatik. Bestetik, Ann MacPhail eta Antonio Calderoni, Limericken egindako ikerketa-egonaldian beso zabal jaso eta, bereziki, irakaskuntza ikuspegi berri bat ezagutzeko gonbita luzatzeagatik. Eskerrik asko Mireni, tesi-lan honen azken ikutuetan esku bat botatzeagatik.

Nola ez, nire familiari. Eskerrik asko ama eta aita beti konfiantza eta segurtasuna transmititzeagatik. Zuen berotasuna eta maitasunagatik. Beti ondoan egoteagatik. Maite eta Unai, eredugarri izateagatik; zuen ametsak ilusio eta indar handiz jarraitu eta zuen ideiak adierazteko duzuen gaitasunagatik.

Eskerrak ere gainontzeko familiari eta, bereziki, amona eta amamari, ausart bezain maitekor izateagatik, zuen bizitza-historiak partekatzeagatik. Bestetik, bihotzez eskerrik asko Borrowditarroi, zuen goxotasun eta eskuzabaltasunagatik.

Mila esker azken urteotan ondoan egon zareten lagunoi, tarteka lau pareten artetik atera eta zuen alaitasunez blaitzeagatik.

Bukatzeko, nire eskerrik goxozenak nire bidai lagunari. Egun goibel zein alaietan gertu eta behar izan dudanetan, pazientzia handiz, belarri prest egoteagatik. Proiektu amankomunetan eskutik aurrera egin eta egunerokotasunean batak besteari eskaintzen diogun errespetuagatik. Indar berritu nauten momentuengatik eta, batez ere, bizikleta gainean igo eta paraje ezezagunetan zehar egindako kilometroetan sentitutako bizipoza eta askatasunagatik.

LABURPENA

Ikuspegia soziokulturalean kokatzen diren autoreen arabera, heziketa fisikoko (HF) irakaslearen abileziaren ulermenak problematikoa izaten darrai eta ikasle ‘ez abilen’ esperientzietan modu negatiboan eragiten du. Ildo horretan, HFko Hastapeneko Formakuntza programak etorkizuneko irakasleen uste eta aurreiritziak eraldatzeko espazio egokitzat jotzen dira. Tesi-lan honen helburua, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako (JFKZ) ikasle eta irakasleek abilezia nola ulertzen duten aztertzea eta ulertzeada, ondorengo ikerketa-galderei erantzunez: (1) literatura soziokulturalaren ikuspegitik, nola eraikitzen da abilezia HFan eta HFko Hastapeneko Formakuntzan?; (2) nola ulertzen dut abileziaren eraikuntza emakume ‘abilaren’ ikusmiratik?, eta azkenik; (3) nola ulertzen dute abileziaren kontzeptua zuzeneko partaideek, hots, JFKZ graduoko ikasle eta irakasleek? Ikerketa galdera horiei erantzuteko askotariko ikerketa diseinuak (errebisio sistematikoa, narratiba autobiografikoa eta talde-fokalak) eta parte hartzale desberdinak (emakume ‘abila’, HFko Hastapeneko Formakuntzako ikasle eta irakasleak) hautatu dira. Tesi-lan hau lau kapituluz osatua dago eta kapitulu bakoitzaz argitaratutako artikulu batekin erlazionatua dago. Elkarren arteko lotura zuzena ez duten baina osagarriak diren kapitulu bakoitzaren datuen analisitik hiru gai gako azalarazi dira: (1) literaturan ez da HFko Hastapeneko Formakuntza esparruko eragileen usteak ikertu dituen ikerlanik topatu, espaziotan abileziaren inguruko eztabaidea urrien islada izan daitekeena; (2) JFKZ ikasle eta irakaslegoaren artean inklusioa sustatzeko oztopo izan daitezkeen abileziaren ulermen tradizionalarekin lotzen diren ikuspegiak identifikatu dira, eta; (3) ikuspegi soziokulturala tresna aproposa izan daiteke HFan ikasleen aniztasunari eraginkortasunez erantzun eta abileziaren ulermenak duen eraginaz ohartarazteko. HFan testuinguru bizigarriagoak (*habitable*) eraikitzeko bidean ondorioztatzen da beharrezkoa dela, besteak beste, HFko Hastapeneko Formakuntzetan abileziaren inguruko eztabaidak txertatzea, inklusioa eta funtzio aniztasunari dagokion formakuntza modu transbertsual batean areagotzea eta ikasketa planen berrantolaketa abian jartzea.

Gako-hitzak: abilezia, heziketa fisikoa, hastapeneko formakuntza, ikuspegia soziokulturala, inklusioa.

AURKIBIDEA

LEHENENGO KAPITULUA

Tesi-lana kokatzen	27
1.1. Ikerketaren jatorria	29
1.2. Tesiaren egituraketa	32
1.3. Helburuak.....	33
1.4. Tesiaren ardatza.....	34
1.5. Metodologia.....	38
1.6. Erreferentziak	58

BIGARREN KAPITULUA

Sociocultural processes of ability in Physical Education and Physical Education Teacher Education: A Systematic Review

61	
2.1. Introduction	63
2.2. Methods.....	66
2.3. Results.....	69
2.4. Discussion	82
2.5. Conclusions	86
2.6. References	88

HIRUGARREN KAPITULUA

Non dago nire kapitala? Hausnarketa pertsonala abilezia eta aitorpenerako aukeren inguruan HFan testuinguru inklusiboagoak eraikitzeko bidean

95	
3.1. Sarrera	97
3.2. Metodología.....	100
3.3. Inflexio momentuak: non dago nire kapitala?.....	101
3.4. Amaierako hausnarketak	108
3.5. Erreferentziak	112

LAUGARREN KAPITULUA

Abileziaren ulermena heziketa fisikoan Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduoko ikasleen ikuspegitik.....

117	
4.1. Sarrera	119
4.2. Metodología.....	122
4.3. Emaitzak eta eztabaidea	124
4.4. Ondorioak	135

4.5. Erreferentziak	136
---------------------------	-----

BOSGARREN KAPITULUA

Abileziaren uermenaren heziketa fisikoan Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduoko irakasleen ikuspegitik.....	111
---	------------

5.1. Sarrera	143
--------------------	-----

5.2. Metodologia.....	144
-----------------------	-----

5.3. Emaitzak eta eztabaidea	147
------------------------------------	-----

5.4. Ondorioak	152
----------------------	-----

5.5. Erreferentziak	153
---------------------------	-----

SEIGARREN KAPITULUA

Tesiaren itxiera.....	133
------------------------------	------------

6.1. Ondorioak	157
----------------------	-----

6.2. Ikerketaren mugak	160
------------------------------	-----

6.3. Aplikazio praktikoak	161
---------------------------------	-----

6.4. Etorkizunerako ikerketa lerroak.....	164
---	-----

6.5. Aitorpen kontakizuna	165
---------------------------------	-----

6.6. Erreferentziak	167
---------------------------	-----

ERANSKINAK

I. Parte hartzeko eskaera: informazio orria	4
---	---

II. Baimen informatua	10
-----------------------------	----

III. Partaideen informazio orriak	15
---	----

IV. Elkarritzeta-gidoiak	17
--------------------------------	----

V. Transkripzioak	34
-------------------------	----

VI. Landa-oharrak	288
-------------------------	-----

VII. Ikerketen Etikarako Unibertsitate Batzordearen onespen ziurtagiria	309
---	-----

VIII. Artikulu originalak	325
---------------------------------	-----

Lehenengo artikulua	326
---------------------------	-----

Bigarren artikulua	347
--------------------------	-----

Hirugarren artikulua	371
----------------------------	-----

Laugarren artikulua	380
---------------------------	-----

LEHENENGO KAPITULUA

Tesi-lana kokatzen

1.1. Ikerketaren jatorria

Bizitzak itzulipurdi asko ematen dituela entzuna dut, bihar non egongo garen jakitea ziurgabea delarik. Bizi-esperientziak aitorpen hori egia dela gogorarazten didate noizean behin, planifikatua eta kontrolpean nuen hori hankaz gora jarri. Hala hasi nintzen, hain zuzen, 25 urterekin tesia idazten, 2015-2016 ikasturtean bizitzako ezuste horietako batek nire atea jo izanaren ondorioz: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako (JFKZ) graduau irakasle izateko eskaintza telefonoaren beste aldean. Beldur, ilusio eta dudaz josia proposamenari baiezkoa eman eta irakaskuntza munduan lehen urratsak emateko aukera izan nuen; esperientzia gogor bezain aberasgarria. Baino, ikasturtea amaitzean zegoela zoritzarreko ezuste batek eten zuen kontratu-aldia: eskuineko belauna txiki zuen futbol partida batean, garai hartan gorputzeko minak irentsi eta ez-entzunarena egitea baitzen gertuko pertsona baten heriotza kudeatzeko aurkitu nuen irtenbide bakarra. Hala, aldi-baterako baja hartu behar izan nuen ezinbestean. Gertaera horren harira, goi-mailako futbol jokalariaren bidea etetea erabaki nuen, ez bainuen lesio-osteko tira-birak berriro bizitzeko ez asmo, ez indarrik. Lau pareten artean egoteko denbora gehiegi izateak baina, batez ere, etorkizunean irakasle izateko barne motibazioak, tesian murgiltzera eraman ninduen lanpostu horrek etorkizuneko profesionalengana eraldaketarako grina pizteko aukera eskaintzen zidan eta.

Horrez gain, aipatzekoa da heziketa fisikoa (HF) gogoko izan dudala txiki-txikitatik, seguru aski, proposatzen ziren jardueretan ‘abila’ izateak parte hartze aktiborako aukera eta klasean onespen mota desberdinez gozatzeko bermea aitortzen zidalako. Hori, ordea, ez zen ikaskide ‘ez hain abilen’ kasua, beren abileziak ez zetozen bat-eta HFko irakasleak proposatutako talde-kirol maskulinizatuekin edo kalifikaziorako egiten ziren proba fisikoekin. Hori horrela, kolektibo horren arrakastarako aukera eskasak beren parte hartzea, harreman sozialak, autokonfidantza eta autoestimuan eragin negatiboa zuen, hala, HFa eta kirola ‘haiantzako ez zela’ barneratuz. Aldiz, ikasle nintzen garai hartan, ikusezinak zitzaizkidan ikasleen arteko diskriminazio egoerok erreproduzitzen zituzten diskurtso eta egiturak. Hain zuzen, sentipen hark esnatu zuen nigan denentzako HFa sustatuko zuen irakaslea izateko gogoa.

Hori dela eta, JFKZ ikasketak egin nituen 2008-2013 urteetan, Spainiar estatuan derrigorrezko titulazioa baita HFko irakasle izatea ahalbidetzen duen urtebeteko graduondoko masterra egin ahal izateko. Testuinguru horretan, beraz, JFKZ gradua HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntza gisa ulertu daiteke, literatura anglosaxoian *Physical Education Teacher Education (PETE)* bezala ezaguna dena. Hala bada ere, gaur gaurkoz, JFKZ graduuko ikasketa planean HFrekin harremana izan dezaketen sei kredituko hiru irakasgai baino ez dira eskaintzen: (1) Oinarrizko Gorputz Hezkuntza; (2) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren (JFK) Irakaskuntza, eta; (3) JFK Hezkuntza. Azpimarratzeko da 2010eko Bologna planaz geroztik, graduau hezkuntza esparruko kreditu kopuruak beherakada jasan zuela, egun graduak eskaintzen dituen espezializaziorako ibilbideetatik at geratzeraino. Hala, ikasleei, hirugarren mailatik aurrera eta hautazko irakasgaien bidez, hiru alor desberdinatan espezializatzeko aukera eskaintzen zaie: (1) Kirol Entrenamendua; (2) Kudeaketa eta Aisia Jarduera Fisikoetan eta Kirol Jardueretan, eta; (3) Osasunerako eta Ongizaterako Jarduera Fisikoa.

Neurera itzuliz, JFKZ graduuko hirugarren mailan nengoela, inklusioaren paradigmaz eta curriculum ezkutuaz hitz egin ziguten irakasle eta egunak gogoratzen ditut oraindik, poliki-poliki iraganeko bizi-esperientziak ulertarazteko lagungarri izan zirenak. Bost urteko lizenziaturan, ordea, bizahiru irakasgaietan baino ez genuen inklusioaren gaia jorratu. Bologna planaren eraginez JFKZ graduuko ikasketa planak jasan zituen aldaketek ez zuten egoera hobetu, gaur gaurkoz, inklusioaren paradigma irakasgaiaren ardatz nagusia den sei kredituko irakasgaia bakarra delarik (Jarduera Fisiko Inklusiboa). Bestalde, inklusioaren filosofiatik aldentzen bada ere, Pertsona ‘Ezinduen’ Osasunerako Jarduera Fisikoa izeneko hautazko irakasgaia ere eskaintzen da, helburua pertsona ‘elbarrieik’ egiten duten jarduera fisiko mota ezagutu eta, osasuna ardatz, ‘behar bereziak’ dituzten pertsonekin zein motatako esku-hartze programak burutu daitezkeen ezagutzea delarik. Irakasgai zehatz horren irakaskuntza-gidako diskurtsoa eta terminologia ‘des-gaitasuna’ ulertzeko ikuspegia medikuan oinarritzen dira, funtzio aniztasuna duten pertsonen inguruko uste eta aurreiritzi mugatuak errepruduzitu lezakeena.

Graduko gainontzeko irakasgaietan, beraz, irakaslearen menpe geratzen da inklusioaren paradigma zeharka lantzearen hautua. Hala, esan dezakegu graduondoko formakuntza

osagarriaren esku geratzen dela, hein handi batean, HFko irakasle izateko behar diren konpetentziak eta estrategiak bereganatzea. Masterrean hezkuntza ikuspegia irakasgai guztietai nabarmena bada ere, ikasketa planaren arabera, hiru kreditu eskaintzen zaizkio inklusioaren gaiaz arduratzen den irakasgaiari (Eskola inklusiboa: Irakaskuntza Jarduera, Anitzasuna eta Desberdintasuna). HFko Irakasleen Formakuntzako ibilbidean errealitate dugun egoera horrek zaildu egiten du, ezinbestean, etorkizuneko irakasleek inklusioaren paradigma barneratu eta oztopo izan daitezkeen aurreiritziak gainditzeko beharrezkoak diren eztabaida eta hausnarketarako espazioak bermatu ahal izatea.

Hala, graduoko ikasketak amaitu ostean, HF inklusiboaren esparruan espezializatzeko interesak bultzatuta, Belgika eta Norvegiara abiatu nintzen 2013an *Erasmus Mundus Master in Adapted Physical Activity* izeneko bi urteko ikerketa masterra burutzera. Bertan hezkuntza sistema berri batean murgiltzeaz gain, inklusioa eta ikerketa kualitatiboa kokatzen ziren ikuspegi berrieikin topo egin nuen bete-betean. Inspiratu ninduten begirada horien artean, bereziki, ikuspegi soziokulturala nabarmenduko nuke, hieroglifikoaren giltza eskaini zidan eta. Hala, HFan ikasle nintzen garaian ikaskideok bizi genituen esperientzia, aitorpena eta estatus maila desberdintasunen zergatiak ulertzen hasi nintzen, batik bat, inoiz zalantzaz jarri ez nituen egitura eta diskurso dominanteen gaineko kontzientzia hartzeari esker. Horren eraginez, etorkizuneko irakasle bezala gutxi batzuentzako eraikia den HFa nola (er)aldatu nezakeen jakiteko interesa modu esponentzialean areagotu zen.

Ildo beretik, esku artean nerabilen literatura zientifikoak azpimarratzen zuen etorkizuneko HFko irakaslearen abilezia ulertzeko moduak garrantzitsua jokatzen zuela ikasleen esperientzietai. Hala, master amaierako ikerlan kualitatibo baten bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza unibertsitate masterrean HFan espezializatzen ari ziren lau ikasleren uste eta ikuspegiak aztertu nituen. Datuen analisitik eratorritako emaitzen arabera, etorkizuneko irakasleen abilezia ulertzeko era testuinguru inklusibo bat eraikitzeko oztopo izan zitekeela identifikatu nuen. Horrez gain, partaideek, JFKZ graduoko zein hezkuntza masterreko ikasketetan abileziaren eta inklusioaren inguruan sakondu eta eztabaidatzeko espazioak urriak zirela aitortu zuten, HF inklusiboa

eraikitzeko prestutasunean modu negatiboan eragiten zuenak. Errealitate horrek sortzen zidan ezinegona apaltzeko, doktoradutza programan murgiltzea giltza izan zitekeela sentitu nuen. Alegia, bat-batean argi nuen hori zela jarraitu beharreko bidea. Horrela, hitz zaharrak irentsi eta tesi-lanari ekin nion ilusio eta ez-jakintasun handiz.

Laburbilduz, tesi-lan honek, (er)aldaketarako eragile izateko hiru bide desberdinan aurrera egiteko aukera eskaini zidan: (1) master amaierako lanean hautatutako ikerketa-fokuan gehiago sakontzeko aukera; (2) unibertsitateko irakasle izatera heltzeko bidean merituen lorpena, eta; (3) etorkizuneko HFko irakasle bezala, ikasleen abilezia desberdinei erantzuteko prestutasuna areagotzeko abagunea.

1.2. Tesiaren egituraketa

Tesi-lan hau sei kapituluk osatzen dute. Lehenengo kapituluaren xedea ikerketaren testuingurua aurkeztea izanik, ikerketa abian jartzeko interes pertsonala, tesiaren egituraketa, ikerketaren helburuak, emandako pausuen arteko erlazioa eta erabilitako metodologia aipatuko ditut. Metodologia azpi-atalean, ikerketaren ikuspegiak, metodoak, analisirako prozedurak, kalitate irizpideak eta alderdi etikoak aurkituko dituzu.

Bigarren kapituluan, HFko eta HFko Irakasleen Formakuntza esparruetan abileziaren eraikuntza soziala ikerketa-foku duten ikerlan enpirikoen errebisio sistematikoa aurkeztuko dut.

Hirugarren kapituluan, ikerlan autobiografiko baten bidez, emakume ‘abilaren’ ikuspegitik abileziaren eraikuntzan sakontzeko aukera eskaintzen duten biziak pertsonalak partekatuko ditut. Era berean, HFen abileziaren kontzeptualizazioa zalantzan jartzeko lagungarri izan diren praktika pedagogikoak azalduko ditut, HF inklusibo bat eraikitzeko baliozkoak izan daitezkeenak.

Laugarren eta bosgarren kapituluetan, JFKZ graduoko ikasle eta irakasleek abilezia nola ulertzen duten aipatuko dut, hurrenez hurren. Halaber, horien usteetan eragiten duten faktoreak eta sinesmenok praktika profesionalean izan ditzaketen ondorioen inguruan

jardungo dut, zehazki, HFren esparruan.

Bukatzeko, seigarren kapituluan, tesi-lanari bukaera emateko asmoz, ikerketaren ondorio nagusiak, identifikatutako mugak, proposamen praktikoak eta etorkizuneko ikerketa lerroak azalduko ditut. Horrez gain, irakurlearekin partekatuko ditut ikerketa prozesuan zehar biziako gora-beherak eta izandako zailtasun esanguratsuenak.

1.3. Helburuak

Tesi honen helburu nagusia HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako ikasle eta irakasleek, zehazki, JFKZ graduokoek, abilezia HFan nola ulertzen duten aztertza eta konprenitza izan da. Helburu hori betetzeko aburuz, hainbat galdera eta helburu zehatz proposatu dira. Mahai gaineratutako galderai erantzuna emateko, helburu zehatzak lau multzotan antolatu dira:

Lehen helburua: nola eraikitzen da abileziaren ulermenaren HFan eta HFko Irakasleen Formakuntzan eta zein eragin du testuinguru inklusiboen eraikuntzan?

Literaturan HFa eta HFko Irakasleen Formakuntza esparruetan kokatzen ziren eta abileziaren eraikuntza soziala foku zuten landa-ikerketak identifikatu nahi izan dira errebisio sistematikoaren bidez. Aipatutako esparruetan abileziaren ulermenaren nola eraikitzen den aztertu eta ulertzearaz gain, ikerlanotan erabilitako ikuspegi teoriko desberdinak eta abileziaren ulermen dinamikoago baterantz bidea egiteko proposatutako esku-hartzeak bildu nahi izan dira. Hala, errebisio sistematikoa gaiaren egungo egoera ezagutzeko baliabidea eta ikerlan honen abiapuntua izan da.

Bigarren helburua: emakume ‘abilaren’ ikuspegitik nola ulertzen dut abilezia HFan eta zein eragin izan dezake HFan testuinguru inklusiboagoen eraikuntzan?

Errebisio sistematikoan identifikatutako hutsunea asetu nahian, ikerketa autobiografiko batean murgilduz, abileziaren ikuspegি tradizionalari aurre egiteko estrategia pedagogikoak mahai gaineratu nahi izan dira. Horretarako, nik neuk, JFKZ graduko ikasle eta irakasle ohiak, emakume ‘abilaren’ ikuspegitik, JFKren esparruan izandako bizipenak partekatu eta horiek abilezia ulertzeko eran izan duten eraginaren azterketa sakona osatua da.

Hirugarren helburua: nola ulertzen dute abilezia HFan JFKZ graduko ikasleek?

JFKZ graduko ikasleek abilezia nola ulertzen duten esploratu eta ulertu nahi izan da. Ikuspegি soziokulturalen kokatzen diren autoreen eskutik, nagusiki, bi alderdi esploratu dira: (1) etorkizuneko irakasleen diskurtsoek HFko ikasleen esperientzietan izan dezaketen eragina, eta; JFKZ graduak abileziaren ikuspegia (er)aldatu ala (erre)produitzeko garaian jokatzen duen rola.

Laugarren helburua: nola ulertzen dute abilezia HFan JFKZ graduko irakasleek?

Ikuspegি soziokulturalaren begiradapean, JFKZ graduko irakasleek abilezia nola ulertzen duten esploratu eta ulertu nahi izan da. Irakasleon diskurtsoek etorkizuneko irakasleen sinesmenetan eragiten dutela aitortuz, graduau abileziaren inguruan transmititzen dituzten ikuspegiak aztertu dira.

1.4. Tesiaren ardatza

Aurreko puntuau proposatutako ikerketa-galderak erantzuteko asmoz, tesiaren ardatza osatzen duten lau ikerketa gauzatu dira. Jarraian, ikerlan bakoitzaren ildo nagusiak eta hauen arteko erlazioa aurkeztuko dut.

1.4.1. Abileziaren eraikuntzaren inguruko errebisio sistematikoa HFan eta

HFko Irakasleen Formakuntzan

Tesi-lan honen lehen urratsetan errebisio sistematiko bat egitea erabaki genuen gaiaren inguruko egungo egoera ezagutu nahian. Horretarako, abilezia, HF, HFko Irakasleen Formakuntza eta ikuspegi soziokulturala (Evans, 2004) oinarri zituzten ikerlan empirikoak bildu genituen. Izan ere, ikuspegi soziokulturala, HFan ikasle ‘abilaren’ eta ‘ez abilaren’ sailkapen hierarkikoan eragina duten egiturak eta diskurtsoak, bai eta horien ondorioak, azaleratzeko oinarri teoriko interesgarritzat jo genuen. Halaber, abileziaren eraikuntzan rol esanguratsua zuten botere harreman eta praktika pedagogikoak identifikatu, ulertu eta horien inguruan hausnartzeko abagunea eskaintzen zigun. Edukien analisitik eratorritako emaitzen arabera, besteak beste, HFan abilezia ulertzeko era ikasleen aniztasunari eraginkortasunez erantzuteko oztopo izan zitekeen. Horren harira, eztabaiderako esanguratsuak iruditu zitzazkigun hiru hutsune identifikatu genituen: (1) abileziaren ikuspegia erreproduzitu ala eraldatzeko bidean HFko Irakasleen Formakuntza programak eragina izan arren, gure harridurarako, errebisio sistematikoan ez zen HFko Irakasleen Formakuntzan kokatzen zen landa-ikerlanik identifikatu; (2) urriak ziren abileziaren ikuspegi tradizionala eraldatzeko HFko Irakasleen Formakuntzara bideratutako aplikazio praktikoak, eta; (3) abileziaren eraikuntzan eragina zuten diskurtso eta egiturak argitaratzeko ahaleginetan, literaturan kolektibo zehatz batzuen testigantzak baino ez ziren kontuan hartu. Hala, jarraian datozen ikerlanen bidez literaturan identifikatutako hutsune horiei arreta eskaini nahi izan genien.

1.4.2. Hausnarketa pertsonala abilezia eta aitorpena eskuratzeko aukeren inguruan HFan testuinguru inklusiboagoen eraikuntzan

Bigarren ikerketan, errebisio sistematikoan identifikatutako hutsunea asetzeko asmoz, abileziaren eraikuntzan sakontzeko begirada berri bat eskaini genuen ikerketa autobiografiko baten bidez, etorkizuneko irakasle eta emakume ‘abilaren’ ikuspegitik, JFKren esparru desberdinietan bizi izandako bost inflexio-momenturen kontakizunetatik abiatuta. Kontakizunok aproposak ziren abileziaren uermen tradizionalak gertarazi ditzakeen injustizia sozialez kontzientzia areagotzeko eta komunitateko eragileen ikuspegiak transformatzeko. Kontakizunon analisitik, besteak beste, etorkizuneko

irakasleek abilezia modu inklusiboago batean ulertzeko baliozkoak izan zitezkeen estrategia pedagogikoak mahai gaineratu genituen. Aldi berean, ikerlan hau hausnarketarako ariketa garrantzitsua izan zen, ikerlari bezala neure ikuspegiarekiko kontzientzia areagotzea ahalbidetu zidalarik. Hortik abiatuta, HFko Hastapeneko Irakasleen Formakuntzaren esparruan identifikatutako hutsunearen azterketa sakona egiteko aburuz, hurrengo bi ikerketak gauzatzeari ekin genion.

1.4.3. Abileziaren ulermenaren HFan JFKZ graduko ikasleen ikuspegitik

Hirugarren ikerketan JFKZ graduko ikasleek abilezia nola ulertzen zuten aztertu eta ulertu nahi izan genuen. Izan ere, aurreko bi ikerketatik eratorritako emaitzetan oinarrituz, etorkizuneko irakasleek HFan abilezia ulertzeko moduak espazio inklusiboak eskaintzeko prestutasunean eragin lezake. Hala, talde-fokal teknikaren bitartez JFKZ graduko 14 ikasleren ahotsak bildu genituen, ikerketa-galderan sakontzeko informazio esanguratsua eskainiko zutelakoan. Izan ere, aurretik aipatu bezala, ikerketa gauzatu zen testuinguruan, JFKZ gradua HFko irakasle lanpostura bideratutako prestakuntza programa bat ez baten ere, HFko irakasle izatea ahalbidetzen duen masterra egin ahal izateko derrigorrezko laurteko formakuntza zen. Hori aintzat hartuz, gure iritziz, JFKZ graduau barneratzen diren diskurtsoek eragina izan lezakete HFko irakasle izango direnen sinesmen eta erabaki pedagogikoetan. Adierazpen hori, hain zuzen, JFKZ graduau abileziaren kontzeptualizazioaren eraikuntza aztertzeko argudio sendotzat jo genuen.

Elkarrizketatan batik bat, etorkizuneko HFko irakasle bezala hautemandako prestutasuna eta graduak eskainitako formakuntzaren inguruan galdekatu genien. Analisi prozesuan partaideen testigantzak aztertu genituen ikuspegi soziokulturaletik. Hala, ikerketa honek ahalbidetu zuen etorkizuneko irakasleen diskurtsoek abilezia desberdinak dituzten ikasleentzako testuinguruak eraikitzeako garaian izan zitzaketen ondorioak aztertzea. Azkenik, graduko irakaslearen ikuspegiak ikasleen sinesmenetan eragin lezakeela kontuan hartuz, ikasleen ikusmirak triangulatu eta, era berean, errebisio sistematikoan identifikatutako hutsunea betetzeko asmoz, laugarren ikerketa bat egitea erabaki genuen, hain zuzen, JFKZ graduko irakasleen usteak arakatzeko helburuarekin.


1.4.4. Abileziaren ulermena HFan JFKZ graduoko irakasleen ikuspegitik

Azken ikerketan, aurreko ikerketaren metodologia eta marko teoriko berbera erabiliz, HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako irakasleek abilezia HFan nola ulertzen zuten esploratu nahi izan genuen. Horretarako lau talde-fokal egin genituen JFKZ graduoko 10 irakaslerekin, fakultatean bizirik zirauten abileziaren inguruko ikuspegi nagusiak mahai gaineratu eta datuen triangulazioa gauzatzeko asmoz. Irakasleen ahotsen interpretaziotik, JFKZ graduan abileziaren inguruan erreproduzitzen ziren ikuspegiak eta horiek HFko etorkizuneko irakasleen praktika profesionalean izan dezaketen eraginaren inguruko eztabaidei heldu genien. Horrekin batera, HFan testuinguru inklusiboagoen eraikuntza bermatzeko bidean, fakultatetik abileziaren ikuspegi dinamikoago bat sustatzeko aplikazio praktikoak mahai gaineratu genituen.

1.4.5. Ikerketa gauzatzeko eman diren urratsen deskribapen grafikoa

Jarraian agertzen den I irudian, tesia osatzen duten lau ikerlanetara heltzeko gauzatutako ibilbidea zein beraien arteko loturak azalduko ditut. Halaber, ikerketak gauzatzeko erabilitako datu bilketa eta analisirako teknikak adierazten dira.

I. Irudia. Tesia osatzeko gauzatutako ikerketen arteko erlazioaren azalpen grafikoa. Ikerlan bakoitzeko datu bilketa (DBT) eta analisirako (DAT) erabili diren tekniken zehaztapena.



1.5. Metodologia

1.5.1. Ikerketa kualitatiboa

Tesi-lan honen helburu nagusia JFKZ graduko ikasle eta irakasleen sinesmen eta ikuspegiak aztertu, ulertu eta interpretatzea izanik, ikerlan hau metodologia kualitatiboa kokatu zen, zehazki, metodologia hermeneutikoan eta dialektikoan. Hots, Lincoln,

Lynham eta Gubarekin (2011) bat eginez, partaideen usteak ulertu eta interpretatzeko asmoz, ikerlari eta partaideen arteko eztabaida eta adostasunerako urratsak eman ziren. Izan ere, metodologia kualitatiboak pertsonen bizipen, iritzi, sinesmen eta usteak sakonki esploratzeko metodo aproposak eskaintzen ditu (Patton, 2002; Taylor eta Bogdan, 1998). Bide horretan, parte hartzaileen ahotsak entzutea ezinbestekotzat jo zen ikerketa-galderetan sakontzeko (Kvale, 1996).

Metodologia, metodoen atzean dagoen ikuspegি filosofikoari eta teorikoari deritzo, ikerlariaren ikuskera, interes eta helburuen araberakoa dena (Taylor eta Bogdan, 1998). Hala, ikerlariaren ikuspegি metodologikoak ezagutza nola eskuratuko den definituko du, ikerketaren diseinuan, datu bilketan eta datuen interpretazioan eraginez. Hortaz, garrantzitsua da erabakion atzean ezkutatzen den posizio paradigmatico, ontologiko eta epistemologikoa argitara ekartzea.

1.5.2. Ikuspegи paradigmatico, ontologikoa eta epistemologikoa

Lincoln eta Kideek (2011) diotenez, ikerketaren ikuspegи paradigmatico azaleratzea garrantzitsua da ikerlaria galdera ontologiko, epistemologiko eta metodologikoen aurrean nola kokatzen den ezagutzeko. Ikerketa hau parigma interpretatiboan edo konstruktibistan kokatzen da, jomuga izan delarik partaideek fenomeno sozial zehatz baten inguruko ulermenai, kasu honetan, abileziaren kontzeptualizazioa, nola eraikitzen duten aztertzea. Aldiz, tesi-lan hau osatzen duten ikerketetan barrena murgiltzen den irakurleak parigma kritikorako joera arnastu lezake; izan ere, ikerlan honen azken helburua hezkuntza esparruan justizia sozialerantz urratsak ematea izan baita, horretarako gizarteko botere harremanak erreproduzitzen dituzten egitura eta diskursoak plazaratz. Bestalde, lan hau ez da ikuspegи kritikoan kokatu, besteak beste, berehalako eraldaketa piztu baino, indarra HFan inklusioa oztopatzen duten aldagaien gaineko hausnarketarako abaguneak sortzean jarri baita; hain zuzen, Lincoln eta Kideek (2011) ‘liseriketa intelektuala’ izendadatu dutena.

Aitzitik, Creswell (2007) jarraituz, galdera ontologikoek naturaren errealtitatearen inguruari dihardute: zein da naturaren errealtitatea? Parigma interpretatiboa ontologia

erlatibista batean kokatzen da, non errealtitatea norbanakoaren eta testuinguruaren araberakoak diren (Ravenek eta Rudman, 2013). Jakintza bizi-esperientzien eta gizarteko beste eragileekin ditugun elkarrekintzen bitartez eraikitzen dela onartuz (Guba eta Lincoln, 1994), tesi-lan honetan ikerlariok ikerketa prozesuan parte hartzea nahitaezkotzat jo da, partaideen ahotsetatik abiatuz jakintza eraikitzeko.

Creswellen (2007) arabera, galdera epistemologikoek jakintza eta egia zer diren eztabaidatzera garamatzate: zein da ikerlaria eta ikertua denaren arteko harremana? Ikuskera interpretatiboan oinarrituz, ikerlariak posizio subjektiboa eta transakzionala bereganatzen du. Hau da, ezagutza ikerlaria eta ikertua denaren arteko elkarrekintzatik eraikitzen da eta, beraz, eragileen ikuspegiak ez dira era objektibo ez subjektibo bezala ikusten, baizik eta intersubjektibo moduan. Ildo beretik, norbanakoaren bizi-esperientziek eta gizartea ikerketan sortzen den jakintzan duten eragina aitortuz, ikerlariaren pertzepzioek ikerketa prozesuan sortzen den jakintzan eragiten dute (Kvale, 1996; Lincoln et al., 2011). Horrek objektibilitatearen eta subjektibilitatearen inguruko eztabaidara garamatza.

Horren harira, Creswellen (2007) esanetan, ikerlariaren baloreek –axiologia– zenbaterainoko eragina izan beharko luketen argitzea komeni da: zein da ikerlariaren baloreek jokatzen duten rola? Tesi-lan honetan ikerlariaren baloreek ezinbestean ikerketa prozesuan eragina izan dutela aitortzen da. Hori dela eta, Sparkes eta Smithen (2014) irizpideei jarraiki, baloreok biluztu eta dokumentatzeko asmoz, hausnarketa sakon batean murgildu nintzen, nire sinesmen eta biziñeten eragina izan zuten hainbat aldagai kontuan hartuz; hala nola, generoa, abilezia, klase soziala eta identitate sexuala. Halere, Brymanekin (2008) bat eginez, ikerketa prozesuan ikerlariak bere baloreak erabat kontrolpean izatea ezinezkoa denez, ikerlaria eta ikerketa objektua bata bestearen menpe daudela onartzen da. Objektibilitate-subjektibilitatearen arteko harreman konbentzional kontrajarriarekin apurtzeko aburuz, ikerlan honetan, Eliasek 1978an proposaturiko *object-adequacy* (Bryman, 2008) kontzeptua aintzat hartuz, inplikazio-aldentzearen arteko oreka bilatzea izan nuen helburu. Hausnarketa lan hori garrantzitsua izan da, batik bat, ikerketa burutzeko hautatutako fakultateko ikasle eta irakasle ohia naizela kontuan hartuz. Bertan, nagusiki, ikerketa testuinguruarekiko gertutasuna eta

aurre-ezagutza pertsonalek ikerlanean izan zitzaketen ondorioak jorratu dira.

Ildo berean, ikerketa prozesuan ikerlariaren ikuspegiaren eragina gutxiagotzeko, nire balore eta usteen gaineko kontzientzia hartza ezinbesteko zeregina izan da, bereziki, JFKZ graduko ikasle eta irakasleen sinesmenen aurrean epaiak ekiditeko eta ikerketa-fokua elkarritzetutako eragileen ikuspegitik ulertu ahal izateko (Taylor eta Bogdan, 1998).

1.5.3. Ikerketa diseinu desberdinaren arteko lotura, datu bilketa eta analisi teknikak

Tesi-lan hau lau kapituluz osatua dago eta kapitulu bakoitza artikulu batekin lotzen da. Era berean, kapitulu hauek elkarren arteko lotura zuzenik ez duten baina osagarriak diren honako hiru ataletan banatuta daude: lehenik, literaturaren errebisio sistematikoa (lehenengo artikuluan bigarren kapituluan konsulta daiteke); bigarrenik, narratiba autobiografikoa (bigarren artikuluan hirugarren kapituluan konsulta daiteke), eta; hirugarrenik, JFKZ graduko ikasle eta irakasleen ikuspegiak azterketa (hirugarren eta laugarren artikuluetan laugarren eta bosgarren kapituluetan konsulta daitezke, hurrenez hurren). Hala, atal bakoitzak ikerketa-galdera bat erantzuten du: (1) literatura soziokulturalaren arabera, nola eraikitzen da abilezia HFan eta HFko Hastapeneko Formakuntzan?; (2) nola ulertzen dut abileziaren eraikuntza emakume ‘abilaren’ ikusmiratik?, eta azkenik; (3) nola ulertzen dute abileziaren kontzeptua zuzeneko partaideek, hots, JFKZ graduko ikasle eta irakasleek?

Nabamentzekoa da ikerketa-galdera horiek erantzuteko ikerketa diseinu eta parte hartzaile desberdinak hautatu izanak, ikerketa-fokua aztertu eta ulertzeko metodo, informazio-iturri eta ikuspegi desberdinak biltzea ahalbidetu duela. Jarraian, aipatutako hiru atalen arteko lotura nagusiak azalduko ditut, baita atal bakoitzean erabilitako datu bilketa eta analisirako teknikak.

1.5.3.1. Errebisio sistematikoa: abileziaren eraikuntza soziokulturala HFan eta HFko Irakasleen Formakuntzan

Errebisio sistematikoa gauzatu zen ikerketa-fokuaren inguruko aurrekariak ezagutzeko beharra zela eta. Errebisio sistematiko horri dagokion artikulua bigarren kapituluan kontsulta daitekeen arren, jarraian, hori gauzatzeko erabili ziren teknika nagusiak aipatuko ditut:

a) Dokumentuen bilaketa eta hautaketa prozesua

Bilaketa ikerketa-fokurekin harremandutako nazioarte mailako lau datu baseetan gauzatu zen: SportDiscus, ERIC, PsycInfo eta Scopus. Bilaketa egiteko erabilitako gako hitzak lau esparrurekin erlazionatu ziren: abilezia, HF, HFko Irakasleen Formakuntza eta ikuspegi soziokulturala. Aurrez ezarritako inklusio eta baztertze irizpideetan oinarrituz, 17 ikerketa enpiriko hautatu ziren.

b) Edukien analisia

Edukien analistik eratorritako emaitzek adierazten zuten oraindik ere abileziaren ulermena estatikoa eta problematikoa zela eta, horrek, HFko ikasle batzuren esperientzietan modu negatiboan eragina zuela. Sinesmen horiek errepruduzitzen dituzten egitura eta diskurtsoak zalantzan jartzeko bidean, ezinbestekotzat jo zen HFko Irakasleen Formakuntzan abileziaren inguruko eztabaidea eta hausnarketarako espazioak eskaintza. Baina, urriak ziren literaturan esparru horretan kokatu ziren ikerlanak.

1.5.3.2. Narratiba autobiografikoa

Errebisio sistematikoaren emaitzetan oinarrituz, HFko Irakasleen Formakuntzako ikasle eta irakasleen ikuspegi eta usteak aztertzeko beharra identifikatu zen. Horri ekin aurretik, ikerketa narratibo autobiografiko batean murgildu nintzen, nik neuk, emakume ‘abilaren’ ikuspegitik, abilezia nola ulertzan nuen esploratzeko aburuz. Bereziki, unibertsitate formakuntza ibilbidean abilezia ulertzeko erak jasandako eboluzioan eta aldaketa horiek eragin zituzten faktore eta bizipen pertsonalen azterketan zentratu nintzen. Horretarako, JFKren esparruan bizi izandako esperientzia esanguratsuak arakatzeari ekin nion, abileziaren eraikuntza sozialaren inguruko eztabaidea sustatzeko asmoz.

Intentziozko laginketa izan zen. Izan ere, ikuspegi soziokulturala oinarri, JFKren esparru desberdinaren emakume ‘abilaren’ bizi-esperientzia pertsonalak abileziaren eraikuntzan eragiten zuten diskurso eta egiturak biluzteko baliagarria izan zitezkeela sumatu nuen. Bide horretan, ikerketaren sinesgarritasuna bermatzeko, analisi prozesuan, bizipen horien gaineko ikuspegi kritikoa erabatekoa izan zuen ikerketa taldeak, tesi-laneko bi zuzendariek, metodologia narratiboaren inguruko aditu batek eta neronek osatu genuena. Era berean, hausnarketa pertsonalerako tresna izan zen ikerlan honen bidez, HFko Irakasleen Formakuntza programetara bideratutako zenbait implikazio praktiko eskaini genituen. Ikerketa honetan erabilitako datu bilketa eta analisirako tekniken inguruko zehaztasunak hirugarren kapituluan kontsulta daitezke.

1.5.3.3. Elkarrizketak JFKZ graduko ikasle eta irakasleekin

Jarraian, JFKZ graduko ikasle eta irakasleen sinesmenak aztertu genituen. Izan ere, egindako errebisio sistematikoan ez zen gai eta esparru horretan kokatzen zen ikerlanik topatu eta, hortik, abileziaren ulermenta gure kontestu soziokulturalean nola eraikitzen zen aztertu eta ulertzeko beharra identifikatu zen. Horretarako, hainbat talde-fokal egin genituen JFKZ graduko ikasle eta irakasleekin 2016-2017 eta 2017-2018 ikasturteetan, tesi-lan honen laugarren eta bosgarren kapitulua osatzen dituztenak, hurrenez hurren.

Parte hartzaleen hautaketa prozesua, datu bilketa eta analisiaren inguruko zehaztapenak laugarren eta bosgarren kapituluetan kontsulta badaitezke ere, jarraian, alderdi metodologikoen gaineko informazio zehatzagoa eskainiko dut. Izan ere, aldizkarien hitz muga dela eta, artikulu zientifikoa idazterakoan metodoen inguruko informazio esanguratsua baztertu behar izan genuen.

a) Talde-fokalak

Elkarrizketak oso baliabide erabilgarriak izan daitezke pertsonen sinesmen eta ikuspegiak aztertzeko edo, beste era batera esanda, mundua nola ulertzen duten aztertzeko (Kvale, 1996). Hala, guztira 11 talde-fokal egin genituen JFKZ graduko ikasle eta irakasleekin, zehazki, zazpi ikasleekin eta lau irakasleekin. Elkarrizketok ikerketa-galderak aztertzeko informazio saturazioa eskaintzen zuten (Kvale, 1996). Elkarrizketa guztiak grabatuak eta

transkribatuak izan ziren (V Eranskina) analisi prozesuan ikasle eta irakasleen usteak zehaztasunez aztertzeko aburuz.

- *Laginketa*

Erakundea zein parte hartzaleak intentziozko laginketa bidez hautatu ziren. Erakundeari dagokionez, nire kontestu soziokulturalean abileziaren eraikuntza soziala aztertzeko grinak, nire fakultatea izandakoan ikusmira jartzera eraman ninduen, Erkidego mailan JFKZ ikasketen artean erreferentziako gradua dena. Aipatzekoa da fakultateko irakasleak eta funtzionamendua gertutik ezagutzeak ikerketa bertan burutu ahal izateko bidea erraztu zigula. Parte hartzaleei dagokienez, ikerketa-galderetan sakontzeko zuzeneko eragileen ahotsak ezinbestekoak zirenez, JFKZ graduoko ikasle eta irakasleei luzatu genien parte hartzeko gonbita.

Laginketa prozesuaren lehen urratsetan, ikerketarako ikasle eta irakasleen hautaketa prozesua hasi aurretik, unibertsitateko Etika Batzordearen (VII Eranskina) eta fakultateko ataleko koordinatzailearen oniritziak lortu genituen. Ostean, fakultateko ikasle eta irakasleei ikerketan parte hartzeko gonbita luzatzeko asmoz, bi ekintza gauzatu genituen: lehenik eta behin, ikerketaren justifikazioa, helburua, jarduerak, parte hartzaleen eskubideak eta bete beharreko ezaugarriak azaltzen zituen dokumentua ikasle eta irakasle potentzialei bidali genien posta elektronikoz ataleko koordinatzailearen bitartez (I Eranskina); bigarrenik, aste bete beranduago, fakultatean ikasle potentzialei proiektua aurrez-aurre aurkeztu genien eta sortu zitezkeen zalantzak argitzeko.

Ikerketa honetarako talde heterogeneoa biltzeko interesa izan arren, ikerketa kualitatiboan gertatu ohi den moduan, partaide kopurua eta beren ezaugarriak aldez aurretik jakitea ezinezkoa izan zen. Zentzu horretan laginketa prozesua ziurgabetasunez jositako bidea izan bazen ere, profil desberdineko partaideek ikerketan parte hartzeko interesa adierazi zuten; guztira 14 ikasle (zazpi emakume eta beste hain beste gizon) eta 10 irakasle (hiru emakume eta zazpi gizon).

Ikasleei dagokienez, partaideak maila desberdinekoak ziren; lehenengo eta hirugarren mailako bosna ikasle eta bigarren mailako lau ikasle. Aipatzekoa da ikerketak bi

ikasturteko iraupena izango zuenez, ikerketa hasi zen ikasturtean laugarren mailan zeuden ikasleak laginketatik kanpo geratu zirela. Bestalde, talde-fokalak euskaraz gauzatuko zirela erabaki genuenez, euskarazko lerroan matrikulatuak zeuden ikasleei bakarrik luzatu genien parte hartzeko gonbita. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da ikerketa aurrera eraman zen fakultatean ikasleen gehiengoa (% 75 inguru) euskarazko lerroan matrikulatzen dela.

Irakasleei dagokienez, fakultateko irakasle kopurua txikiagoa zenez, denei luzatu genien parte hartzeko gonbita. Parte hartu zuten 10 irakasleak ezaugarri eta profil desberdinekoak ziren, bereziki, aurretiko formakuntza eta graduau irakasten zituzten irakasgai motari zegokionez. Hala, ikasle zein irakasleekin egindako elkarritzetan talde heterogeneoak izateak abileziaren ulermenean eragin zezaketen faktore desberdinak aztertzeko atea zabaldu zizkigun. Ildo beretik, ikasle eta irakasleen ikusmirak aztertzea garrantzitsua izan zen datuen triangulazioa ahalbidetu eta, hala, ikerketaren sinesgarritasuna indartu zuen eta.

Ikerketan parte hartu zuten ikasle eta irakasleen ezaugarrien inguruko informazio zehatza, bai eta elkarritzeta bakoitzaren helburu eta multzokatzeak, laugarren eta bosgarren kapituluetaan kontsulta daitezke.

- *Elkarritzeta-gidoia*

Brymanek (2008) definitzen dituen elkarritzeta moten artean (formala, erdi-egituratua eta informala), erdi-egituratutako elkarritzeta hautatu nuen. Horretarako, aldez aurretik, elkarritzeta-gidoi batean antolatu nituen ikerketa-galderetan sakontzeko galdera sortak edo gai nagusiak (IV Eranskina) hainbat autoreren gomendioak kontuan hartuz (Arthur eta Nazroo, 2003; Kvale, 1996; Patton, 2002). Gai esanguratsuak identifikatzeko ondorengo hiru pausuak jarraitu nituen: lehenengo, gaiaren inguruko literatura aztertu nuen (lehenengo artikulua); bigarrenik, elkarritzeta-gidoia bi zuzendariekin partekatu nuen haien ekarpenak jasotzeko asmoz; azkenik, bakarkako bi elkarritzeta pilotu gauzatu nituen lau jomuga nagusirekin (Arthur eta Nazroo, 2003): (1) galderak partaidearentzako ulegarriak ziren aztertzeko; (2) elkarritzetan lortzen zen informazioa ikerketa-

galderetan sakontzeko esanguratsuak ziren baloratzeko; (3) moderatzailea elkarrizketa-gidoiarekin trebatzeko, eta; (4) elkarrizketaztale bezala esperientzia eskuratzeko; izan ere, Kvalek (1996) dioen bezala, elkarrizketak egiten ikasten baita elkarrizketatzen. Aipatzekoa da ere ikasle eta irakasle talde ugari izatea lagungarria izan zela elkarrizketa batetik bestera elkarrizketa-gidoia aberasteko. Solasaldi bakoitza baino egun batzuk lehenago elkarrizketa-gidoaren ildo nagusiak partaideekin partekatzen nituen mezu elektroniko bidez elkarrizketaren nondik-norakoak aldez aurretik ezagutu zitzaten.

Talde-fokaletan elkarrizketa-gidoia era zurren batean jarraitzeak elkarrizketaren kalitatea kaltetu dezakeela kontuan hartuz, moderatzaile lanetan etengabeko entzute aktiboa ezinbestekoa izan zen. Zehazki bi zereginetan jarri nuen fokua: alde batetik, elkarrizketa testuinguru naturalago bat bermatzeko asmoz, solasaldietan sortzen ziren bestelako kontuen eztabaidea eta gai-ordena onartzea (Kvale, 1996; Patton, 2002) eta, bestetik, elkarrizketa birbideratzeko estrategiak erabiliz, elkarrizketa-gidoia eta partaideek mahai gaineratutako eztabaideen arteko oreka aurkitzea (Bryman, 2008).

- *Landa-oharrak*

Pattonen (2002) aburuz, elkarrizketak burutu eta segidan landa-oharrak jasotzea ezinbestekoa da eskuratutako informazioaren kalitatea, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko. Hala, talde-fokalen aurretik, bitartean eta ostean bizi eta sentitutakoak landa-oharretan jaso nituen grabagailu bidez erregistratu ezin zirenak biltzeko, esate baterako: hautemandako zaitasunak, kezkak, sentsazioak, aurreiritziak, gertaeren deskribapen objektiboak, eta abar (VI Eranskina). Gainera, barrura begirako ariketa horrek ikerlari bezala elkarrizketetan nuen jokabidea eta rola hobetzeko aukera eskaini zidan. Landa-oharrak, batik bat, elkarrizketen ostean erregistratu nituen ordenagailu bidez. Hala, talde-fokaletan gehienez ere ohartxoak hartzera mugatu nintzen, elkarrizketa ahalik eta modu naturalenean gauzatzeko asmoz. Horrez gain, bereziki elkarrizketak bukatu osteko etxerako bidean, zuzendariak eta biok talde-fokaletan izandako bizipenak partekatzen genituen, era horretan, hausnarketa prozesua indartuz. Landa-oharretan jasotakoak ikerketa emaitzetan islatu ez baziren ere, garrantzitsuak izan ziren elkarrizketen analisi prozesuan transkripzio lerroak zegokien

testuinguruan kokatzeko (Bogdan eta Biklen, 2003; Patton, 2002).

Alabaina, azpimarratzeko da landa-oharrak ikerketa prozesu osoan zehar jaso nituela (Bogdan eta Biklen, 2003). Besteak beste, bertan bildu nituen ere tesi-lan honetan murgiltzeko barne motibazioa, tesian bizi izandako zaitasunak eta ikerketa prozesuan hartutako erabaki esanguratsuenak. Landa-oharrak ikuspegi hausnartzale batetik biltzea ikerlanaren koherentzia eta kalitatea bermatzeko baliabidea izan da. Horiek landa-oharretan ez ezik (VI Eranskina), tesi-lan honen atal desberdinetan jaso dira: 1.1. atalean (ikerketaren jatorria), 1.5.6. atalean (ikerketa prozesua: partekatzeko hausnarketak) eta 6.5. atalean (aitorpen kontakizuna).

b) Edukiaren analisia

Ikerketa-galderetan sakontzeko asmoz, ikasle eta irakasleekin egindako elkarritzetako aztertzeko analisi induktiboa erabili zen (van Manen, 1997). Elkarritzetetik eratorritako bi ikerlanen analisi prozesua aurrera eramateko ondorengo pausuak jarraitu nituen (Patton, 2002): lehenik, transkripzioak behin eta berriro irakurri nituen esanguratsua ez zen informazioa baztertzeko. Segidan, aurrez kodifikatutako emaitzak kategoria eta azpi-kategorietan bildu nituen etengabeko konparaketa bidez. Analisirako kategoriak identifikatu eta berraztertu ostean, zuzendariekin eztabaidatu nituen interpretazio ezegokiak identifikatzeko. Azkenik, interpretazio prozesua gauzatu nuen ikasleen ahotsei esanahia emanez.

1.5.4. Kalitate irizpideak

Ikerketa zientifiko honen kalitatea bermatzeko, Zitomer eta Goodwinek (2014) proposatutako irizpideak hartu genituen aintzakotzat, horiek bat egiten zutelarik paradigma interpretatiboan kokatzen diren ikerlanekin:

1.5.4.1. Hausnarketa

Irizpide honek zerikusia du, batik bat, ikerlariak ikerketa-fokuaren inguruko aurreiritzi eta posizionamendu teorikoaren gaineko kontzientzia hartzearekin eta horiek irakurleari

azaleratzearekin. Bestalde, etengabeko jarrera hausnartzaile hori tesi-lanean gauzatutako zeregin anitzetan bermatu da, besteak beste: (1) bi zuzendariekin ikerlanean hartutako erabakien gaineko eztabaidea uneetan; (2) partaideekin izandako elkarritzeten ostean jasotako landa-oharretan (VI Eranskina); (3) ikerketa-fokua aztertzeko ikuspegi soziokulturala ardatz hartzeko emandako argudioetan (1.1. atala eta ikerlan bakoitzeko sarreran); (4) ikerketa-galderak aztertzeko adierazitako ikuspegi paradigmatikoa, ontologikoa eta epistemologikoa bermatzeko erabilitako metodo eta analisi tekniken hautaketan (1.5. atala eta ikerlan bakoitzeko metodologia atalean); (5) elkarritzetak hasi aurretik ikerketa-fokuaren gaineko aurreiritzien kontzientzia areagotzeko ariketan (hirugarren kapitulua), eta; (6) ikerlan honen mugak adieraztean (6.2. atala eta ikerlan bakoitzeko ondorioen atalean). Aldi berean, zeregin horiek jarraian deskribatzen diren kalitate irizpideak indartu zituzten.

1.5.4.2. Sinesgarritasuna

Ildo horretan, HFan abilezia definitzen duten sinesmen normatiboetan oinarritutako praktika pedagogikoek eragiten dituzten ondorioak mahai gaineratu badira ere, *habitus* aldaketarako proposamen praktikoak alboratuak darraite (Hay eta Macdonald, 2010). Horren harira, salatzen da ikasle ‘ez abilek’ jasaten dituzten ondorio negatibo horiek hainbat eratara ematen direla, hala nola: bazterketa, gaitasun indibidualak garatzeko aukera murritzak, pertzepzio motor baxua, HFan ikasteko barne motibazio eskasa eta, ondorioz, bizitzan zehar JFKa praktikatzeko interes apala (Evans, 2004). Gainera, azpimarragarria da abilezia maila baxua duten ikasleek biolentzia esplizitua edo *bullying*-a jasan dezaketela, umiliazioa, burlak, isekak, jazarpena edo biolentzia moduan eman daitekeena (Jachyra, 2016).

Hori dela eta, HFan, bai eta JFKren beste esparru batuetan, abileziaren ulermen problematikoari eta aitorpena eskuratzeko aukera mugatuei aurre egiteko helburuarekin, aitortzen da ezinbestekoa dela etorkizuneko HFko irakaslegoaren hausnarketa kritikoa sustatuko dituzten estrategia pedagogikoak bultzatzea, hala, HFren esparruan ematen diren desberdintasunen gaineko kontzientzia areagotzeko (Nabaskues, Usabiaga, Martos-Garcia eta Standal, 2019). Horren harira, Standal eta Moek (2013) defendatzen dute HFko Hastapeneko Formakuntzan hausnarketa praktikoa sustatzeak ikasleek beren usteen gaineko gogoetarako gaitasuna hobetu dezakeela, ikastetxeetako kultura, politika eta praktiken bitartez azaleratzen diren eta ezaugarri jakin batzuk dituzten ikasleen bazterketa mantentzen dutenak (Echeita eta Ainscow, 2011).

Hala, JFKren esparruan abileziaren kontzeptuaren inguruko eztabaidea zabaltzeko asmoz,

ondorengo hiru galderetan sakontzea izan dut helburu: (1) zein da emakume ‘abilaren’ esperientzia JFKren esparru desberdinatan bere abileziei dagokien aitorpenean oinarrituz? (2) zein eragin izan dezake emakume ‘abilaren’ ikuspegi kritikoak abileziaren birkontzeptualizazioan JFKren alorrean? eta; (3) zeintzuk dira ikuspegi inklusiboago baterantz (nire) abileziaren ulermenean eragin duten estrategia pedagogikoak?

3.2. Metodologia

Devís-Devísek (2017) berriki adierazi moduan, ikerketa narratiboa isilpean dauden eta argitara ateratzea merezi duten istorioak mahai gaineratzea ahalbidetzen duen metodologia da, bai HFren alorrean (Svendby, 2016), bai eta kirol esparruan ere (Dorken eta Giles, 2011). Ikerketa narratiboa JFKren esparruan suspertzen ari den metodologia kualitatiboa izanik (Carless, 2012; Devís-Devís, 2017; Sparkes, 2002), artikulu honetan bost bizitza-historien gaineko hausnarketa pertsonala azaleratzea izan dut helburu, nik abileziaren ulermenean aldaketak eragin dituzte eta. Halaber, JFKren esparruan ditudan rol desberdinatan pentsatu eta ekiteko moduan eragina izan dute, besteak beste: JFKren doktoretza programako ikaslea, JFKZen graduoko irakaslea, eskola kiroleko teknikaria eta, hamarkada batean zehar, lehenengo mailako futbolaria. Horretarako, Pascualekin (2003) bat eginez, garrantzitsua izan da, batik bat, bi alderdiren inguruko kontzientzia hartzea; lehenengoa nire iraganaren dagokio eta, bereziki, JFKren esparruan bizitukoak abilezia ulertzeko eran izandako efektua; bigarren zereginan, aipatutako aurrekari horiek nire diskurtsoetan eragindako muga eta ondorioak mahai gaineratzea izan da. Bi alderdi horiek rol garrantzitsua jokatzen dute irakasle eta ikertzaile bezala nire identitate eta garapen profesionalean JFKZ graduoko irakasle bezala, inplikazio esanguratsuak dituenak HFan, zein eskola kirolaren alorrean (López, García-Peñuela, Pérez, López eta Monjas, 2004).

Ildo beretik, ikerketa narratiboa baliozko erraminta da gure gorputzean emozio bat sorrarazten duten bizitzako inflexio momentuetan sakondu, kontzientzia hartu eta horiei zentzua emateko (Monforte eta Pérez-Samaniego, 2017). Horretarako, ikertzaile bezala atzera begiratze, hausnarketa eta nire sentimenduen gaineko interpretazio prozesuak

funtsezko zereginak izan dira esperientzia pertsonal esanguratsuak identifikatu eta kontatzeko unean, alde batetik ikerketa-galderak erantzun eta, bestetik, kontakizun horietan ezkutatzen diren egitura sozialak argitaratzeko (Sparkes, 2002). Era horretan, ikerketa hau autobiografia narratibo moduan aurkezten da (González eta Becerril, 2013; Sparkes, 2002), alegia, nire historia propioa, esperientzia pertsonalak jaso eta, inspiragarri diren heinean, horietan sakontzea esparruotako beste eragileentzat erabilgarriak izan daitezkeenak. Horrez gain, narratiba honek JFKren esparruko profesionalen erreperitorioa handiagotu (Garrett eta Wrench, 2011) eta beren ekintzek duten eraginaren gaineko hausnarketa kritikorako joera piztu dezake (Sparkes, 2002).

Helburu horrekin, JFKren esparruan posizio pribilegiatuaz gozatu duen emakume ‘abilaren’ ikuspegitik bost inflexio momentuen gaineko hausnarketa pertsonala aurkezten da (Hunter, 2004). Era berean, isiltasuna apurtu eta biolentzia sinbolikoko esperientziak argitaratu nahi izan dira nire kontestu soziokulturalean existitzen diren botere harremanak mahai gaineratzeko asmoz (Carless, 2012). Jomuga hori asetzeko, jarraian kontatzen diren eszenak interesekoak izan daitezkeela uste dut. Ikerketa narratiboa sostengatzen duten paradigma epistemologiko eta ontologikoen ildotik, istorio txundigarri, koherente, esanguratsu, errebelatzaile eta sinesgarri bat sortu nahian (Sparkes, 2002), analisi prozesuan barne hausnarketa bidez identifikatutako eszena horiek lan horretako autoreekin partekatu dira begirada kritiko eta erreflexibo baten bila. Horrez gain, eszenak kokatzen diren testuinguruaren gaineko deskribapen zehatza eskainiz, horien egiazkotasuna bermatu nahi izan da.

Irakurleak inflexio momentuak hobeto ulertu eta kokatu ditzan beharrezkoa izan da, pertsona ikertua naizen aldetik, nire testuinguru soziokulturalari espazio bat eskaintzea (Pascual, 2003). Bide horretan, eszenei heldu aurretik, JFKren esparru desberdinak diskurso, elkarrekintza eta praktiken bidez barneratutako *habitus*-a konfiguratu duten paradigma eta egiturak argitaratu nahi izan dira.

3.3. Inflexio momentuak: non dago nire kapitala?

3.3.1. Abiapuntua: etengabeko kapitala, nire eguneroko ogia

Nire testuinguru soziokulturalean futbol trebetasunak izateak bizitzan zehar aitorpen mota desberdinak eskuratzeko iturria izan da, besteak beste: kapital ekonomikoa, goi errendimenduko kirolari izateagatik jasotako diru-laguntza eta kirol klub batean jokatzeagatik izandako soldatapeko; kapital soziala, gertuko eragileek transmititutako mirespna; kapital kulturala, HFan nota onen lorpena edo unibertsitatean sartzeko proba fisikoak ez egin behar izateko aukera eta, azkenik; kapital sinbolikoa, adibidez, komunikabideek eskainitako arreta mediatikoaren bitartez. Etengabeko kapital hori, zalantzarak gabe, JFKren esparru desberdinetan posizio nabarmenduetan kokatu nau, HFan ikasle ‘abilen’ taldean, esate baterako.

HFko ikasle nintzen garaian irakasgaiaren ezaugarri nagusiak, HF tradizional eta hegemoniko baten ezaugarriekin bat eginez (López et al., 2004), era honetan laburbildu daitezke: kirol anitzetako saio laburrak, testuingurutik at eta modu zuen batean irakatsitako kirol tekniken ikaskuntza eta ebaluazio sistema batukari batean oinarritutako proba fisikoak gainditzeko beharra. Labur esanda, diskurso teknikoarekin erlazionatzen den eta literatura espezializatuak kritikatu duen HFa (Beltrán-Carrillo eta Devís-Devís, 2019; Kirk, 2010). Ostera, nire kasuan, HFko ikasle nintzeneko oroitzapenak atseginak dira. Hori ez da harritzeko kontuan hartuz ni irakasleak proposatzen zituen jardueretan erraztasunez moldatzen zen ‘mari-mutil abil’ horietako bat nintzela. Aldiz, ‘ez abilen’ esperientzia estugarriak gogoratzen ditut, ‘gimnasiako’ saioa asteko ordurik baliogabeena eta beldurgarriena zenena, beste autore batzuen aurkikuntzakin bat eginez (Beltrán-Carrillo eta Devís-Devís, 2019; Monforte eta Pérez-Samaniego, 2017). Aurrekari horien ondorioz, ikaslego guztia motibatzeko eta JFKren onura intrintsekoez gozarazteko gaitasuna izango zuen irakaslea izateko nahia handia zen, nire esperientzia pertsonalaren arabera, ugariak eta oso onak ziren eta.

Helburu hori ardatz, urte batzuk beranduago JFKZak ikasi nituen Euskal Herriko unibertsitatean, non kirol *habitus* trinkoa duten ikasleak elkartu ohi diren (López et al., 2004). Tamalez, didaktika eta HFrekin harremana zuten gaiak pisu gutxiko alorrak ziren ikasketa planean, kirolekin konparatu ezkerro. Ez da harritzeko, beraz, beste hutsune

batzuren artean, JFKZ ikasketetan inklusioa eta genero ikuspegiarekin lotura zuten edukiak eskasak izatea (Martos-Garcia eta Valencia-Peris, 2016; Serra, Vizcarra, Garay, Prat eta Soler, 2016). Hortaz, gradua amaitu eta HFko etorkizuneko irakasle bezala nire formakuntza osatzeko aburuz, bi urteko master bat egin nuen Belgika eta Norvegian, zehazki, HF inklusiboaren esparruan espezializatuz (*Erasmus Mundus Master in Adapted Physical Activity*). Jarraian, JFKren esparru anitzetan kokatzen diren bizipen pertsonaletatik eraikitako eszena desberdinak aurkezten dira, masterrean erabili ziren estrategia pedagogiko anitzen bitartez zentzua berreskuratu zutenak. Horiei esker, abilezia eta horren bidezko kapitala eskuratzeko aukeren inguruko ikuspegi kritikoago bat garatzeko aukera izan nuen.

Segidan kontatzen diren eszenen denbora lerroari eta eremuari dagokienez, lehenengo hiruak hezkuntzaren eta kirolaren eremuan kokatzen dira; lehenengo biak bigarren hezkuntzako ikasle nintzeneko etapan eta, hirugarrena, berriz, masterra amaitu ondoren igaro zen. Laugarren eta bosgarren eszenak, aldiz, masterra burutzen nengoela gertatu ziren eta, hortaz, testuinguru soziokultural desberdinetan kokatzen dira hezkuntza-aisialdiaren esparruan.

3.3.2. Hezkuntza eta kirol esparruak

Emakumea izan arren futbola bezalako gizonen praktika batean mutilen maila berean moldatzeak aukera eman dit, neurri batean behintzat, niri ez zegokidan mundu batean onartua izateko. Hala ere, hurrengo gertaerek erakusten duten bezala, pribilegio hori diskriminazio eta biolentzia sinbolikoaren iturri izan da kasu batzuetan, nire kapitala oharkabeen desagertzen zelarik hezkuntzaren eta kirolaren esparruan.

3.3.2.1. Lehenengo eszena: ze pena ez zarela mutila!

Zalantzarik gabe HFko eta eskola kiroleko orduak asteko ordurik onenak ziren. Nire zorionerako, ordurako, gelako neska gehienek ez bezala, abilezia motor nahikoa eskuratu nuen irakasleak ezarritako kirol-jardueretan trebetasunez moldatzeko, hiruhileko bakoitzaren amaieran test fisikoak aise gainditzeko edo klase amaierako

partidutxoetarako lehen hiru pertsonen artean hautatua izateko. Ezaugarri horiek biltzen genituen ikasleok, hots, pertsona ‘abilok’, aitorpen mota desberdinetara sarbide erraza eskuratzentzen genuen. Alabaina, errealtitate horrek identitate dilema pertsonalak ekarri zituen, batik bat, hezkuntzaren esparruan nagusi zen kategorizazio dikotomiko eta estereotipatuaren ondorioz.

Bederatzi urterekin heldu zen nire eskuetara eskolaz kanpoko jardueren eskaintza, non ikasleen parte hartza generoaren arabera banatzen zen. Implikatutako eragileek aitortutako banaketa hori naturalizatutako kanon ikusezina zen, ikasleen jokabide eta hautuetan eragin nabarmena zuena. Nire harridura eta atsekabea ikusita, gurasoek errealtitate hura arduradunen aurrean salatzera animatu ninduten. Adoretsu eta mesfidati banaketa androzentriko hura ulertzen lagunduko zidan argudioen bila egoera salatzeko aurrera pausua eman nuen: “*zergatik ezin dut nire lagunekin futbolean jokatu?*” –zaletatu nion jardueraren koordinatzaileari. Nire kexaren aurrean bere kezka aurpegiak arazo bat zuela adierazten zuen. Azkenean talde aldaketa egiteko baimena lortu nuen. Esango nuke, kasu horretan, nire futbol trebetasunek nire alde jokatu zutela, hala, ikasleak taldekatzeko erabiltzen zen kategorizazio sinplista hura desegin eta hezkidetza sustatzea eta estereotipo diskriminatzialeak gainditzea eragozten zuten aurreiritzietan errotutako usteak zalantzan jarritz.

Egoera bera bi urte geroago errepikatu zen infantil mailan, non futbol klubetan jokalarien hautaketa ikasleen kirol ezaugarrien arabera egiten zen. Futbol trebetasunak izan arren, emakume izateak, beste behin ere, taldetik kanpo utzi ninduen. Arduradunen bulegorako bidea ezagutzen nuen eta, bertan, berriz ere, nire desadostasuna mahai gaineratu nuen. Beste behin ‘borroka’ irabazi banuen ere, oraingoan garaipena gazi-gozoa izan zen, ni taldean berandu sartzeak nire lagun baten berehalako kanporatzea ekarri baitzuen. Hamabi urteak bete berri, dagoeneko ikasle trebeenentzako tokia besterik ez zegoen.

Hurrengo bi denboraldietan, niri ez zegokidan mundu batean egotearen sentsazioa gero eta handiagoa zen: “*ze pena ez zarela mutila!*” –esaten zidaten etengabe. Kadete mailan sartzean nire taldekideen eta nire arteko desberdintasun biologikoek, gero eta ukaezinagoak zirenak, agintarien azken epaia justifikatu zuten. Isilpean, beharbada oker,

onetsi nuen garaia zela inguru hartin emakume ‘abil’ gisa nuen kapitalak iraungitze-data zuela onartzeko, agresibilitateak eta kontaktu fisikoak jokoan berebiziko garrantzia hartzen zutela baitzirudien: “*zure helburua partidu honetan txartel horia lortzea izango da, oldarkorragoa izan zaitezen nahi dut, arrautza pare batekin sartzea!*” –agintzen zidan entrenatzaileak zoroki atsedenaldian. Ohi bezala, orduan ere ez nuen kemenik bildu nire desadostasuna adierazteko eta, beraz, zegokidana betetzera mugatu nintzen: entzun, burua makurtu eta isilik geratu.

3.3.2.2. Bigarren eszena: irribarre egin eta, berriro, men egin

“*Aita, ama! Emakumezkoen selekzio nazionalarekin joateko deitu naute!*” –ezin nuen sinetsi. Kirolari ikuspegitik ospatzeko albistea bazen ere, laster ikasi nuen hura leku etsaia izango zela: irribarre egin, burua makurtu eta isilik geratu. Hori zen, zalantzak gabe, arduradunen begirada arretatsuen aurrean oharkabean pasatzeko modurik egokiena; izan ere, kontrol-fokuak ziren gure pisua, gure platereko errazioa, gure portaera, gure gorputza, baita gure sexualitatea ere.

Testuinguru hartin, entrenatzaileari bere egunik onenetan jokalari beteranoenekin hitz egitea gustatzen zitzzion, lau izarreko hotel haietan ‘espetxeratutako’ nerabeen artean beldurra sortzen zuten jarraibide matxista eta homofoboak bitxikeriaz justifikatuz: “*lesbianak larrua gaizki jotakoak dira!*” –argudiatzen zuen. Oraingoan ere ez nuen ihesbiderik izan: irribarre egin, burua makurtu eta isilik geratu. Hamarkada bat geroago, esaldi hura nire barnean darrai eta gogora dakarkit hurrengo deialdietara hautatua izatea ez zela hain pozgarria izan. Kontzentrazioetan bizi nuen beldurra eta mendekotasun egoera hura zelaian somatizatzen hasia zen. Bitartean, bere atzparretan erortzen ziren gainontzeko ‘neskatoak’ bezala, komandantearen egoa inkontzienteki elikatzen nuen, hala, inplikatutako pertsonek onartu eta naturalizatutako botere harremana erreproduzitzuz.

3.3.2.3. Hirugarren eszena: kontzientzia profesionala areagotzea. Nire kapitala eskatzen dut!

Denbora dezente geroago, atzerrian egindako masterra amaitu eta nire jatorrizko

herrialdera itzuli nintzenean, futbol ibilbideari ekin nion berriro ere. Nire azken denboraldiko elkarrizketarik ohikoenak lan-bizitza eta kirol-bizitza uztartzearen ingurukoak ziren. Komunikabideek estatu maila goreneko futbol jokalariek bizi genuen egoeraren kontzientzia areagotzen saiatzen ziren. Masterrean zehar barneratu nuen ikuspegi kritikoari esker, ulertzen hasia nintzen goi errendimenduaren esparrua genero desberdintasunaren arrakala islatzen zen agertoki bat zela. Hala, atsegin nuen nire esperientziatik errealitate hori ikusarazten laguntzea. Bain, itzul gaitezen joko-zelaira.

Igande hura partida garrantzitsua izango zen, ziurrenik denboraldiko azken partida. Azken hilabeteetan min handia izan zuen belaunean, oinez hasten nintzenero errenka ibili behar izateraino. Botikek, azkenean, sufrimendua inhibitu zuten eta, anestesiatuta, berdegunera salto egin nuen. Han egon nahi nuen, nire habitatetan; aitorpen iturria eta eguneroko tentsioak bideratzeko gune terapeutikoa. Hasierako txistua jo eta hamar minutura, aurkako taldeko erdilaria gainditzeko egin nuen bira batean nire eskuineko belauneko lotailuek "*nahikoa da!*" oihukatu zuten. Hiru aste geroago, lesio luzea izan ohi den *triada* diagnostikatu zidaten. Traumatologoak bere agenda begiratu eta irmotasunez orri bat bestearen atzetik pasatzen zuelarik, hotz-hotzean adierazi zidan ebakuntza bost hilabete barru izango zela: "*ezinezkoa! Lehen mailako futbolaria izan naiz hamar urtez; hori ez dago onartzek!*" –pentsatu nuen negar-zotin artean. Ostera, ez zirudien inork nire ezinegona partekatzen zuenik. Kasu honetan, aurreko eszenatokietan ez bezala, nire sumindurak egoera horren aurrean isilik geratzea eragotzi zidan.

Hala, berehala komunikabideetara jo nuen, istorio horrek beren interes mediatikoa asetuko zuelakoan. Espero bezala, federazioko arduradunei ez zitzaien batere gustatu tratu bidegabea salatu izana, ezta sare sozialetan albistearen berehalako hedapena ere, 'premiazko' bilera batean 'adeitasunez' adierazi zidatenez. Bertan malko eta frustrazio neurrigabeen artean ulertu nuen futbol sarearen interes ekonomikoak harresi handiegia zirela niretzat. Hori horrela, isiltzea erabaki nuen baina, oraingoan, nire lan-bizitza berregin, nire osasuna lehenetsi eta, batez ere, kirolean genero berdintasunerako bidean nire aletxa jartzeko behar nuen adierazpen askatasuna berreskuratuz; bide horri, ordea, irakasle-ikertzaile rol berri batetik helduko nion.

3.3.3. Hezkuntza eta aisialdi esparruak

Nire kirol ibilbidean geldialdi bat egin eta *Erasmus Mundus Master in Adapted Physical Activity* izeneko masterrean murgildu nintzen HF inklusiboaren arloan nire ezagutza areagotzeko asmoz. Hurrengo gertakariak etapa horretan kokatzen dira eta inflexio-une bi islatzen dituzte, zeinetan nire kapitala murriztu egiten den testuinguru soziokultural desberdinatan murgiltzearen ondorioz. Izan ere, jarraian kontatzen diren eszenen analisiaren arabera, testuinguru horietan kapitalaren banaketa ekitatiboago bat nagusitzen zen.

3.3.3.1. Laugarren eszena: kapital-menpekotasuna

Norvegiara iritsi eta hilabete pare bat igaro ostean, apena nuen harremanik bertako inorekin. Horregatik, sorpresa atsegina izan zen fakultateko ikasle talde bat astero areto futbolean jokatzeko elkartzen zela jakitea. Bi aldiz pentsatu gabe joatea erabaki nuen, lagun berriak egitea lan samurra izango zelakoan; nire futbol trebetasunen bidezko aitorpen sozial dosi baten bila ote nenbilen? Aukera tentagarria zen, dudarik gabe. Nire harridurarako, ordea, lehen saioetan parte hartu izanak ez zituen nire itxaropenak bete: "*futbolean oso ondo jokatzen duzu, nongoa zara?*" –galdu zidan niregana hurbildu zen lehen pertsonak. Euskal Herrikoa nintzela erantzun nion, Espainiako iparraldean. "*Bazen garaia norbait nigana hurbiltzeko*" –pentsatu nuen neure artean. "*A, espanyiarra!*" –erantzun zidan–, "*han denok jokatzen duzue futbolean. Tiki-taka*". Nire jatorrizko herrialdea kontuan hartuta ikasle harentzat ez zen harritzekoa, emakume izanda ere, jarduera horretan ondo moldatzea. Aldiz, nire testuinguru soziokulturalean kirol hori praktika maskulinizatua izanik, pertsona harentzat ni emakumea izatea axolagabea zela ikustea nahastuta utzi ninduen. Hala, elkarri irribarre egin eta isilik jarraitu genuen zelaira jauzi egiteko gure txanda noiz iritsiko zain.

Zirudienez, nire futbol dohainak ez ziren nahikoak izango herrialde eskandinaviarrean lagun berriak egiteko: "*non dago nire kapital soziala? Bai hotzak zirela norvegiarrak!*" – galdetzen nion neure buruari egoera ezin ulertu.

3.3.3.2. Bosgarren eszena: kapitala zuretzako, kapitala niretzako

Masterrean, beste landa-praktika batzuen artean, funtziō aniztasuna zuten pertsonentzako kirol-udaleku bat gauzatu zen Belgikako herri txiki batean, programako ikasleek antolatuta eta zuzenduta. Kanpamentuko bigarren egunean Steve ezagutu nuen, ‘menpekotasun handiko’ taldean sailkatutako parte hartzaleetako bat. Steve bere aulkia elektrikoan autonomiaz mugitzeko gai zen, eskuin eskuko hiru hatzatan zuen mugikortasunari esker.

Hurrengo egunean, kanpo-ekintza bat burutu zen bereziki ‘menpekotasun handiko’ multzoko partaideei zuzendua. Gure txanda noiz iritsiko zain geudenontzat zirkoko material desberdina atera zen. Hara hurbildu, diaboloa hartu eta airera jaurtitzen nuen bitartean konturatu nintzen Stevek ez ziola begirik kentzen: “*jolastu nahi duzu?*” –galdetu nion. Bi aldiz pentsatu gabe, Stevek arinki mugitu zuen bere besorik funtzionalena makiletako bat hartzeko asmoz, neure buruari objektu hura dantzan jartzea lortuko ote genuen galdetzen nion bitartean. Nire harridurarako Stevek makila posizio horizontalean mantentzea lortu zuen jarduera horretarako modu ezin hobean. Haren eskuin aldean kokatu eta esku artean nuen makila mugitzen hasi nintzen, Stevek berea tingo mantentzen zuen bitartean. Saiakera gutxi batzuen ostean, diaboloa mugimenduan mantenzeko gai ginen, baita bere inertzia mantenduz airean hartzeko ere. Poliki-poliki, gure irudimenaren emaitza ziren hainbat keinu ezartzen joan ginen, trikimailu zehatzak adierazten zituztenak. Minutu batzuk beranduago, inguruko pertsonek bat egin zuten gure bat-bateko emanaldiarekin.

3.4. Amaierako hausnarketak

Aurreko eszenak, JFKren esparru desberdinatan kokatzen diren bizi-experiencias gisa aurkeztu dira emakume ‘abilaren’ begiradapean, zeinetan kapitalerako sarbide pribilegiatura desagertu edo diluitu zen. Azken batean, inflexio-une horiek nire abilezia ulertzeko moduaren bilakaera ekarri nahi izan dute gogora, hausnarketa prozesu baten ondorio izan direnak. Prozesu horrek, luzarora, kontzeptu horren gaineko kontzientzia

hartzeaz eta nire sinesmenak zalantzat jarri eta eraldatzeaz gain, ikuspegi biologikoan eta soziopsikologikoan errotutako usteez harago (Hay eta Macdonald, 2010; Wright eta Burrows, 2006), abilezia ulertzeko modu berriak deskubritzea ahalbidetu zidan (González eta Becerril, 2013). Aldaketa esanguratsuenak, batez ere, abilezia ulertzeko bestelako nozio bat ezagutzeari esker gertatu ziren ikuspegi soziokulturalean kokatzen diren autoreen eskutik, abileziaren kontzeptua testuinguru jakin batean kirol teknika zehatz bat egiteko gaitasun hutsetik haratago definitzen zuena (Evans, 2004). Era berean, eta modu osagarri batean, masterrean ikuspegi kritiko batekin egin nuen topo, azken batean, JFKren esparruan oinarri justuagoak eraikitza eragozten zuten eta gutxi batzuren posizio abantailatsuak errepruduzitzen zitzuten mekanismoak mahai gaineratzeko aukera eman zidana (Standal, 2015).

Hori da lehen hiru eszenen kasua, non, atzera begiratuz, biolentzia sinbolikoko egoerak identifikatu nituen lehiaketa eta eskola kirolaren alorrean. Bi testuingurueta, Flintoffen eta kideen (2008) ildotik, ordura arte emakume ‘abila’ izanagatik eskura nuen aitorpena desagertu egin zen gertakariak kokatzen diren testuinguru soziokulturalean nagusi ziren diskurtso heteronormatibo eta hegemonikoen ondorioz. Lehenengo bi eszenetan, Hunterren (2004) behaketekin bat etorriz, inkontzienteki menpekotasun posizioetan kokatzen ninduten egiturak errepruduzitzen lagundu nuen bitartean, hirugarren agertokiaren azterketatik abiatuta, ikus daiteke, diskurtso menderatzaileen gaineko ikuspegi kritikoago bat izateak nire posizionamendua eta aitorpena lortzeko aukera mugatua salatzea ahalbidetu zidala. Desabantailan kokatzen ninduten egiturez jabetzea funtsezko ariketa bat izan zen ahalduntze prozesuan aurrera egin eta JFKren eremuan nagusi ziren dogmak gainditzeko (Hunter, 2004; Standal, 2015).

Bestalde, laugarren eta bosgarren eszenak testuinguru soziokultural desberdinietan igaro ziren. Kapital-mendekotasunaren sentimendua deitu dudan horrek eragindako nahasteak zentzua bereganatu zuen Basil Bersteinen diskurtso pedagogikori esker (Evans eta Penney, 2008). Diskurtso horrek bi eredu pedagogiko mota bereizten ditu: bertikala, non pertsonen abileziak hierarkizatu egiten diren arau estandarrak erreferentzia gisa hartuta, eta; horizontala, non ikasleen arteko abileziak berdin baloratu eta ikaskuntzarako elementu aberasgarri gisa hautematen diren. Azken eredu horrek ingurune inklusiboen

eraikuntza errazten du (Evans eta Penney, 2008; Standal, 2015), pertsona gehiagok bidezko aitorpena lortzeko aukera emateaz gain, indargabetu egiten baititu generoa, sexualitatea edo funtzió aniztasuna bezalako identifikatzaileek duten eragina (Flintoff et al., 2008; Hunter, 2004); hain zuzen, ikasleen esperientzia positiboak bermatzeko ezinbesteko elementuak direnak. Ildo horretatik, ondorioztatu nuen kontatutako azken bi eszenak ezezaguna zitzaidan eredu pedagogiko horizontalago bat gailentzen zen testuinguru batean kokatu zirela.

Hala, Evansen (2004) lanetik eratorritako ikerketa enpirikoen irakurketa erreflexiboa esker (Wilkinson et al., 2013), partekatutako eszenetan bizitako nahasmenak murgildurik nengoeng ingurune soziokulturalean nagusi ziren egitura eta diskurtsoen ondorio zela ulertu nuen. Alabaina, kontzientzia areagotze horrekin batera, ikasle ‘abilentzako’ betiko HFa eskaintzen jarraituko zuen irakaslea izateak kezkatzen ninduen (Penney eta Harris, 1997); pentsamendu horrek nire abileziaren nozioa eta gorputzutako diskurtsoak aztertu eta zalantzan jartzera eraman ninduen.

Zorionez, praktika erreflexiboa (Standal eta Moe, 2013) etengabeko ariketa bat zen masterreko irakasgai gehienetan, funtsezkoa izan zena nire ikuspegiak hezkuntzan izan zezaketen eraginaren gaineko kontzientzia areagotu eta nire usteen jatorria ulertzeko. Gogoeta prozesuei eta eztabaidarako espazioei esker, argiago ikusi ahal izan nituen JFKren esparruan nire *habitus*-aren, jarreren, hautuen, aurreiritzien, beldurren eta posizio pribilegiatuaren konfigurazioa. HFko Hastapeneko Formakuntzan urriak izan ziren estrategia pedagogiko horiek aukera ematen zidaten nire nortasun profesionala zalantzan jarri eta berreraikitzeko, nire testuinguru soziokulturalean nagusi zen abileziaren nozioa biluzteko eta, horrek, inklusio printzipioekin zuen lotura barneratzeko. Azken batean, ulertu nuen HFan testuinguru inklusibo batek, beste gauza batzuen artean, norbanakoentzako desberdintasunak errespetatu eta bidezko kapital banaketa bat eskaintza ezinbestekoa zela (Standal, 2015).

Emakume ‘abilaren’ begirada kritiko batetik aurkeztu diren eszenen helburua, apalki, JFKren esparruko eragileen istorioen erreperitorioa zabaltzea izan da; modu horretan, biolentzia sinbolikoko esperientziak irakasleen praktika pedagogikoei lotutako osagaiak

direlaren kontzientzia areagotu eta irakaskuntzaren ulermen sakonago eta sentikorrago bat piztuz (Monforte eta Pérez-Samaniego, 2017). Azken batean, kontatutako eszenen helburua arloko profesionalen artean hausnarketa eta elkarritzeta sustatzea izan da, JFKren eremuan erreproduzitzen dugun diskurtso tradizionala zalantzan jartzeko. Ildo beretik, abileziaren ulermen mugatuari aurre egitea ezinbestekoa da hezkuntza-legeek aldarrikatzen duten inklusioaren printzipioa bermatzeko. Gaur egun, ordea, inklusioak HFan erronka izaten darrai (Martos-Garcia eta Valencia-Peris, 2016). Bide horretan, pentsamendu kritikoan kokatzen diren autore erreferenteek (Sparkes, Martos-Garcia eta Maher, 2019; Svennberg, 2017) eraldaketak gauzatu dituzte HFan abileziaren ulermen inklusiboago baterantz aurrera pausuak emateko asmoz. Ildo horretan, hezkuntza, pertsonen arteko desberdintasunak gainditzeko funtsezko tresna dela aitortzen da, ikasleen emantzipazioa, gizarte eraldaketa eta, bereziki, ikasgelan kontrol eta bazterketa pairatzen duten ikasleen askatasunerako (Freire, 2003).

Horretarako, HFko Hastapeneko Formakuntza programak identitate profesionala berreraiki eta ikasleek berekin dakartzaten nozioak birkontzeptualizatzeko espazio egokitzat jotzen dira (Brown, 2005; Dowling, 2011). Horrek, ordea, HFko Hastapeneko Formakuntza programetan egiteke dagoen zeregina izaten darrai (Moen, 2011). Izan ere, egin berri den ikerketa enpiriko batean, JFKZ graduko ikasleek, HFan abilezia ulertzeko modua inklusioa sustatzeko problematikoa izan daitekeela identifikatu zen, graduau zehar gai horien inguruan jasotako prestakuntza eskasa salatu zutelarik (Nabaskues et al., 2019). Hala, unibertsitate ikasketetan abilezia eta inklusioaren kontzeptuei buruzko eztabaidak sustatzea funtsezkoa konsideratzen da errendimenduaren eta maskulinitate hegemonikoaren diskurtsoen, bai eta hezkuntza interesetatik urrunten diren kirol-jarduera estereotipatuen presentziaren inguruan kontzientziatzeko eta horiek eraldatzeko (Martos-Garcia eta Valencia-Peris, 2016; Serra et al., 2016).

Helburu horrekin, jarraian, masterrean izandako esperientziak oinarri, abileziaren nozioa modu dinamikoago eta inklusiboagoan ulertzeko baliagarriak izan zaizkidan hainbat estrategia pedagogiko zerrendatzen dira: (a) praktika erreflexiboa, Standal eta Moek (2013) definitzen dutenaren arabera; (b) landa-praktiken bitartez funtzio aniztasuna duten pertsonekin elkarrekintza (Barber, 2018); (d) bestelako abileziak eskatzen dituzten

jarduera fisikoetan parte hartzea (Evans, Brown, eta Bright, 2015); (e) egoera zaurgarrian dauden pertsonen ahotsei arreta eskaintza eta, horrela, bizitza-historien errepertorioa zabaltzea narratiben funtzió pedagogikoa aitortuz (Monforte eta Pérez-Samaniego, 2017), eta; (f) kontakizun autobiografikoetan oinarritutako kontakizunak erabiltzea, besteak beste, barrura begirako teknika eta HFri buruzko sinesmenen inguruko kontzientzia areagotzeko ariketak sustatuz (González eta Becerril, 2013). Ildo beretik, interesgarria litzateke HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntza programetan testuinguru inklusibo eta seguruak eraikitzeko lagungarriak izan daitezkeen ekintzen gaineko eztabaidak bermatzea (Ladda, 2016). Horiek Hastapeneko Formakuntza programen eraginkortasuna hobetzen lagundu dezaketen tresna pedagogikoak dira JFKren eta, bereziki, HFren esparruan. Izan ere, ikaskuntza giro ‘bizigarriagoak’ (*habitable*) eraikitzeko gai diren profesionalak prestatzeko (Standal, 2015) eta horien hausnarketa kritikorako gaitasuna hobetzeko baliozkoak izan daitezke (López et al., 2004).

Alde horretatik, interesgarria litzake HFko Hastapeneko Formakuntzako ikasle eta irakasleek abileziaren inguruan dituzten ikuspegietan sakontzea, azken horiek transmititzen dituzten diskurtsoek berebiziko garrantzia baitute etorkizuneko irakasleen sinesmenetan. Halaber, aberasgarria litzateke aipatutako estrategia pedagogikoen abileziaren ulermenean eta implikatutako eragileen identitate profesionalaren berreraikuntzan duten eragina ikertzea (Dowling, 2011). Bukatzeko, JFKren mundua pertsonen arteko aniztasuna ospatuko duen ikuspegi justuago batetik ulertu ostean (Evans eta Penney, 2008), testuinguru inklusiboago bat eraikitzen lagunduko duen eragile izateko erantzukizuna norbere gain hartzeko beharra aldarrikatzen dut.

3.5. Erreferentziak

Ainscow, M., Both, T., eta Dyson, A. (2006). *Improving schools, developing inclusion*.

Nueva York: Routledge.

Barber, W. (2018). Inclusive and accessible physical education: Rethinking ability and

disability in pre-service teacher education. *Sport, Education and Society*, 23(6),

520–532.

- Beltrán-Carrillo, V. J., eta Devís-Devís, J. (2019). El pensamiento del alumnado inactivo sobre sus experiencias negativas en educación física: Los discursos del rendimiento, salutismo y masculinidad hegémónica. *RICYDE. Revista Internacional de Ciencias del Deporte*, 55(15), 20–34.
- Bourdieu, P. (2000). *La dominación masculina*. Barcelona: Anagrama.
- Bourdieu, P., eta Wacquant, L. (2005). *Una invitación a la sociología reflexiva*. Buenos Aires: Siglo XXI Editores.
- Brown, D. (2005). An economy of gendered practices? Learning to teach physical education from the perspective of Pierre Bourdieu's embodied sociology. *Sport, Education and Society*, 10(1), 3–23.
- Carless, D. (2012). Negotiating sexuality and masculinity in school sport: An autoethnography. *Sport, Education and Society*, 17(5), 607–625.
- Devís-Devís, J. (2017). La investigación narrativa en la educación física y el deporte. *Movimento*, 23(1), 13–24.
- Dorken, S., eta Giles, A. (2011). From ribbon to wrist shot: An autoethnography of (a)typical feminine sport development. *Women in Sport and Physical Activity Journal*, 20(1), 13–22.
- Dowling, F. (2011). “Are PE teacher identities fit for postmodern schools or are they clinging to modernist notions of professionalism?” A case study of Norwegian PE teacher students’ emerging professional identities. *Sport, Education and Society*, 16(2), 201–222.
- Echeita, G., eta Ainscow, M. (2011). La educación inclusiva como derecho. Marco de referencia y pautas de acción para el desarrollo de una revolución pendiente. *Tejuelo*, 12, 26–46.
- Evans, A. B., Brown, L. J., eta Bright, J. L. (2015). Non-disabled secondary school children’s lived experiences of a wheelchair basketball programme delivered in the East of England. *Sport, Education and Society*, 20(6), 741–761.
- Evans, J. (2004). Making a difference? Education and “ability” in physical education. *European Physical Education Review*, 10(1), 95–108.
- Evans, J., eta Penney, D. (2008). Levels on the playing field: The social construction of physical “ability” in the physical education curriculum. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 13(1), 31–47.

- Fitzgerald, H. (2005). Still feeling like a spare piece of luggage? Embodied experiences of (dis)ability in physical education and school sport. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 10(1), 41–59.
- Flintoff, A., Fitzgerald, H., eta Scraton, S. (2008). The challenges of intersectionality: researching difference in physical education. *International Studies in Sociology of Education*, 18(2), 73–85.
- Freire, P. (2003) *Pedagogía del oprimido*. Madril: Siglo XXI Editores.
- Garrett, R., eta Wrench, A. (2011). Making physical education a fairer, safer and happier place: Putting critical practice into action. *Asia-Pacific Journal of Health, Sport and Physical Education*, 2(2), 35–49.
- González, G., eta Becerril, R. (2013). El recorrido investigador de un educador novel explicado desde una perspectiva autobiográfica. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 16(3), 61–78.
- Hay, P. J., eta Macdonald, D. (2010). Evidence for the social construction of ability in physical education. *Sport, Education and Society*, 15(1), 1–18.
- Hunter, L. (2004). Bourdieu and the social space of the PE class: Reproduction of doxa through practice. *Sport, Education and Society*, 9(2), 175–192.
- Jachyra, P. (2016). Boys, bodies, and bullying in health and physical education class: Implications for participation and well-being. *Asia-Pacific Journal of Health, Sport and Physical Education*, 7(2), 121–138.
- Kirk, D. (2010). *Physical Education Futures*. London: Routledge.
- Ladda, S. (2016). Creating respectful and inclusive environments: The role of physical educators and coaches. *Journal of Physical Education, Recreation & Dance*, 87(3), 3–4.
- López, V. M., García-Peña, A., Pérez, D., López, E., eta Monjas, R. (2004). Las historias de vida en la formación inicial del profesorado de educación física. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y del Deporte*, 4(13), 45–57.
- Martos-Garcia, D., eta Valencia-Peris, A. (2016). Osteogénesis imperfecta y educación física. Un caso inédito de inclusión educativa. *Estudios Pedagógicos*, 42(1), 159–175.
- Monforte, J., eta Pérez-Samaniego, V. (2017). El miedo en educación física: Una historia

- reconocible. *Movimento*, 23(1), 85-99.
- Moen, K. M. (2011). "Shaking or stirring"? A case-study of physical education teacher education in Norway. Doktoretza Tesia. Norwegian School of Sport Science.
- Nabaskues, I., Usabiaga, O., Martos-Garcia, D., eta Standal, Ø. F. (2019). Comprensión de la habilidad desde la perspectiva del futuro profesorado de educación física. *Retos*, 36(2), 118–124.
- Pascual, C. (2003). La historia de vida de una educadora de profesores de educación física: Su desarrollo personal y profesional. *Ágora para la Educación Física y el Deporte*, 2-3, 23–38.
- Penney, D., eta Harris, J. (1997). Extra-curricular physical education: More of the same for the more able? *Sport, Education and Society*, 2(1), 41–54.
- Redelius, K., eta Hay, P. (2009). Defining, acquiring and transacting cultural capital through assessment in physical education. *European Physical Education Review*, 15(3), 275–294.
- Serra, P., Vizcarra, M. T., Garay, B., Prat, M., eta Soler, S. (2016). Análisis del discurso de género en las matrices curriculares de las ciencias de la actividad física y el deporte. *Movimento*, 22(3), 821–834.
- Sparkes, A. (2002). *Telling tales in sport and physical activity: A qualitative journey*. United Kingdom: Human Kinetics.
- Sparkes, A. C., Martos-Garcia, D., eta Maher, A. J. (2019). Me, Osteogenesis Imperfecta, and my classmates in physical education lessons: A case study of embodied pedagogy in action. *Sport, Education and Society*, 24(4), 338–348.
- Standal, Ø. F. (2015). *Phenomenology and pedagogy in physical education*. London: Routledge.
- Standal, Ø. F., eta Moe, V. (2013). Reflective practice in physical education and physical education teacher education: A review of the literature since 1995. *Quest*, 65(2), 220–240.
- Svendby, E. B. (2016). (Re)Telling lived experiences in different tales: A potential pathway in working towards an inclusive PE. *Sport, Education and Society*, 21(1), 62–81.
- Svennberg, L. (2017). Swedish PE teachers' understandings of legitimate movement in a criterion-referenced grading system. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 22(3), 257–269.

Wilkinson, S., Littlefair, D., eta Barlow-Meade, L. (2013). What is recognised as ability in physical education? A systematic appraisal of how ability and ability differences are socially constructed within mainstream secondary school physical education. *European Physical Education Review*, 19(2), 147–164.

Wilkinson, S. D., eta Penney, D. (2016). The involvement of external agencies in extra-curricular physical education: Reinforcing or challenging gender and ability inequities? *Sport, Education and Society*, 21(5), 741–758.

Wright, J., eta Burrows, L. (2006). Re-conceiving ability in physical education: A social analysis. *Sport, Education and Society*, 11(3), 275–291.

LAUGARREN KAPITULUA

Abileziaren ulermenta heziketa fisikoan Jarduera Fisikoaren
eta Kirolaren Zientzietako graduko ikasleen ikuspegitik

4.1. Sarrera⁴

Ikerketa honek JFKZ graduoko ikasleek abilezia HFan nola ulertzen duten aztertu eta ulertzeaz gain, haien usteek testuinguru inklusibo bat sustatzerako orduan izan ditzaketen ondorioak esploratzea izan du helburu.

Hezkuntza inklusiboaren kontzeptua, lan honetan, pertsona guztiekin beren tokiko ikastetxeen hezitzeko eskubide bezala ulertzen da (Flem eta Keller, 2010), ikasle oro partaide eta onartua sentituz (Reid, 2003) eta esperientzia motorren bidez gaitasun indibidualak garatzeko aukerez gozatuz (Evans eta Penney, 2008). Ildo horretan, Standal (2015) jarraiki, HFko inklusibo batean ondorengo irizpideak bermatu behar direla azpimarratzen dugu: (1) norbanakoaren desberdintasunak ospatzea; (2) ikasle guztiei aitorpenerako aukerak eskaintza, eta; (3) ikaslegoa talde mugatuetan kokatzen dituzten kategorizazio murriztatzaileak alde batera uztea, generoa edo aniztasun funtzionala kasu.

Hezkuntza-legeek duela hamarkada bat baino gehiagotik inklusioa aldarrikatzen duten arren Spainian (Martos-Garcia eta Valencia-Peris, 2016; Ríos, 2009), zein nazioarte mailan (Penney, Jeanes, O'Connor eta Alfrey, 2018), gaur egun, ideologia eta praktikaren arteko arrakalaren inguruko kezka nabarmena da. Ildo horretan adierazten da, irakasleek, hezkuntza inklusiboaren garapenean eginkizun erabakigarria dutenek (Coates, 2012), zailtasunak dituztela abilezia desberdinak dituzten ikasleen barne-baldintzak (interesak, nahiak, gaitasunak) asetuko dituzten testuinguru ‘bizigarriak’ (*habitable*) eraikitzerako orduan (Standal, 2015). Hori dela eta, bazterketa esperientziak nabarmenak dira HFan ‘hain abilak ez diren’ ikasleen artean (Martos-Garcia, 2018).

Abilezia termino konplexua da, literaturan hainbat modutan definitzen dena eta esanahi implizitu desberdinak dituena hizkuntzaren eta testuinguru soziokulturalaren arabera (Standal, 2015). Adibidez, ingelesez *disability* terminoak ‘abilezia eza’ adierazten du eta, aldi berean, funtzio aniztasuna duten pertsonak izendatzeko erabiltzen da, ikuspegi medikoan errotutako sinesmenen ondorioz. Izan ere, eredu medikoaren arabera,

⁴ Jatorrizko artikulua: Nabaskues, I., Usabiaga, O., Martos-Garcia, D. eta Standal, Ø.F. (2019). Comprensión de la habilidad desde la perspectiva del futuro profesorado de Educación Física. *Retos*, 36(2), 118–124.

urritasuna bera pertsonaren ‘arazo’ bat konsideratzen da. Ildo beretik, pertsonak urritasuna izateagatik abilezia txikiagoa duela onartzen denez, oro har, beheragoko mailakotzat hartzen dira (Fitzgerald, 2005).

Bestetik, Wright eta Burrowsen (2006) arabera, HFan abilezia ulertzeko hiru ikuspegi bereizten dira: (1) ikuspegi biologikoa, abilezia pertsonaren berezkoa eta naturala den talentutzat hartzen duena; (2) ikuspegi soziopsikologikoa, abilezia ikaslearen motibazio eta esfortzuaren arabera areagotu edo estatiko gera daitekeen entitate bezala ulertzen duena, eta; (3) ikuspegi soziokulturalak, abilezia kapital edo aitorpen mota desberdinak ekarri ditzakeen eraikuntza soziala dela defendatzen duena, soilik ‘abilak’ diren ikasleentzat eskuragarri daudenak (Evans, 2004).

Hala, begirada soziokulturalak, beste bi ikuspegiak ez bezala, esparru zehatz batean nagusitzen diren diskurso eta egituren onurak nork jasotzen dituen ulertzea du helburu, nagusiki Pierre Bourdieu (2000) soziologoaren honako kontzeptuen bidez: *habitus-a*, kapitala, esparrua eta biolentzia sinbolikoa. *Habitus*-ak kontzientziaren atalasearen azpitik gorputzen diren disposizio, eskema, ezagutza eta gaitasunak jasotzen ditu. Horrela, testuinguru jakin batean botere posizioetan dauden eragileek legitimatutako ezaugarriekin bat datozen ikasleek bakarrik izango dute kapital mota desberdinatarako sarbideaz gozatzeko aukera (Hunter, 2004). Etengabe erreproduzitzen den sistema horrek, ordea, biolentzia sinbolikoko esperientziak –hots, ikusezinak eta ukaezinak diren diskriminazio egoerak– eragiten ditu ikasle ‘ez abilen’ artean (Bourdieu, 2000), kolektibo horren ikasteko aukerak eta bizitzan zehar jarduera fisikoan parte hartzeko aukerak mugatu ditzakeena (Wilkinson, Littlefair eta Barlow-Meade, 2013). Horrez gain, ikerketa objektuaren konplexutasuna nabarmentzekoa da, abileziaren eraikuntzan aldi berean hainbat identifikatzaileek eragiten baitute; hala nola, generoa, aniztasun funtzionala, sexualitatea, arraza edo klase soziala (Flintoff, Fitzgerald eta Scraton, 2008). Identifikatzaile horiek testuinguru soziokulturalean nagusi diren kirol, errendimendu eta diskurso hegemonikoetan oinarritzen direnez, HFko ikasleen arteko desberdintasunak kategorizatzen eta indartzen dira. Diskurso horiek HFan transmititzen dira, bereziki, irakasgaian gailentzen den eredu pedagogiko bertikalaren bidez, gorputz eta zaletasun jakin batzuk dituzten pertsonen alde eginez (Evans eta Penney, 2008; Hunter, 2004).

Ildo horretan, aitortzen da HFko irakasleak abileziaren nozioa nola ulertzen duen erabakigarria dela ikasgeletan inklusioa sustatzerako orduan (Evans eta Penney, 2008); izan ere, irakaslearen abileziaren ulermenak eragina izan dezake HFan garrantzitsua zeren jakinarazten duten erabakietan eta, bereziki, curriculumaren interpretazioari, ebaluazio sistemari eta eredu pedagogikoari dagozkien hautuetan (Hay eta lisahunter, 2006). Hau hala izanda ere, literaturak irakasleek abilezia modu sinplistan definitzen dutela adierazten du (Hay eta lisahunter, 2006; Hay eta Macdonald, 2010a). Ondorioz, HFan posizio ahulenetan dauden ikasleen esperientziak negatiboak izan ohi dira eta, horien artean, bereziki, funtzio aniztasuna duten ikasleenak (Fitzgerald, 2005) eta nesken kolektiboena (Domangue eta Solmon, 2012; Hay eta Macdonald, 2010b; Hills, 2007; Hunter, 2004). Gainera, biolentzia sinbolikoko egoerok areagotu egiten dira kiroletan eta lehiakortasuna oinarritutako testuingurueta, besteak beste, irizpide zehatz eta ohikoetan oinarritutako ebaluazio sistemaren bidez ikasgelan inklusioa oztopatuz (Canales, Aravena, Cárcamo Oyarzun, Lorca eta Martínez-Salazar, 2018). Egoera problematikoa bada ere, gai horri eskaintzen zaion arreta eskasa kezkagarria da (Evans, 2004; Hay eta lisahunter, 2006).

Errealitatea eraldatzeko bidean, HFan eta Hastapeneko Formakuntza esparruetan izandako aurretiko esperientziek irakasleen sinesmenak eta pertzepzioak indartzen dituztela kontuan hartuta (Evans eta Penney, 2008), HFko Hastapeneko Formakuntza programek, hala nola, JFKZ graduak, bai eta Lehen Hezkuntza graduoko gorputz hezkuntzako ibilbideak, etorkizuneko irakaslegoaren abileziaren birkontzeptualizazioa sustatu behar dutela aldarrikatzen da. Era berean, HFko Hastapeneko Formakuntza espazio egokitzat jotzen da ikasleen gogoeta sustatu eta errotutako sinesmenei aurre egiteko (Barber, 2018; Carreiro da Costa, González eta González, 2018). Proposamen hori ikasleek zalantzan jarri gabeko prozesu soziokulturalak eztabaidatzeko lagungarria izan daiteke (Mordal-Moen, 2011), hala, abilezia kontzeptuaren ikuspegi dinamikoago eta malguago bat barneratu, eta HFan inklusioa sustatzeko etorkizuneko irakasleen formakuntza hobetzeko aukerak areagotuz (Evans, 2004).

Hala ere, urriak dira HFko Hastapeneko Formakuntza programako ikasleen abileziaren ulermenak aztertu dituzten ikerlanak (Barber, 2018; O'Connor, Penney, Alfrey, Phillipson

eta Phillipson, 2016). Hori dela eta, ikerketa honek, literaturan identifikatutako hutsunea asetu nahian, JFKZ graduoko ikasleek HFan abileziaren kontzeptua nola hautematen duten aztertzea du helburu, horretarako ondorengo galderak erantzunez: (1) nola ulertzen dute JFKZ graduoko ikasleek abileziaren kontzeptua HFan eta zein ondorio izan ditzake inklusioa sustatzerako orduan?; (2) JFKZ graduoko ikaslegoa prest sentitzen al da inklusioa sustatzeko, eta; (3) zein eragin izan dezake haien hautemandako prestutasunak HFko ikasleen esperientzietan?

4.2. Metodologia

4.2.1. Parte hartzaileak

Euskal Herriko unibertsitateko (UPV/EHU) JFKZ graduoko 300 ikasle inguru gonbidatu ziren ikerketan parte hartzen, titulazio hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasle izateko graduondoan sartzeko ezinbestekoa baita. Azkenik, 14 ikasleek parte hartu zuten, zehazki, zazpi emakumek eta beste hain beste gizonek. Ikasleok elkarrizketak hasi zirenean (2016-2017 ikasturtea), lehenengo, bigarren eta hirugarren maila egiten ari ziren eta, azken elkarrizketetan (2017-2018 ikasturtea), ikasturte bat gorago zeuden. Hala, fakultatea zein parte hartzaileak intentziozko laginketa ez probabilistiko bidez hautatu ziren (Patton, 2002).

4.2.2. Metodoak

Ikerketa honen helburuari erantzuteko, erdi-egituratutako zazpi elkarrizketa gauzatu ziren talde-fokalaren teknika erabiliz, hau metodo egokia baita parte hartzaileen pertzepzio eta sinesmenak aztertzeko. Horretarako, ikerketa-galderetatik abiatuta, erdi-egituratutako gidoi bat egin zen (Kvale, 1996). Elkarrizketak hiru une desberdinatan egin ziren hiru eta bost parte hartzaile bitarteko taldeekin, elkarrizketa bakoitzak aurrekoarekin lotutako helburu desberdin bat izan zuelarik (II Taula). Elkarrizketa guztiak parte hartzaileen aldez aurreko baimenarekin grabatuak izan ziren.

II. Taula. Ikasleekin egindako elkarritzeten laburpena.

Elkarritzetak (ikasturtea)	Talde-fokal kopurua (Partaide kopurua)	Helburua
1 (2016-2017)	1(5) 1(5) 1(3)	JFKZ graduoko ikasleek abileziaren kontzeptua nola ulertzen duten aztertzea, honelako galderen bitarbez: zer da HFan abila izatea?; HFko ikaslegoa bere abilezia mailaren arabera sailkatu zenezakete?
2 (2016-2017)	1(5) 1(4) 1(3)	Egindako elkarritzetan azaleratu ziren gai gakoen inguruan eztabaidatzea, besteak beste: inklusioa sustatzeko zaitasunak, genero ikuspegia eta HFko ebaluazio sistema.
3 (2017-2018)	1(6)	Eztabaidea eta hausnarketa kritikoa sustatu ikuspegi soziokulturalean kokatzen diren irakurgaietatik abiatuz, abileziaren eraikuntzan gako diren alderdien inguruan (kapitala, biolentzia sinbolikoa eta eredu pedagogikoa, besteak beste).

4.2.3. Procedura

Talde-fokalak 2016-2017 eta 2017-2018 ikasturteetan egin ziren fakultatean bertan, unibertsitateko Etika Batzordearen onarpena lortu eta ikasleen baimen informatuak bildu ostean. Baimen informatuak ikasleen parte hartza boluntarioa zela eta eskuratutako datuen konfidentzialtasuna eta anonimotasuna bermatzeko konpromisoa hartzen zela adierazten zuen.

Elkarritzeten eguna eta ordua parte hartzaileekin adostu zen. Elkarritzeta bakoitzaren hasieran, ikaslei elkarritzetaren helburuaren berri ematen zitzaien. Elkarritzeta gehienak ikertzaile taldeko bi pertsonek gidatu zituzten, lan honen autore izateaz gain, fakultateko irakaslek zirenak; ikerketa proiektuak iraun bitartean, ordea, ez zizkieten eskolak ematen ikasle parte hartzaileei. Elkarritzeta bakoitzaren iraupena 60 eta 90 minuti artekoa izan zen. Elkarritzetak transkribatu ostean, ikertzaile nagusiaren egunerokoarekin triangulatu zen, non jarrera hausnartzale batetik abiatuz, elkarritzeten inguruko ideiak eta pertzepzioak bildu ziren (Bogdan eta Biklen, 2003).

4.2.4. Datuen analisia

Ikasleekin egindako elkarritzetak indukzio analitikoko metodoak erabiliz aztertu ziren (van Manen, 1997), ikerketa-galderekin harremana zuten gaiak identifikatzeko. Lehenik

eta behin, transkripzioak eta egunerokoa irakurri eta berrirakurri ziren, garrantzirik gabeko informazioa murriztuz. Ondoren, etengabeko konparaketa bidez, kategoriak eta azpikategoriak ezarri ziren, aurrez kodifikatutako eta multzokatutako erantzunetatik abiatuz. Analisirako kategoriak identifikatu ostean, datuak berriro aztertu ziren etengabeko hausnarketa prozesu baten bidez. Horrez gain, ikerketa taldearen arteko eztabaidek, analisi prozesuan suertatu ziren desadostasunak edo interpretazio okerrak identifikatzea ahalbidetu zuten (Patton, 2002). Azkenik, ikasleen ahotsen interpretazio prozesua gauzatu zen, horiei esanahia emateko asmoz.

4.3. Emaitzak eta eztabaidea

Talde-fokalen azterketatik, ikerketa-galderetan sakontzeko bide eman duten ondorengo lau gai nagusiak identifikatu ziren: (1) ikasle ‘abilak’ HFan; (2) ikasle ‘ez abilen’ esperientziak HFan; (3) ikasleen esperientziak birkonfiguratzeko estrategiak, eta; (4) ikaslegoaren hautemandako prestutasuna HFan inklusioa sustatzeko. Lehenengo bi gaien, lehenengo ikerketa-galdera esploratzen duten bitartean, azken biek bigarrena aztertzen dute.

Ikasleen anonimotasuna bermatzeko ezizenak erabili dira, ikerketa hasi zenean parte hartzaile bakoitzaren maila adierazten duen zenbakarekin batera.

4.3.1. Ikasle ‘abilak’ HFan

HFko aurretiko esperientzietai oinarrituz, parte hartzaileek zaitasunik gabe identifikatu zituzten ikasle ‘abilak’; alegia, irakasleak proposatutako jardueretan erraz moldatzen zirenak. Jarduera horien artean, futbola, saskibaloia edo esku pilota nagusitu ziren, kirol maskulinizatuak konsideratzen direnak (Sevil, Abós, Julian, Murillo eta García-González, 2015). Ildo horretan, ez da harritzekoa gimnastika artistikoan ona zen mutilak aitorpen bera ez eskuratzen: “*hori ez zegoen ondo ikusia, hori ez zen abila*” (Josu-1). Zehazki, partaideek abilezia honako ezaugarriak zituzten pertsonekin lotu zuten: mutilak, anitzasun funtzionalik gabekoak, azkarrak eta fisikoki indartsuak. Horri dagokionez,

ikasleek adierazi zuten ‘abila’ izatea testuinguru sozialaren menpekoa zela eta, haien kasuan, bereziki, futbolean ona izatearekin lotzen zela. Bestetik, genero maskulinoko hainbat ikaslek nabarmendu zuten, neskek ez bezala, haien jarrera ona izaten zutela HFan: “*dena ematen genuen, izerditan amaitu arte*” (Pablo-1), alderdi hori positiboki baloratzen zutelarik.

Emaitza horiek aurretiko azterlanekin bat datozen (Hay eta Macdonald, 2010b; Hunter, 2004). Ikerlanotan adierazten da HFan ikasle ‘abilak’ direla disposizio fisiko eta jarrera ‘egokiak’ dituzten pertsonak, bereziki, ezaugarri maskulinizatuak lehenesten dituzten errendimendu eta kirol diskurtso hegemonikoen ondorioz. Disposizio fisikoek, batik bat, trebetasun motorrei eta gorputz atletikoari egiten diete erreferentzia. Jarrerazko ezaugarriak, berriz, honako ezaugarriekin lotzen dira: jokabide lehiakorrik eta oldakorrik erakusteko gaitasunarekin (Hunter, 2004), ikasgaiaren jarrera positiboa izatearekin (Redelius, Fagrell eta Larsson, 2009), kirolaren gogo bizia erakustearekin (Hay eta Macdonald, 2010a), esfortzuarekin eta lidergo ezaugarriak adieraztearekin (Redelius eta Hay, 2009).

Parte hartzaileek azaldutakoaren arabera, ikasleen abilezien arteko hierarkia HFan indarrean dauden zenbait aldagairen bidez elikatzen eta errepruduzitzen da, hala nola: *ethos* lehiakorra, ikasleak taldekatzearen erabiltzen diren estrategiak, kirol-jardueren anitzasun urria eta, azkenik, ebaluazio sistema. Azken horri dagokionez, ikasleek test fisikoak ikasgaiaren kalifikazioan zuten garrantzia kritikatu zuten. Errealitate hori problematikoa izan liteke kontuan hartuta ebaluazio sistema kapitala bermatzen duten disposizioen berri ematen duen tresna pedagogiko bat dela (Domangue eta Solmon, 2012). Ondorioz, ebaluazio sistemak eragin nabarmena du HFan abileziaren eraikuntzan, baita ikasle ‘ez hain abilen’ esperientzieta ere (Redelius et al., 2009).

Lehiaketaren erabilerari dagokionez, aurretiko azterlanekin bat eginez (Harvey eta O’Donovan, 2013), elkarritzetutako pertsonek ez zuten begi onez jo ikasgaiaren idiosinkrasia lehiakorra baztertzeko aukera. Ildo berean, HFren helburuetako bat lehiatzen ikastea zela adierazi zuten, beste arrazoi batzuren artean, bizitzarako alderdi garrantzitsua zela ulertzen zuten eta. Ikasleek diskurtso lehiakorra babesten bazuten ere,

zenbait kasutan bazterzailea izan daitekeela adierazi zuten, bereziki, lehiaketaren banakako orientazioa eta emaitzarekiko interes obsesiboa dela eta: "*lehiaketa ona da. HFan jarduera lehiakorrak egiten jarraituko nuke, baina ez orain arte egin den bezala, hain, hain...*" (Ane-1). Ildo beretik, lehia jardueretan lankidetzak ere lekua zuela gaineratu zuten, horrek harreman horizontalagoak sustatzea eta ikasle guztiek parte hartza erraztuko lukeela argudiatuz: "*horrela onek txarrari lagunduko diote irabazi nahi dutelako*" (Unai-1). Dena den, parte hartzale horrek berak, lehia jarduera batean sor litekeen gatazka bat mahai gaineratu zuen: "*konplikatua izan daiteke futbol partida batean norbaiti baloia pasatzea laguntzeagatik bakarrik, zure helburua irabaztea baita, eta txarrak ez dizu helburu hori betetzen lagunduko*"; hala, lehiaketa kooperatibo bat proposatzea falazia bat izan daitekeela iradokiz. Bestalde, ikasle batek nabarmendu zuen hori irakasleen diskurtsoaren araberakoa zela: "*irakasleak ezarri behar du helburua ez dela irabaztea, gainerakoei laguntzea baizik, jarrerazko alderdiak gaitasun motorren gainetik baloratz; adibidez, talde lana edo sakrifizio txiki bat egitea behar duten pertsonei laguntzeko*" (Irati-1).

Agerikoa da literaturan HFko curriculumean lehiaketaren egokitasunaren inguruko eztabaidea. Harvey eta O'Donovanekin (2013) bat etorri, badirudi HFan lehiaketa ikasgaiaren berezko eta funtsezko alderditzat hartzen dela, nahiz eta ikasleek beharrezkotzat jo zuten lehia bestelako modu batean planteatzea haren ondorio bazterzailea indargabetzeko. Hala ere, Aggerholm, Standal eta Hordviken (2018) arabera, partaideek lehiaketaren izaerari buruz duten ikuspegia mugatzailea dela konsideratzen da, besteak beste, ikasleen anitzasunari aurre egiteko arazo izan litekeena, nagusiki, bi arrazoirengatik; alde batetik, lehiaketari buruz duten pertzepzioa irabazi edo galtzen mugatzen delako eta, bestetik; lehia jardueretan 'abilak' ez diren pertsonen parte hartza sustatzeko, irakasleak egokitzapen metodologikoak egitea eta 'abilak' diren ikasleek aldeko jarrera izatea nahikoa dela uste dutelako.

Ikasleen esperientziatik ondorioztatzen da HFan kirol-lehiaketan errotutako diskurtsoak indarrean jarraitzen duela, ikasleen abilezien arteko sailkapen hierarkikoa sostengatuz (Aggerholm et al., 2018). Standalen (2015) arabera, eredu hori oztopo izan daiteke ikasleek HFra dakartzaten desberdintasunak ospatzeko eta, beraz, giro inklusibo

bat sustatzeko. Gainera, parte hartzaleek lehiaketaren inguruan azaleratu zituzten nozio tradizionalak kontuan hartuta, funtsezkotzat jotzen da HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntza programetan sinesmenok birformulatu eta eraldatzeko espazioak eskaintzea. Horrek, HFren izaerari buruzko bestelako kontzepzioen garapena sustatu lezake (Carreiro da Costa et al., 2018; Harvey eta O'Donovan, 2013), abileziaren nozioa birkontzeptualizatzeko lehen urratsa delarik.

4.3.2. Ikasle ‘ez abilen’ esperientziak HFan

Elkarrizketatuko pertsonek ez zuten zaitasunik izan ikasle ‘abilen’ eta ‘ez abilen’ taldeak osatzeko. Hori agerikoa zela adierazi zuten, besteak beste, oro har, nota ikasle ‘onenen’ arabera ezartzen zen eta. Gainera, baiezta zuten gaitasun motorrek estatus eta aitorpen handiagoa eskaintzen zutela ikaskideen partetik eta horren eragina agerikoa zela ikasleen posizioan eta esperientzian. Ildo horretan, adierazi zuten ikasle ‘abilen’ eta ‘ez abilen’ esperientziak, zalantzak gabe, desberdinak zirela: "*HFan egiten ziren jardueretan abilak ez ziren pertsonek gaizki pasatzen zuten. Oro har, esperientzia negatiboa zuten HFan*" (Paula-3). Beste parte hartzale batek gaineratu zuen "*pertsona horiek irakasgaia gorrotatzen bukatzen zuten txarrak zirelako*" (Unai-1), eta horrek parte hartzean eta konfiantzan eragiten zuela, etorkizunean ohiturak desegokiak barneratzeko aukerak areagotuz. Horrez gain, aipatu zuten, normalean, pertsona ‘ez abilen’ kolektiboak nota txarra ateratzen zuela HFan, beren motibazioa zapuztu eta HFko saioak saihesteko nahia handiagotuz. Ikasleek egoera hori arazotzat jo zuten, beren aburuz norbanakoaren gaitasun motorrak hobetzeko aukerak eta etorkizunean JFKan parte hartzeko aukerak mugatzen baitzituen.

Partaideen ahotsetatik ikasle ‘ez abilek’ jasaten zuten biolentzia sinbolikoaren inguruko kontzientzia antzeman zen. Gainera, biolentzia sinbolikoaren zenbait ondorio mahai gaineratu zituzten, aurretiko ikerketekin bat etorri (Fitzgerald, 2005; Hay eta lisahunter, 2006; Hay eta Macdonald, 2010a; Sánchez-Hernández, Martos-García, Soler eta Flintoff, 2018). Partaideen adierazpenen arabera, abileziak funtsezko rola betetzen darrai HFko ikasleen esperientzian eta posizionamenduan, beste behin ere, ebaluazio sistemaren eragina nabarmendu zutelarik. Horrenbestez, HFan ekitate eta inklusio printzipioak

bermatzeko eraginkortasuna zalantzan jartzen da (Redelius eta Hay, 2009). Era berean, Hillsekin (2007) bat etorri, HFan abilezia fisikoak gehien estimatzen diren disposizioak direla hautematen da, hainbat kapital mota eskuratzea errazten dutelarik, hala nola, gainerako eragileen aitorpena eta errespetua edo kalifikazio altuen lorpena.

Parte hartzaileen iraganeko esperientzien arabera, pertsona ‘ez abilen’ taldea, gehienbat, ondorengo kolektiboek osatzen zuten: neskak, gainpisua zuten edo oso argalak zirenak, fisikoki oso indartsuak ez zirenak, txikiak zirenak, eskolatik kanpo kirolik egiten ez zutenak eta harremanak izateko zaitasunak zituztenak. Eragin nabarmena izan zuen aldagaietako bat generoa izan zen; izan ere, neska batzuk oso ‘abilak’ izan arren, oro har, kolektibo hori ‘ez abilen’ taldean kokatu zuten, batez ere ikasgaiarekiko motibazioa faltagatik: “*nahiago zuten eserita geratu edo jokoan lehenbailehen kanporatuak izan; guk, berriz, dena ematen genuen. Parte hartzaileagoak ginen, izerditan amaitzen genuen, gehiago ahalegintzen ginen edozein motatako jardueretan, futbolean edo esku pilotan, esaterako*” (Unai-1). Azken finean, genero maskulinoko parte hartzaile batzuk, HFan nesken jarrera desegokia zela sumatzen zuten. Horren ildora, Unaiek, lehenengo mailako ikasleak, honakoa gaineratu zuen:

- *Egun batean galdetu nien [taldeko neskei]: baina zergatik ez duzue jolastu nahi? Lotsa zela eta gurekin ez zutela jolastu nahi erantzun zuten* (Unai-1).
- *Eta zuk nola ikusten duzu?* (Elkarritzetaizailea).
- *Ez dakit, guk [mutilok] primeran pasatzen genuen. Irakasleak esaten zuen: gaur hau egingo dugu. Eta guk dena ematen genuen, jarduera edozein izanda ere: futbola, esku pilota, eskubaloia...* (Unai-1).
- *Zure ustez proposatzen ziren jarduerek nesken parte hartzean eragina zuten?* (Elkarritzetaizailea).
- *Puf, nik uste dut jarduera baino gehiago zela gu astoak bezala jolasten ikusten gintutzela eta pentsatzen zuten: ni ez naiz hor sartzen* (Unai-1).

Bestalde, nabarmentzekoa da ikasleek HFko esparruan identifikatutako parekotasun eza eta biolentzia sinbolikoko eszenatokiak funtzio anitzasuna zuten ikasleek jasandako

diskriminazio egoeren inguruan kokatu zirela: "*harmailetan eserita geratzen ziren. Inoiz ez dut irakaslerik ikusi jarduera egokitzen [funtzio aniztasuna duten pertsonak] HFan sartzeko*" (Josu-1). Horri dagokionez, nabamentzekoa da parte hartaileen gehiengoak bazterketa esperientzia horien inguruko desadostasuna adierazi bazuen ere, egoerok naturalizatzeko joera antzeman zela: "*azken finean, berak [funtzio aniztasuna duen ikasleak] betidanik izan du hazkunde arazo hori; soinketako klase ia guztietan geratzen zen baztertua [...] Jada ohitura zen; iritsi eta eserita aparte*" (Josu-1). Horren ildora, partaide batek gaineratu zuen HFko saioetan baztertuta geratzen zen ikaskide horrek jolasaldietan futbol partidetan parte hartzen zuela atezain bezala bazen ere. Gainerako gelakideen jarrera onari esker, funtzio aniztasuna zuen ikasle horrek esperientzia positibo batez gozatzeko aukera zuen: "*disimuluan uzten ginen eta berari baloia pasatzen sariatzen ginen berak gola sar zezan. Primeran pasatzen zuen*" (Unai-1).

Deigarria da elkarritzetutako ikasleek funtzio aniztasuna zuten ikasleei eta nesken kolektiboari HFan beren egoeraren inguruko erantzukizun desberdina esleitzen zietela; neskak HFan bizi zuten esperientzia negatiboaren errudun kontsideratzen zitzuzten motibazio eza eta ikasgaiarekiko jarrera txarra zela eta. Aldiz, funtzio aniztasuna zuten pertsonen parte hartze eskasa irakasleek jarduera egokitzeko edo diskurtso nagusiak desafiatzko gaitasun eskasarekin lotzen zuten. Hala ere, literaturak egiaztago du genero desberdineko ikasleen artean HFan balioetsitako atributuak eskuratzeko parekotasun eza, batez ere, HFko saioetan bizirik dirauen ekitate eskasaren ondorioz, hori egunerokoan errepruduzitzen delarik irakasleen erabaki pedagogikoen, usteen eta elkarrekintzen bidez (Hay eta Macdonald, 2010b; Sánchez-Hernández, Martos-García eta Soler, 2018; Valencia-Peris eta Lizandra, 2018).

Ildo horretan, deigarria da partaideek HFko irakaslea genero-ordena errepruduzitzen duen eragile bezala ez identifikatu izana; sinesmen horrek zerikusia izan dezake parte hartaileek genero gaiei buruzko kontzientziazio faltarekin, nesken jarrera eta jokabideak modu okerrean naturalizatzuz. Hala, zalantzan jarri gabeko botere egitura eta harreman hegemonikoak indarrean darraite (Camacho-Miñano eta Girela-Rejón, 2016; Serra, 2016). Errealitate hori bat dator JFKZ ikasketa planean genero arloko formakuntza eskasiarekin, hala, etorkizuneko irakasleen kontzientzia kritikoa garatzeko aukerak

mugatuz. Gainera, Sánchez-Hernández eta kideekin (2018) bat eginez, ikasleek JFKZ graduan izena ematearen arrazoi nagusien artean HFan esperientzia positiboa bizi izana eta kirol praktikarako grina identifikatu ziren. Era horretan, etorkizuneko irakasleek kirola eta lehiarako *habitus*-a dutela egiaztatzen da. Camacho-Miñano eta Girela-Rejón (2016) arabera, kolektibo horrek HFan izandako posizio pribilegiatuak mugatu egin dezake genero kontuengatik biolentzia sinbolikoko esperientziak identifikatzeko gaitasuna.

4.3.3. Ikaslegoaren esperientziak (bir)konfiguratzeko estrategiak

Elkarrizketatutako talde guztiak aitortu zuten ikasle ‘abilen’ eta ‘ez abilen’ arteko hierarkizazio bertikalik gabeko HFa imajinatzeko ezintasuna; izan ere, jarduera lehiakorrak diren heinean, talde horiek beti existituko direla argudiatuz. Gainera, adierazi zuten lehia giroa HFko ia edozein jardueretan sortzen zela: "*talde horiek beti existitu dira HFan. Ez dut kategorizazio hori gabeko klaserik imajinatzen. Ezinezkoa ikusten dut, utopikoa*" (Aitor-3). Ikasle horrek adierazi zuen, gizartea funtsezko rola jokatzen zuela HFan baloratzen ziren abilezien transmisiōan eta, beraz, ikasleen kategorizazioan. Literatura zientifikoak ikasleen pertzepzioekin bat dator, testuinguru soziokulturaleko diskurtsoek –esaterako, errendimenduaren kultura edo hegemonia maskulinoainplizituki HFan ezartzen direla baieztatuz (Fitzgerald, 2005). Bestalde, elkarrizketatutako ikasleek ez zuten adierazpenik egin irakasleak praktika pedagogikoaren bidez diskurtso horien transmisiōan duen rolaren inguruan; hala, berriz ere ikusezin bihurtuz irakasleak HFan abilezia legitimoak hautatzean duen eragina (Evans, 2004; Hay eta lisahunter, 2006; Hay eta Macdonald, 2010b).

Ostera, elkarrizketatutako ikasleen adierazpenetik, HFan ikaslearen posizionamenduan eragina zuten bestelako alderdi batzuk identifikatu ziren, esate baterako: kalifikazio ona lortzea, partida batean puntuatzea edo taldea garaipenera eramango duen ekintza burutzea, taldeak osatzeko orduan azken aukeratua ez izatea, taldekideek oposizio-kolaboraziozko jardueretan baloia pasatzea eta jardueren helburua lortzeko gai izatea. Beraz, ikasleen testigantzetatik ondoriozta daiteke, HFan jarduerak proposatzerako garaian, mahai gaineratutako alderdi horiek kontuan hartzeakoak direla, ikasleen

abileziaren araberako hierarkizazioa ekiditeko.

Aipatutakoaren harira, bi parte hartzailek adierazi zuten proposatzen ziren jardueren izaerak ikasleen esperientzietan eragin handia zuela, nahiz eta “*batzuk jarduera guztietañ ondo moldatzen diren, beste batzuk denetan baldarrak diren bitartean*” (Unai-1). Ildo horretan, partaideek aipatu zuten ikasle ‘ez abilek’ –nesken kolektiboa esaterako– aitorpena eskuratu ahal izateko, komenigarria litzatekeela dantza, soka saltoa, patin-gaineko irristaketa edo igeriketa bezalako jarduerak sustatzea, horietan hobeto moldatuko zirela argudiaturuz. Hala ere, zenbait parte hartzailek arazotzat jo zuten estrategia hori; beste jarduera batzuk eginez gero, gaur egun ‘abilak’ diren ikasleen posizionamenduan negatiboki eragingo lukeelako. Bestalde, bigarren mailako Maiderrek bere desadostasuna adierazi zuen, aipatutako jarduerak neska guztien interesekoa izango ez zirela argudiaturuz. Berak, esaterako, futbola edo esku pilota aukeratuko lituzke eta, beraz, egokiena ikasleei galdeztea zela adierazi zuen. Horren harira, deigarria izan zen nesken parte hartze handiagoa sustatzeko estrategiei dagokionez, emakumezko parte hartzaile gehienek zenbait mutilek mahai gaineratutako ideia estereotipatuen kontrako iritzirik adierazi ez izana. Baliteke elkarritzetutako emakumeek gizonezko partaideen iritzi bera izatea, Sánchez-Hernández eta kideek (2018) egindako ikerketa batekin bat eginez, edo beste ideia bat adierazteko erosoa sentitu ez izana. Hala, interesarria litzateke genero femeninoko parte hartzaileekin aparteko elkarritzetak burutzea, beren esperientziak eta ikuspegiak adierazi ahal izateko konfiantza espazio bat ziurtatuz.

Ikasleen hierarkizazioa ekiditeko aipatutako beste estrategia bat joko-arauak aldatzean zetzan, hala, ikasleen trebetasunak parekatu eta aukera berdintasuna bermatuko zelakoan: “*futbolean jolasten ari bagara, abilak diren ikasleei bakarrik haien hanka txarrarekin jokatzeko esango nieke*” (Jaime-2). Hala ere, iradokizun hori problematikoa zen beste ikasle batentzat, izan ere, “*ikasle abilei kondizio hori jartzen badiezu, haiek hobeak direla ulertazarazten ari zara*” (Maider-2) eta, beraz, ikasleen abilezien araberako hierarkizazioak bere horretan jarraituko luke.

Ikerketako partaideek ikasle ‘abilen’ eta ‘ez abilen’ birkonfiguraziorako proposatutako esku-hartzeen azterketa sakonetik bi alderdi nabarmendu daitezke. Lehenengoa,

estrategia gehienak arauak eta jarduerak aldatzean zentratzen zirela. Arauen egokitzapenari dagokionez, adierazitako egokitzapenen bitartez lehiak ikasle guztien aukera berdintasuna eta parte hartza sustatuko duelaren ikuspegian oinarritzen da (Aggerholm et al., 2018). Aitzitik, arau aldaketa horiek ‘betiko’ jardueretan aplikatzen badira, testuinguruak nekez bermatuko du abilezia mota desberdinak dituzten ikasleen arteko berdintasuna. Bestetik, jarduerak aldatzeari dagokionez, HFan genero estereotipoak eraldatu beharrean, horiek erreprroduzitzen lagundu dezaketen proposamenak identifikatu ziren. Ondorioz, Hastapeneko Formakuntza programetan gai horien inguruan eztabaidatzea premiazkoa konsideratzen da, HFan proposatzen diren jarduerek nor saritzen duten agerian utzi eta jardueron egokitasuna zalantzen jartzeko (Evans, 2004). Hori ezinbesteko zeregina da abilezia desberdinak dituzten ikasleen parte hartza eta ikaskuntza sustatuko duten estrategia pedagogiko eraginkorrik mahai gaineratzeko bidean. Ikasleen proposamenetik azpimarratzeko den bigarrena alderdia, eragin nabarmena duten aldagaietako eskainitako arreta eskasiari dagokio; ebaluazioa eta edukiak, besteak beste.

Aipatutakoa kontuan hartuz, ondorioztatzen da ikasleek proposatutako irtenbide batzuk problematikoak izan daitezkeen sinesmenetan errotzen zirela, HFan ikasleen abilezien araberako sailkapenerako joera indartu lezaketeenak. Gainera, nabarmentzekoa da elkarrizketatutako ikasleen ikuspegiak lotura estua zuela abileziaren ikuspegi biologikoarekin, nahiz eta hiru parte hartzalek testuinguru soziokulturalak irakasgaiaren *ethos*-ean zuen eraginarekiko sentsibilitatea adierazi zuten. Hala ere, ikasleen diskursoetatik, genero estereotipoak indartzen zituzten usteak identifikatu ziren, Domangue eta Solmonek (2012) HFko ikasleekin egindako azterlanarekin bat eginez.

4.3.4. Ikaslegoaren pertzepzioa HFan inklusioa sustatzeko prestutasunean

JFKZ graduoko ikasleek adierazi zuten ez zirela prest sentitzen abilezia desberdineko ikasleen beharrei erantzuteko HFa eskaintzeko: "*ez dut neure burua klase bat emateko gai ikusten, zalantzak izango nituzke alde guztiak*" (Paula-3). Gainera, beren prestutasunaren gaineko pertzepzioa hare txikiagoa zen taldean funtzi aniztasuna zuen ikasleren bat egongo balitz. Ildo horretan, ikasle batek aitortu zuenez "*inoiz ez dugu arazo*

hori bizi izan, beraz, ez genuke jakingo zer egin kasu horietan" (Jaime-2). Ildo beretik, funtzió aniztasuna duten pertsonekin aurretiko esperientzia izandako ikasle batek hala adierazi zuen: "*oso zaila da, askotan ez dakigulako nola jokatu edo nola erantzun*" (Ane-3). Ondorioz, ikasleek gai horri buruz gehiago ikasteko nahia adierazi zuten, gehienek "*desgaitasuna duen edo inkluitua egoteko beharra duen norbaitekin egoteko*" (Alberto-2) aukerarik izan ez zutela adierazi baitzuten.

Horren ildora, ikasleen aburuz kezkagarria zen graduan inklusioa edo funtzió aniztasunarekin lotutako gaiei buruzko prestakuntza teoriko eta praktiko nahikorik jaso ez izana. Ikasleen testigantzak bat datozen Hardinen (2005) adierazpenekin; alegia, HFko irakaslegoa inklusiorako prestatzeko modu tradizionala ikasgai isolatuak eskaintzera mugatu ohi dela. Ikuspegi hori kezkagarria da ikasleen arteko desberdintasunak indartzeaz gain, ez dituelako formakuntza, esperientzia eta ezagutza egokiak eskaintzen, ezinbestekoak direnak ikasleen aniztasunari eraginkortasunez erantzuteko. Gainera, ikasleek Hastapeneko Formakuntzaren alorrean izandako esperientzia praktiko eskasa bat dator aurretiko ikerlanen emaitzakin (Coates, 2012; Hardin, 2005; Martos-Garcia eta Valencia-Peris, 2016). Ikerlanok baieztagatzen dute, HFko Hastapeneko Formakuntzan testuinguru inklusiboetan esperientzia praktikoak eskaintzeak, eragin positiboa izan dezakeela etorkizuneko irakasleen hautemandako prestakuntzan, konfiantza mailan eta funtzió aniztasuna duten ikasleekiko pertzepzioetan.

Halaber, parte hartzaileek hautemandako prestakuntza eskasa bat dator HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako ikasketa planetan inklusioaren gaiari dagokion posizio marginalarekin, bai Spainiar Estatuan (Ríos, 2009), baita nazioarte mailan ere (Standal, 2015). Serraren (2016) arabera, hori JFKZ gradutik transmititzen den ezagutza tekniko-arrazionalaren ondorio izan daiteke, kirol diskurtso hegemoniko eta normatiboetan oinarritzen direnak, hala, inklusioa eta justizia sozialarekin harremana duten edukiak baztertuz. Errealitate horrek, etorkizuneko irakaslea problematikoak izan daitezkeen hiru egoeretara eraman lezake: (1) irakaslea ez ohartzea HFko egitura nagusiak eraiki eta erreproduzitzerakoan duen eraginaz; (2) ikasleen artean egoera diskriminatzaleen aurrean bitartekari lanetan eraginkortasunez jarduteko estrategiak ez ezagutzea eta, ondorioz; (3) ikasleen aniztasuna modu eraginkor batean kudeatzeko hautemandako

prestutasuna urria izatea. Hortaz, Hastapeneko Formakuntzako ikasketa planak birplanteatzeko beharra premiazkoa da, etorkizuneko HFko irakasleak paradigma inklusiboaren hezkuntza-erronkei aurre egiteko prestatuagoak sentitu daitezten (Petrie, Devcich eta Fitzgerald, 2018).

Hala ere, azpimarratzeko da elkarrizketatutako ikaslegoak inklusioarekiko jarrera baikorra erakutsi zuela. Aldiz, hainbatetan erabilitako terminologian oinarrituz, inklusioa eta integrazioa kontzeptuak elkartrukean erabiltzen zituztela identifikatu zen. Kontzeptualizazio arazo hori, hain zuen ere, inklusiorako mugetako bat konsideratzen da (Svendby eta Dowling, 2012). Ildo beretik, nabarmentzekoa da, talde-fokaletan inklusioaren gaia aurkeztu zenean, ikasle gehienek berehala funtziogatik aniztasuna zuten pertsonak aipatu zituztela, inklusioa "*arazoren bat duten pertsonekin*" (Ane-3) lotuz, eta hala, gizartean nagusi den ikuskera epistemologiko agerian utziz, zeinaren bidez inklusioa hezkuntza premia ‘bereziak’ dituzten ikasleak integratzerakoan mugatzen den (Ríos, 2009). Ildo beretik, funtziogatik aniztasuna zuten pertsonen inguruan hitz egiteko erabilitako terminologia desgaitasunaren eredu medikuaren oinarritu zen. Inklusioaren filosofiatik aldentzen den ikuspegi horrek, funtziogatik aniztasuna duen pertsona etiketatzeko ‘desgaitasuna’ ala ‘*arazoaren*’ arabera, normalizatutako testuingurura egokitzea erantzukizuna esleitzeko (Flintoff et al., 2008).

Azken batean, azterlan honen emaitzek erakusten dute JFKZ graduan abileziaren kontzeptuari buruzko eztabaidak ikusezinak direla, ikaslegoak barneratuta dakartzan nozioak desafiatzeko aukerak murrituz (Mordal-Moen, 2011). HFko irakaslea, modu inkontzientean bada ere, ikasleen arteko desberdintasunak erreproduzitzen dituen eragilea dela kontuan hartuta (Camacho-Miñano eta Girela-Rejón, 2016; Hay eta Macdonald, 2010b), Hastapeneko Formakuntzan gai kritiko horiei buruzko eztabaidak txertatzeko beharra aldarrikatzen da, besteak beste, HFa beste modu batean birkontzeptualizatzeko asmoz (Evans, 2004; Penney et al., 2018; Petrie et al., 2018). Hala, hausnarketa kritikorako espazioak ezinbestekoak dira esparruan nagusitzen diren diskursoak isilarazi beharrean, eraldatzeko lehen urratsak emate aldera (Barber, 2018; Harvey eta O'Donovan, 2013). Horrek etorkizuneko irakasleek HFan testuinguru ekitatibo eta inklusiboak eraikitzea hautemandako prestutasuna areagotzea ekarri lezake (Petrie

et al., 2018; Standal, 2015).

Valencia-Peris eta Lizandrarekin (2018) bat eginez, indarrean dagoen legedia bete dadin, berebiziko garrantzia du etorkizuneko HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako ikasketa planak birkonfiguratzea. Transformazio prozesu horren ikuspegi inklusiboa eta eraginkortasuna bermatzeko, ondorengo alderdiak kontuan hartza gomendatzen da: (1) inklusioa eta funtzió aniztasunaren inguruko irakasgai isolatuak eskaintzera ez mugatzea; (2) ikasketa planean eskaintzen diren irakasgaiak ikasleen arteko desberdintasunetan eta egin beharreko egokitzapenetan zentratzen diren erreza pragmatiko eta pedagogikoez hornitzeaz haratago joatea (Evans, 2004; Petrie et al., 2018), eta; (3) programako irakasgai desberdinatan zehar inklusioaren paradigmaren inguruko ezagutza txertatzea (Dowling, 2006; Hardin, 2005).

Azterlan honen muga gisa, aipatzekoa da interesgarria litzakeela, alde batetik, genero identitatearen araberako pertzepzioetan sakontzea eta, bestetik, datuen triangulaziorako interesekoak izan daitezkeen bestelako parte hartzaleen ahotsak biltzea; esate baterako, HFko Hastapeneko Formakuntzara bideratutako beste gradu eta graduondoko ikasle eta irakasleenak.

4.4. Ondorioak

Ikerketa honen helburua JFKZ graduko ikasleek abilezia nola ulertzen duten aztertzea, HFen inklusiorako hautemandako prestutasunean sakontzea eta horien hezkuntza-ondorioak esploratzea izan da. Ikuspegi soziokulturaletik interpretatutako emaitzen arabera, ondoriozta daiteke, oro har, JFKZ graduko ikasleek HFen abilezia ulertzeko modua estatikoa eta simplista dela. Izan ere, beren nozioak ikuspegi biologikoan eta soziopsikologikoan oinarritzen dira, irakaskuntza testuinguru inklusiboak eraikitzeko oztopo izan daitezkeenak. Hala eta guztiz ere, partaide batzuk testuinguru sozialak abileziaren eraikuntzan duen eraginaz kontziente direla antzeman da, ikuspegi soziokulturalarekin bat eginez.

Bestalde, parte hartzaileak ez ziren prest sentitzen HFan abilezia anitzeko ikasleak hezteak dakarren erronkari aurre egiteko. Inklusioarekiko eta funtzio aniztasuna duten pertsonekiko jarrera baikorra adierazi bazuten ere, inklusioa, funtzio aniztasuna, genero ikuspegia eta HFren izaeraren inguruko ikuspegi mugatuak identifikatu ziren. Ildo horretan, kezkagarria da ikasleek talde-fokaletan aurkeztutako gai batzuei buruzko jakintasun maila urria erakutsi izana, goi mailako formakuntzan gai horiek nekez edo eraginkortasunik gabe lantzearen ondorio izan daitekeena. Hori dela eta, JFKZ graduoko ikasketa planaren eraginkortasuna zalantzan jartzen da, zehazki, etorkizuneko irakasleak inklusiorako prestatzeari dagokionean. Evans (2004) jarraiki, defendatzen dugu, HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzan abilezia kontzeptuaren inguruko eztabaidarik egon ezean, inklusio printzipioak bermatzea zaila izan daitekeela.

Etorkizunean lan hau HFko irakasleen beste Hastapeneko Formakuntza batzuetan abiaraztea proposatzen dugu, etorkizuneko irakasleek abileziaren inguruan duten pertzepzioaren irudi zehatzagoa lortzeko asmoz; esate baterako, Lehen Hezkuntzako Irakasleen graduoko gorputz hezkuntzako ibilbidean eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza unibertsitate masterrean. Gainera, fakultateotara iristen diren ikasleen usteak ezagutzea, curriculuma egokitzea eta estrategia pedagogiko eraginkorragoak diseinatzeko abagunea eskainiko luke, horrela, ikasleen ikuspegiak desafiatzeko aukerak areagotuz. Izan ere, ezer egin ezean, nekeza izango da errotutako sinesmenak zalantzan jartzea. Bestetik, JFKZ graduoko irakaslegoak ezagutzaren transmisioan eragin esanguratsua izan dezakeela kontuan hartuz, interesgarria litzateke beren sinesmenak aztertzea. Ikerketa honetan jaso diren implikazio praktikoek eta proposatutako etorkizuneko ikerketa lerroek, azkenik, HFko ikasleen esperientziak hobetzen lagundi dezaketela defendatzen dugu.

4.5. Erreferentziak

Aggerholm, K., Standal, Ø., eta Hordvik, M. (2018). Competition in Physical Education: Avoid, Ask, Adapt or Accept? *Quest*, 70(3), 385–400.

Barber, W. (2018). Inclusive and accessible physical education: rethinking ability and

- disability in pre-service teacher education. *Sport, Education and Society*, 23(6), 520–532.
- Bogdan, R. C., eta Biklen, S. K. (2003). *Qualitative Research for Education: An Introduction to Theories and Methods* (4th ed.). New York: Pearson Education Group.
- Bourdieu, P. (2000). *La dominación masculina*. Barcelona: Anagrama.
- Camacho-Miñano, M. J., eta Girela-Rejón, M. J. (2017). Evaluación de una propuesta formativa sobre género en Educación Física para estudiantes de Ciencias de la Actividad Física y el Deporte. *Cultura, Ciencia y Deporte*, 12, 195–203.
- Canales, P., Aravena, O., Cárcamo-Oyarzun, J., Lorca, J., eta Martínez-Salazar, C. (2018). Prácticas pedagógicas que favorecen u obstaculizan la inclusión educativa en el aula de educación física desde la perspectiva del alumnado y profesorado. *Retos*, 34, 212–217.
- Carreiro da Costa, F., González, M. A., eta González, M. F. (2016). Innovación en la formación del profesorado de educación física. *Retos*, 29, 251–257.
- Coates, J. K. (2012). Teaching inclusively: Are secondary physical education student teachers sufficiently prepared to teach in inclusive environments? *Physical Education and Sport Pedagogy*, 17(4), 349–365.
- Domangue, E. A., eta Solmon, M. A. (2012). Fitness testing: How do students make sense of the gender disparities? *Sport, Education and Society*, 17(2), 207–224.
- Dowling, F. (2006). Physical Education teacher educators' professional identities, continuing professional development and the issue of gender equality. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 11(3), 247–263.
- Evans, J. (2004). Making a difference? Education and «ability» in physical education. *European Physical Education Review*, 10(1), 95–108.
- Evans, J., eta Penney, D. (2008). Levels on the playing field: the social construction of physical «ability» in the physical education curriculum. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 13(1), 31–47.
- Fitzgerald, H. (2005). Still feeling like a spare piece of luggage? Embodied experiences of (dis)ability in physical education and school sport. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 10(1), 41–59.
- Flem, A., eta Keller, C. (2010). Inclusion in Norway: a study of ideology in practice. *European Journal of Special Needs Education*, 15(2), 188–205.

- Flintoff, A., Fitzgerald, H., eta Scraton, S. (2008). The challenges of intersectionality: researching difference in PE. *International Studies in Sociology of Education*, 18(2), 73–85.
- Hardin, B. (2005). Physical Education Teachers' reflections on preparation for inclusion. *The Physical Educator*, 62(1), 44–56.
- Harvey, S., eta O'Donovan, T. M. (2013). Pre-service physical education teachers' beliefs about competition in physical education. *Sport, Education and Society*, 18(6), 767–787.
- Hay, P. J., eta lisahunter (2006). «Please, Mr Hay, what are my poss(abilities)?»: legitimation of ability through physical education practices. *Sport, Education and Society*, 11(3), 293–310.
- Hay, P. J., eta Macdonald, D. (2010a). Evidence of the social construction of ability in physical education. *Sport, Education and Society*, 15(1), 1–18.
- Hay, P. J., eta Macdonald, D. (2010b). The gendering of abilities in Senior PE. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 15(3), 271–285.
- Hills, L. (2007). Friendship, physicality, and physical education: an exploration of the social and embodied dynamics of girls' physical education experiences. *Sport, Education and Society*, 12(3), 317–336.
- Hunter, L. (2004). Bourdieu and the social space of the PE class: reproduction of Doxa through practice. *Sport, Education and Society*, 9(2), 175–192.
- Kvale, S. (1996). *Interviews: An Introduction to Qualitative Research Interviewing*. Thousand Oaks, California: Sage.
- Martos-Garcia, D. (2018). Las diversidades funcionales en educación física: propuestas críticas para la provocación y la inclusión. In E. Lorente-Catalán, eta D. Martos-Garcia (Eds.), *Educación Física y pedagogía crítica* (pp. 141–165). Lleida/València: Universitat de Lleida/Universitat de València.
- Martos-Garcia, D., eta Valencia-Peris, A. (2016). Osteogénesis imperfecta y educación física. Un caso inédito de inclusión educativa. *Estudios Pedagógicos*, 42(1), 159–175.
- Mordal-Moen, K. (2011). «*Shaking or stirring?*»? A case-study of physical education teacher education in Norway. Doktorego Tesia. Norwegian School of Sport Science.

- O'Connor, J. P., Penney, D., Alfrey, L., Phillipson, S., eta Phillipson, S. N. (2016). The Development of the Stereotypical Attitudes in HPE Scale. *Australian Journal of Teacher Education*, 41(7), 70–87.
- Patton, M. (2002). *Qualitative Research and Evaluation methods* (3rd ed.). Beverly Hills, California: Sage.
- Penney, D., Jeanes, R., O'Connor, J., eta Alfrey, L. (2018). Rethorising inclusion and reframing inclusive practice in physical education. *International Journal of Inclusive Education*, 22(10), 1062–1077.
- Petrie, K., Devcich, J., eta Fitzgerald, H. (2018). Working towards inclusive physical education in a primary school: ‘some days I just don’t get it right’. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 23(4), 345–357.
- Redelius, K., Fagrell, B., eta Larsson, H. (2009). Symbolic capital in physical education and health: to be, to do or to know? That is the gendered question. *Sport, Education and Society*, 14(2), 245–260.
- Redelius, K., eta Hay, P. (2009). Defining, acquiring and transacting cultural capital through assessment in physical education. *European Physical Education Review*, 15(3), 275–294.
- Reid, G. (2003). Defining adapted physical activity. In R. D. Steadward, G. D. Wheeler, eta E. J. Watkinson (Eds.), *Adapted physical activity* (pp. 11–25). Edmonton, Canada: University of Alberta Press.
- Ríos, M. (2009). La inclusión en el área de Educación Física en España. Análisis de las barreras para la participación y aprendizaje. *Ágora para la Educación Física y el Deporte*, 9, 83–114.
- Sánchez-Hernández, N., Martos-García, D., eta Soler, S. (2018). La (re)construcción de la identidad profesional de las profesoras de EF: de la complicidad y la reproducción de las relaciones de género a la disposición al cambio educativo. *Revista Complutense de Educación*, 30(3), 879–893.
- Sánchez-Hernández, N., Martos-García, D., Soler, S., eta Flintoff, A. (2018). Challenging gender relations in PE through cooperative learning and critical reflection. *Sport, Education and Society*, 23(8), 812–823.
- Serra, P. (2016). *La perspectiva de género en los estudios de ciencias de la actividad física y el deporte*. Doktorego Tesis. Universitat de Barcelona.

- Sevil, J., Abós, A., Julian, J. A., Murillo, B., eta García-González, L. (2015). Género y motivación situacional en Educación Física: claves para el desarrollo de estrategias de intervención. *RICYDE. Revista Internacional de Ciencias del Deporte*, 41(11), 281–296.
- Standal, Ø. F. (2015). *Phenomenology and pedagogy in physical education*. Londres: Routledge.
- Svendby, E. B., eta Dowling, F. (2012). Negotiating the discursive spaces of inclusive education: narratives of experience from contemporary Physical Education. *Scandinavian Journal of Disability Research*, 15(4), 361–378.
- Valencia-Peris, A., eta Lizandra, J. (2018). Cambios en la representación social de la educación física en la formación inicial del profesorado. *Retos*, 34, 230–235.
- van Manen, M. (1997). *Researching lived experience: human science for an action sensitive pedagogy*. Londres: The Althouse Press.
- Wilkinson, S., Littlefair, D., eta Barlow-Meade, L. (2013). What is recognised as ability in physical education? A systematic appraisal of how ability and ability differences are socially constructed within mainstream secondary school physical education. *European Physical Education Review*, 19(2), 147–164.
- Wright, J., eta Burrows, L. (2006). Re-conceiving ability in physical education: a social analysis. *Sport Education and Pedagogy*, 11(3), 275–291.

BOSGARREN KAPITULUA

Abileziaren ulermenta heziketa fisikoan Jarduera Fisikoaren
eta Kirolaren Zientzietako graduko irakasleen ikuspegitik

5.1. Sarrera⁵

Ikuspegi soziokulturalean kokatzen diren hainbat ikerketek egiazta dute abileziaren nozioa funsezkoa dela HFan inklusioa sustatzerako orduan (Wilkinson, Littlefair eta Barlow-Meade, 2013). Horiek abilezia gizarte eraikuntza gisa definitzen dute (Evans, 2004), soilik HFan baloratzen diren ezaugarriekin bat egiten duten ikasle ‘abilek’ dutelarik aitorpenera sarbidea eta parte hartze esanguratsuaz gozatzeko aukera. Evansek (2004) *habitus-a*, kapitala, eremua eta biolentzia sinbolikoa bezalako kontzeptuen bidez (Bourdieu, 2000), adierazten du abilezia, HFan eta Irakasleen Hastapeneko Formakuntza programetan, modu tradizionalean ulertzen dela, batik bat, esparruotan nagusitzen diren kirol diskurtso nagusien ondorioz. Abileziaren nozio sinplista eta estatiko hori ikuspegi soziokulturalak kritikatutako bi ikuskeratan oinarritzen da (Wright eta Burrows, 2006): (1) ikuspegi biologikoa, non abilezia pertsonaren berezkoa eta naturala den talentutzat hartzen den, eta; (2) ikuspegi soziopsikologikoa, non abilezia areagotu edo estatiko gera daitekeen nozio gisa definitzen den, ikasleen motibazioa eta esfortzuaren baitan.

HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako ikasketa planetan gai horri eskaintzen zaion arreta eskasak eragin negatiboa du etorkizuneko irakasleen inklusiorako prestakuntzan; hori, hain zuzen, HFan ikasle ‘ez abilen’ irakaskuntza, motibazioa eta JFKrekiko atxikimendua sustatzeko arazo izan daiteke (Wilkinson et al., 2013). Era berean, Evans eta Penneyren (2008) arabera, HFan eta Hastapeneko Formakuntzan izandako aurretiko esperientziek irakasleen diskurtso eta usteen eraikuntzan eragiten dute. HFko Hastapeneko Formakuntzak etorkizuneko irakasleen abileziaren nozioa birkontzeptualizatzeko espazio egokia dela aitortuz, dagokion ardura beregain hartzeko beharra aldarrikatzen da (Barber, 2018; Brown, 2005). Baino, zeregin horrek erronka izaten darrai HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntza programetan (Nabaskues, Usabiaga, Martos-Garcia eta Standal, 2019).

Horren ildora, abileziaren birkontzeptualizazio prozesuan Hastapeneko Formakuntzako

⁵ Jatorrizko artikulua: Nabaskues, I. eta Usabiaga, O. (2019). Comprensión de la habilidad desde la perspectiva del profesorado de formación inicial de Educación Física. *Revista Internacional de Deportes Colectivos*, 38, 68–81.

irakasleen ikuspegia erabakigarria da, beren sinesmen eta diskurtsoek etorkizuneko HFko irakasleen pentsamenduan eragin nabarmena izan dezakete eta. Kolektibo horrek abilezia nola ulertzen duen garrantzi handikoa izan arren, literaturan ez da eragile horien abileziaren inguruko usteak aztertu dituen ikerlanik identifikatu.

Hala, ikerketa honen bidez, literaturan identifikatutako hutsuneari arreta eskaini nahi izan zaio. Zehazki, ikerlan honen helburua HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako irakasleek abileziaren nozioa nola ulertzen duten aztertzea izan da, ondorengo ikerketa-galderen bitartez: (1) nola ulertzen dute HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako irakasleek abileziaren kontzeptua HFan?, eta; (2) zeintzuk izan daitezke beren usteen ondorioak HFko etorkizuneko irakasleak inklusiorako prestatzerako orduan?

5.2. Metodologia

5.2.1. Parte hartzaileak

Ikerketa honetan Euskal Herriko unibertsitateko (UPV/EHU) JFKZ graduoko 10 irakaslek (hiru emakumek eta zazpi gizonek) hartu zuten parte; izan ere, gradu hori Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakasle izateko graduondoan sartzeko ezinbestekoa da. Fakultatea eta parte hartzaileak intentziozko laginketa ez probabilistiko bidez hautatu ziren (Patton, 2002), profil desberdinako irakasleak biltzeko asmoz (III Taula). Partaideek sei eta 33 urte bitarteko lan esperientzia zuten fakultatean eta horietatik lauk Irakasleen Prestakuntza unibertsitate masterrean eskolak emandakoak ziren. Beren formakuntzari dagokionez, bi irakasle Pedagogian lizentziatuak ziren eta gainontzeakoak, berriz, JFKZ ikasketetan lizentziatuak ziren. Gainera, azken multzo horretako hiru partaidek Lehen Hezkuntzako gradua ikasi zuten, gorputz hezkuntzako ibilbidean espezializatu zirelarik. Pedagogian lizentziatuak ziren bi irakasleek izaera teorikoko eskolak eman zituzten (historia, pedagogia eta didaktika); JFKZ ikasketak zituztenek, aldiz, irakasgai teoriko-praktikoak ematen zituzten (kirolak, joko-jolasak eta natura jarduerak). Bestalde, partaide guztiekin funtzio aniztasuna zuten pertsonenkin aurretiko esperientzia bazutela adierazi zuten.

III. Taula. Elkarrizketatutako irakaslegoaren profila eta datuak.

Ezizena	Adina	Doktorea	Emandako irakasgaien izaera	JFKZ graduau urteak	Irakaskuntza masterrean eskolak ematea	Esperientzia profesionala (esparrua)	Funtzio aniztasuna duten pertsonekin esperientzia (esparrua)
Miren	54	Bai	Teorikoa	33 urte	Bai	Hezkuntza	Hezkuntza
Andoni	37	Bai	Teoriko-praktikoa	6 urte	Ez	Hezkuntza, kirola	Hezkuntza, kirola, pertsonala
Pablo	53	Bai	Teoriko-praktikoa	31 urte	Bai	Hezkuntza, kirola	Aisialdia, pertsonala
Manu	52	Ez	Teorikoa	30 urte	Bai	Hezkuntza	Hezkuntza
Dani	48	Bai	Teoriko-praktikoa	26 urte	Ez	Hezkuntza, kirola	Hezkuntza
Martin	47	Bai	Teoriko-praktikoa	25 urte	Ez	Hezkuntza, kirola	Kirola
Begoña	56	Bai	Teoriko-praktikoa	29 urte	Bai	Hezkuntza, kirola	Hezkuntza, pertsonala
Pedro	58	Bai	Teoriko-praktikoa	29 urte	Ez	Hezkuntza, kirola	Hezkuntza
Lourdes	53	Ez	Teoriko-praktikoa	28 urte	Ez	Hezkuntza, kirola	Hezkuntza, kirola, pertsonala
Santi	56	Bai	Teoriko-praktikoa	29 urte	Ez	Hezkuntza, kirola	Kirola

5.2.2. Datu bilketarako teknikak

Ikerketa honen helburuari erantzuteko metodologia kualitatiboa erabili zen. Talde-fokalen teknika bidez irakaslegoa elkarrizketatu zen ikerketa-galderetatik abiatuta erdi-egituratutako elkarrizketa-gidoi bat erabiliz, hori partaideen pertzepzio eta usteetan sakontzeko metodo egokitzat jo baitzen (Kvale, 1996). Talde-fokalak burutzeko irakaslegoa bost pertsonako bi taldeetan banatu zen haien ordutegien arabera.

5.2.3. Procedura

Irakasle talde bakoitzarekin bi elkarrizketa egin ziren fakultatean 2016-2017 ikasturtean, unibertsitateko Etika Batzordearen onarpena lortu eta irakasleen baimen informatuak bildu ostean. Azken dokumentu horrek irakasleen parte hartzea boluntarioa zela eta eskuratutako datuen konfidentialtasuna eta anonimotasuna bermatzeko konpromisoa hartzen zela adierazten zuen. Elkarrizketen eguna eta ordua parte hartzaileekin adostu zen.

Lehenengo elkarrizketaren helburua JFKZ graduoko irakaslegoak abilezia HFan nola ulertzen zuen aztertzea izan zen. Bigarren saioan, berriz, elkarrizketaren helburua bestelakoa izan zen; alde batetik, egindako elkarrizketetan identifikatutako gai gakoen inguruau eztabaideatu zen eta, bestetik, abileziaren nozioaren inguruko ikuspegi desberdinak aurkeztu ziren, horien inguruau eztabaidatzeko asmoz.

Elkarrizketa bakoitzaren hasieran, partaideei elkarrizketaren helburuaren inguruau informatu zitzaien. Elkarrizketa guzietan ikerketa honen egile diren bi pertsona aritu ziren moderatzaile lanetan, ikerketa aurrera eraman zen unean fakultateko irakasle ere bazirenak. Elkarrizketa bakoitzaren iraupena 90 minutukoa izan zen eta, partaideen aldez aurreko baimenarekin, elkarrizketa guztiak grabatuak izan ziren. Horiek transkribatu ostean, irakasleen ahotsetatik eratorritako informazioa, ikerlari nagusiak prozesuan gertatutakoak erregistratzen zituen egunerokoarekin triangulatu zen (Bogdan eta Biklen, 2003).

5.2.4. Datuen analisia

Irakasleekin egindako elkarrizketak indukzio analitikoko metodoak erabiliz aztertu ziren (van Manen, 1997), ikerketa-galderekin harremana zuten gaiak identifikatzeko. Lehenik eta behin, transkripzioak zein egunerokoa irakurri eta berrirakurri ziren, garrantzirik gabeko informazioa murriztuz. Ondoren, etengabeko konparaketa bidez, kategoriak eta azpikategoriak ezarri ziren, aurrez kodifikatutako eta multzokatutako erantzunetatik abiaturik. Analisirako kategoriak identifikatu ostean, datuak berriro aztertu ziren etengabeko hausnarketa prozesu baten bitartez. Horrez gain, ikerketa taldearen arteko eztabaidek, analisi prozesuan suertatu ziren desadostasunak edo interpretazio okerrak

identifikatzea ahalbidetu zuten (Patton, 2002). Azkenik, irakasleen ahotsen interpretazio prozesua gauzatu zen, horiei esanahia emateko asmoz.

5.3. Emaitzak eta eztabaida

Emaitzen analisitik hiru gai nagusi identifikatu ziren: (1) abileziaren eraikuntza HFan; (2) inklusiorako estrategiak HFan, eta; (3) HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntza eraldaketarako espazioa.

Aipatzeko da irakasle batzuren usteak ikuspegi soziokulturalarekin bat egin zuten bitartean, beste batzuenak ikuspegi biologikoan edo soziopsikologikoan kokatu zirela. Jarraian, horren inguruko ebidentziak eskaintzen dira.

5.3.1. Abileziaren eraikuntza HFan

Elkarrizketatutako pertsonen artean baziren "*abilezia gure pertzepzioetan eragina duen gizarte eraikuntza bat*" (Miren) zela defendatzen zutenak. Ildo berean, irakasle talde horrek, HFan 'abila' izatea zer den definitzerako orduan, gizartea rol garrantzitsua jokatzen duela nabarmendu zuen: "*hitz egiten ari garen abilezia mota gizartea inposatutako abilezia mota jakin bat da*" (Andoni). Ikuspegi soziokulturalaren ildotik, irakasle talde horrek adierazi zuen ikasle 'abilak' interes-eremuan baloratzen diren ezaugarriekin bat egiten dutenak direla: "*gizartea baloratzen duen horretan ona ez banaiz, HFan txarren zakuan egongo naiz*" (Andoni). Beste parte hartzaile batek gaineratu zuenez, "*futbolean ona dena zazpi pilotekin malabarrak egiten dituenak baino abilagoa konsideratzen da*" (Pablo). Hala, abileziaren eraikuntza "*gizarte sistemaren arazoa*" (Manu) dela ondorioztatu zuten.

Horrez gain, ikuspegi soziokulturalarekin bat eginez, HFko irakasleak ikasgelan abileziaren kontzeptualizazioan eragina zuela adierazi zuten. Horren ildora, Pablok aipatu zuen HFan 'abila' izatea irakaslearen posizionamendu politikoaren araberakoa dela eta, beraz, irakaslearen erabaki pedagogiko eta kalifikazio sistemaren arabera definituko dela zer

den HFan jakin behar dena eta gauzak egiteko modua, azken batean, HFan legitimatzen diren abileziak. Ildo beretik, mahai gaineratu zen irakasleak proposatutako jardueren barne-logikak eragina izan zezakela HFko ikasleen aitorpenerako aukeretan: "*harrapaketan izan daiteke ona edonor. Ez da gehien korritzen duena, ez da gehien egiten duena, baizik eta harreman onenak dituena [...] ze ona izatea harrapaketan da gauza bat eta ona izatea futbolean da beste bat*" (Pablo). Zenbait irakaslek, ordea, azken ideia horrekiko desadostasuna adierazi zuten, abileziaren gaia jarduera motaz haratago doan gai konplexua dela argudiatuz.

Ikuspegi soziokulturalaren ildo beretik (Wilkinson et al., 2013), irakasle gehienak ados zeuden testuinguru sozialak abileziaren eraikuntzan duen eraginarekin. Hala ere, zenbait partaidek adierazi zuten "*ikasleek jarduera bat egiteko duten abilezia, alde batetik, berezkoa izango da eta, bestetik, landu dutenaren araberakoa*" (Martin). Era berean, beste parte hartziale batek gaineratu zuen "*HFan ahalegina eta hobekuntza balioestea dela garrantzitsuena*" (Begoña). Hala, irakasleen diskursoetatik abileziaren ikuspegi biologikoarekin eta soziopsikologikoarekin bat zetozentzioak identifikatu ziren (Wright eta Burrows, 2006). Ikuspegiotatik, ordea, ikasleek abilezia motorrak garatzeko aukeretan hainbat aldagairen efektuak ikusezinak dira (Evans, 2004), besteak beste: testuinguru soziala, irakaslearen erabaki pedagogikoak, proposatutako jardueren barne-logika eta pertsonai esleitzen zaien generoa, funtzio aniztasuna edo klase soziala bezalako identifikatzileen intersekcioen eragina.

5.3.2. Inklusiorako estrategiak HFan

Partaide guztiak HFak inklusiboa izan behar zuela adierazi zuten. Ikuspegi soziokulturalarekin bat zetozentzio irakasle gehienek inklusioa egingarria zela adierazi zuten bitartean, abileziaren ikuspegi tradizionalagoak azaleratu zituzten beste partaide batzuk aitortu zuten inklusioa lortzea oso zaila zela, batik bat, baliabide eskasia eta HFko ikasleen abilezia anitzen ondorioz.

Zehazki, ikuspegi soziokulturalarekin bat zetozentzio irakasleek mahai gaineratu zuten ikasgelan inklusioa sustatzeko beharrezko zela inklusioaren kontzeptuari buruzko

ikuspegi zabalagoa eta proposamen metodologiko malguagoak txertatzea, hala, ikasle orok parte hartze esanguratsuago batez gozatzeko aukera izan zezan. Ildo horretan, HFan inklusioa sustatzeko erabilgarriak izan zitezkeen ondorengo estrategia metodologikoak aipatu zituzten: (1) ikasle guztiak lor ditzaketen helburu malguak proposatzea; (2) ikasleek joko-arauak taldearen ezaugarrien arabera adostea ahalbidetzea; (3) jarduera alternatiboak egitea eta HFan nagusi diren kirol tradizionalak albo batera uztea; (4) ikasleei parte hartzeko eta ezarritako helburuak lortzeko modua erabakitzentzera; (5) erronka kooperatiboak proposatzea eta arazoetan oinarritutako ikaskuntza sustatzea, eta; (6) ikasleek jarduera inklusiboak diseinatzeko duten gaitasuna balioestea.

Literaturaren arabera (Velázquez, Fraile eta López, 2014; Yu-Ji, 2019), identifikatutako estrategiak metodologia aktiboen barruan koka daitezke, ikasleen arteko aniztasunari erantzuteko egokiak konsideratzen direnak. Era berean, ikuspegi soziokulturalaren ildotik, parte hartzaleek iradokitako estrategietan irakaslearen usteek, erabaki pedagogikoek eta prestakuntzak HFan testuinguru ‘bizigarriagoak’ (*habitable*) eraikitzen funtsezko rola jokatzen duela ondoriozta daiteke (Standal, 2015).

Bestalde, bere diskurtsoa ikuspegi biologikoan kokatzen zen parte hartzale batek adierazi zuen inklusioaren eraginkortasuna, batez ere, pertsonaren funtzio aniztasunaren eta ikastetxeko baliabideen araberakoa zela: “[ikasleak duen] desgaitasunaren arabera, agian ezingo duzu taldean integratu. Gainera, laguntzarik ez baduzu, hasieran oso konplikatua izango da. Denbora asko emango duzu pertsona horrekin eta ez dituzu gainontzeakoak atendituko” (Martin). Gainera, partaide horrek arazotzat jotzen zuen inklusioa errazteko metodologia aldaketa bat egitea, ikasgaiaren kalitatean eragin negatiboa izan zezakeelako. Ildo beretik, zenbait parte hartzalek adierazi zuten HFan abileziaren nozioa birkontzeptualizatzeko ez zela nahikoa beste abilezia mota batzuk balioestea “modu horretan ere pertsona bat beste bat baino abilagoa izaten jarraituko lukeelako” (Martin). Ildo horretan, abileziaren ikuspegi biologikoarekin bat eginez, Begoñak ikasleen abilezien hierarkizazioa naturaltzat hartzen zuen “munduan zehar abilak eta ez hain abilak daudela” argudiatuz.

Azken irakasle talde horren pertzepcioetik eta erabilitako terminologiatik abiatuz,

ikasleen abilezia anitzasunari eraginkortasunez erantzuteko asmoz proposatutako estrategiekiko kezka edo desadostasuna identifikatu zen; hain zuzen, estrategiok gainontzeko ikasleen irakaskuntza prozesuan eta irakasgaiaren kalitatean eragin negatiboa izango zuela uste zuten eta. Ikuspegি hori integrazioaren ideiarekin eta desgaitasuna eta abileziaren kontzeptuen ikuskera tradizionalarekin lotzen da (Flintoff, Fitzgerald eta Scraton, 2008; Svendby eta Dowling, 2012). Ikuspegি soziokulturalaren arabera, begirada hori HFan inklusioa sustatzeko oztopo izan daiteke, ikasleen desberdintasunak ospatu beharrean arazo konsideratzen ditu eta (Standal, 2015).

5.3.3. HFko Irakasleen Hastapeneko formakuntza eraldaketarako espazioa

Ikuspegি soziokulturalaren ildotik, zenbait irakaslek fakultatea HFan abilezia birkontzeptualizatzeko espazio gisa identifikatzen zuten: "*gure ikasleei ematen diegun prestakuntzari buruz hausnartu beharko genuke; fakultatean abilezia ulertzeko modua aldatu behar ote dugun, gizarte justu eta inklusiboago bat eraikitzeko bidean*" (Andoni). Ildo beretik, Mirenek honakoa gaineratu zuten: "*ez duzu mundua aldatuko, ezinezkoa. Bainan disonantzia bat sor dezakezu [ikasleengana]. Pentsatzen bideratu ditzakezu, gauzak beste ikuspuntu batetik ikustera*". Horretarako, fakultateko irakasleek bete beharreko hainbat zeregin mahai gaineratu zituzten, besteak beste: (1) kritikoak izatea; (2) etorkizuneko irakasleei HFan abileziaren kontzeptualizazioak ezkutatzen duen problematikaz ohartaraztea, eta; (3) ikasleen abilezia anitzak balioan jartzearen garrantziaz kontzientziatzea. Hala eta guztiz ere, irakasle batek Hastapeneko Formakuntza programak ikasleen usteen eraldaketan izan dezakeen eraginari zegokionez "*baikortasun pedagogiko*" (Manu) handia zegoela adierazi zuen. Horrez gain, honakoa gaineratu zuen: "*arazo nagusia ez da irakasleen Hastapeneko Formakuntzarena. Gizarte sistemaren arazoa da*" (Manu). Aldiz, ikuspegি biologikoaren eta soziopsikologikoaren diskursoekin bat egiten zuten irakasleek ez zuten gai horren inguruko iritzirik partekatu, eta soilik nabarmendu zuten "*zure bizitzako formakuntza guztia ez dela unibertsitatean eskuratzen*" (Begoña).

Bestalde, Flintoff eta kideekin (2008) bat eginez, ikuspegি soziokulturalarekin bat zetozentzera partealdeek azpimarratu zuten Hastapeneko Formakuntzako irakasleen sinesmenak

abileziaren nozioaren transmisioan eragina zuela: "[HFko irakasgaiari esleitzen diozun] xedearekin lotuta dago eta zure pentsamenduaren egiturek baldintzatzen dute. Hezkuntza ulertzeko edo sentitzeko moduaren araberakoa da" (Miren). Ikasgelan inklusioa sustatzeko abileziaren nozioaren eragina nabarmena zela onartu arren, partaide batek honakoa adierazi zuen: "HFren gaia eta, bereziki, aniztasunaren gaia, fakultatean gutxien jorratzen dena da" (Manu). Irakasle horrek gaineratu zuen fakultatean "inklusioaren ikuspegi klasikoa transmititzen dela eta inklusioa heziketa berezia, integrazioa, egokitzapena eta urritasunarekin harremantzen dela" (Manu). Gainera, nabarmendu zuen ikasketa planean nagusi diren ibilbideen bidez transmititzen diren ikuspegiak –kirol errendimenduarena, esaterako– inklusioaren filosofiatik oso urrun geratzen direla eta, ondorioz, "karreratik ateratzen diren ikasleak gai hauei dagokienez babian" daudela adierazi zuen. HFan inklusioa eta genero ikuspegia bermatzeko JFKZ graduko ikasketa planaren egokitasunari dagokion pertzepzio hori bat dator, ikuspegi kritiko batetik, estatu mailako JFKZ graduko programak sakontasunez aztertu zituen ikerlan baten emaitzakin (Serra, 2016).

Aitzitik, beste irakasle batek kontrako pertzepzioa azaleratu zuen ikasleak gai horiekiko duten prestakuntzari dagokionez: "ulertzen dut laugarren maila amaitzen duten ikasleek abileziaren alderdi sozialaren inguruko pertzepzio orekatua dutela" (Pedro). Aldiz, fakultate horretan bertan JFKZ graduko ikasleen abileziaren ulermenak eta hautemandako prestutasunaren inguruan egindako azterketa enpiriko batean identifikatu zen ikasleok abileziaren ikuspegi biologikoan eta soziopsikologikoan errotutako nozioak zituztela, ikaskuntza testuinguru inklusiboak eraikitzeko oztopo izan daitezkeenak (Nabaskues et al., 2019). Gainera, etorkizuneko irakasleek adierazi zuten ez zirela prest sentitzen HFan inklusioa sustatzeko, betik bat, gai horren inguruan graduau zehar jasotako formakuntza urria zela eta. Ondorioz, Coatesekin (2012) bat eginez, etorkizuneko irakasleei inklusioa sustatzeko beharrezko diskurtso eta tresnak eskaintzeko Hastapeneko Formakuntzaren eraginkortasuna zalantzán darrai.

Bestetik, partaide batzuk, etorkizuneko irakasleak aniztasuna balioestearen garrantziaz kontzientziatzeko bidean, JFKZen graduko irakasleek funsezko rola jokatzen zutela aitortu bazuten ere, zeregin hori benetan zaila zela uste zuten, bereziki, testuinguru

sozialaren eragina eta HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako ikasketa planen egitura zela eta: “*JFKZ graduaren arazoa da bere praktika profesionala anitza dela [...] karrera hau ez da lanpostu zehatz baterako formakuntza [...] arazo historikoa da HFa JFKZ fakultatean landu izana*” (Manu). Proposamen bezala, HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzaren berrantolaketa mahai gaineratu zuten, herrialde anglosaxoien ereduaren ildo beretik.

5.4. Ondorioak

Ikuspegij soziokulturaletik interpretatutako emaitzetatik abiatuta, abileziaren kontzeptuari lotutako bi ikuspegi nagusi identifikatu dira HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako irakasleen artean; alde batetik, ikuspegij soziokulturalarekin bat egiten dutenak eta, bestetik, ikuspegij biologikoan eta soziopsikologikoan kokatzen direnak. Ikuspegij soziokulturalaren arabera (Wright eta Burrows, 2006), azken horiek arazo izan daitezke HFan abilezia anitzak dituzten ikasleen parte hartzea sustatzeko eta testuinguru hezigarriak eraikitzeko orduan. Horrez gain, adierazgarria da parte hartu zuten irakasleen hainbat aldagaik –lan esperientzia, funtzio aniztasuna duten pertsonekin aldez aurretiko bizenpenak eta irakasleek ematen dituzten irakasgaien izaera– ez direla esanguratsuak izan analisi fasean identifikatutako bi ikuspegiak justifikatzeko. Ikerketa honetako emaitzak orokortu ezin badira ere, horiek Estatu espainiarreko beste JFKZ fakultateetako datu adierazgarriak izan daitezke.

Ikerketa honen emaitzak kontuan hartuz, hezkuntza inklusiboagoa lortzeko bidean, HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzan abileziaren nozioari buruzko eztabaidea funtsezkoak dela defendatzen dugu (Evans, 2004), besteak beste, gogoeta sustatzeko eta ikaslegoak dakartzan sinesmenei aurre egiteko espazio egokia da eta (Barber, 2018). Horretarako, lehentasunezkotzat jotzen da, alde batetik, Hastapeneko Formakuntzako irakasleek beren diskurtsoei buruz hausnartzeko eta kontzientzia hartzeko espazioak txertatzea, bai eta beren diskurtsoek etorkizuneko HFko irakasleen ikuspegietai duten eraginaz ohartzeko. Bigarrenik, komenigarria litzateke Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako ikasketa planetan gai zehatz batzuen inguruko eztabaidak txertatzea;

esaterako, abileziaren eraikuntza sozialak HFan inklusioa sustatzeko duen eragina. Proposamen horiek abian jarri ezean, etorkizuneko irakasleek nekez izango dute HFan abilezia desberdinak dituzten ikasleei aitorpenerako aukera ekitatiboa eta inklusiboa bermatuko duen HFa eraikitzeko abagunea; horretarako, oztopo izan daitezkeen diskursoak eztabaidatzeko espazio batez gozatzeko aukera ezinbestekoa baita. HFan inklusioa eraginkortasunez txertatzeko bidean, ikerlan apal hau JFKZ fakultateetan abileziaren nozioaren inguruko, bai eta HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako ikasketa planen egitura eta antolaketaren egokitasunari buruzko eztabaidea sustatzeko abiapuntua izatea espero da.

5.5. Erreferentziak

- Barber, W. (2018). Inclusive and accessible physical education: rethinking ability and disability in pre-service teacher education. *Sport, Education and Society*, 23(6), 520–532.
- Bogdan, R. C., eta Biklen, S. K. (2003). *Qualitative Research for Education: An Introduction to Theories and Methods* (4th ed.). New York: Pearson Education Group.
- Bourdieu, P. (2000). *La dominación masculina*. Barcelona: Anagrama.
- Brown, D. (2005). An economy of gendered practices? Learning to teach physical education from the perspective of Pierre Bourdieu's embodied sociology. *Sport, Education and Society*, 10(1), 3–23.
- Coates, J. K. (2012). Teaching inclusively: Are secondary physical education student teachers sufficiently prepared to teach in inclusive environments? *Physical Education and Sport Pedagogy*, 17(4), 349–365.
- Evans, J. (2004). Making a difference? Education and «ability» in physical education. *European Physical Education Review*, 10(1), 95–108.
- Evans, J., eta Penney, D. (2008). Levels on the playing field: the social construction of physical «ability» in the physical education curriculum. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 13(1), 31–47.
- Flintoff, A., Fitzgerald, H., eta Scraton, S. (2008). The challenges of intersectionality: researching difference in PE. *International Studies in Sociology of Education*, 18(2),

- 73–85.
- Kvale, S. (1996). *Interviews: An Introduction to Qualitative Research Interviewing*. Thousand Oaks, California: Sage.
- Mordal-Moen, K., eta Green, K. (2014). Physical education teacher education in Norway: the perceptions of student teachers. *Sport, Education and Society*, 19(6), 806–823.
- Nabaskues, I., Usabiaga, O., Martos-Garcia, D., eta Standal, Ø. F. (2019). Comprensión de la habilidad desde la perspectiva del futuro profesorado de educación física. *Retos*, 36(2), 118–124.
- Patton, M. (2002). *Qualitative Research and Evaluation methods* (3rd ed.). Beverly Hills, California: Sage.
- Serra, P. (2016). *La perspectiva de género en los estudios de ciencias de la actividad física y el deporte*. Doktorego Tesia. Universitat de Barcelona.
- Standal, Ø. F. (2015). *Phenomenology and pedagogy in physical education*. Londres: Routledge.
- Svendby, E. B., eta Dowling, F. (2012). Negotiating the discursive spaces of inclusive education: narratives of experience from contemporary Physical Education. *Scandinavian Journal of Disability Research*, 15(4), 361–378.
- van Manen, M. (1997). *Researching lived experience: human science for an action sensitive pedagogy*. Londres: The Althouse Press.
- Velázquez, C., Fraile, A., eta López, V. M. (2014). Aprendizaje cooperativo en Educación Física. *Movimento*, 20(1), 239–259.
- Wilkinson, S., Littlefair, D., eta Barlow-Meade, L. (2013). What is recognised as ability in physical education? A systematic appraisal of how ability and ability differences are socially constructed within mainstream secondary school physical education. *European Physical Education Review*, 19(2), 147–164.
- Wright, J., eta Burrows, L. (2006). Re-conceiving ability in physical education: a social analysis. *Sport Education and Pedagogy*, 11(3), 275–291.
- Yu-Ji, L. (2019). The influence of problem-based learning on learning effectiveness in students' of varying learning abilities within physical education. *Innovations in Education and Teaching International*, 56, 3–13.

SEIGARREN KAPITULUA

Tesiaren itxiera

6.1. Ondorioak

Tesi honen helburu nagusia JFKZ graduko ikasle eta irakasleek abilezia HFan nola ulertzen duten esploratzea eta ulertzea izan da. Jarraian, 1.3. atalean zehaztutako helburu zehatzten lorpena aurkezten da.

Lehen helburua: nola eraikitzen da abileziaren ulermena HFan eta HFko Irakasleen Formakuntzan eta zein eragin du testuinguru inklusiboen eraikuntzan?

Egindako errebisio sistematikotik abiatuta, abilezia ulertzeko era ikuspegi tradizionaletan errouta dagoela ondoriozta daiteke, hain zuzen, ikuspegi biologikoan eta soziopsikologikoan. Azken hamarkadetan ikuspegi soziokulturalean kokatzen diren autoreek errealtitate horren kontrako argudio eta eraldaketarako proposamen praktikoak aurkeztu badituzte ere, gaur gaurkoz, ikasle ‘ez abilek’ jasaten dituzten biolentzia sinbolikoko esperientziak ikusgai izaten darraite HFren esparruan. Ikerlanok irakaslearen rola garrantzitsua dela nabamentzen dute diskriminatzailak diren egitura eta diskurtsoen birmoldaketan. Ildo horretan, HFko Irakasleen Formakuntza programak abileziaren inguruan erroutako sinesmenak zalantzan jartzeko espazio aproposa izan daitezkeela adierazten da. Alabaina, tesi-lan honetan egindako errebisio sistematikoan ez da HFko Irakasleen Formakuntzaren esparruan kokatzen den ikerketarik topatu eta horrek, halaber, eraldaketarako bideak mugatu ditzakeela ondorioztatu da. Horrez gain, HFan testuinguru inklusiboagoak eraikitzeko asmoz, abilezia modu dinamikoago batean ulertzeko lagungarri izan daitezkeen gaiak eta aplikazio praktikoak eskaini dira.

Bigarren helburua: emakume ‘abilaren’ ikuspegitik nola ulertzen dut abilezia HFan eta zein eragin izan dezake HFan testuinguru inklusiboagoen eraikuntzan?

Bigarren ikerketa-galderan sakontzeko, ikerketa narratiboa erabili da abileziaren eraikuntza esploratzeko, ahots eta ikuspegi berri bat eskainiz. Hala, nire testuinguru

soziokulturalean ‘abilen’ taldean sailkatuta egon den emakume baten ikuspegitik, JFKren esparruan kokatzen diren bost bizitza-historien kontakizunak aztertu dira. Bertatik ondoriozta daiteke ikuspegij soziokulturala tresna aproposa izan daitekeela HFan ikasleen aniztasunari eraginkortasunez erantzun eta abileziaren ulermenak duen eraginaz ohartarazteko. Ildo berean, eta modu osagarri batean, bizitza-historia horietatik azaleratutako estrategia pedagogikoak eskaini dira, abilezia modu dinamikoago batean ulertzeko bidean. Etorkizuneko irakasleen abileziaren inguruko usteak biluztu eta zalantzan jartzeko espazioak sustatzeko asmoz, ondorengo estrategiak proposatzen dira, bereziki, HFko Hastapeneko Irakasleen Formakuntza programetara bideratzen direnak: (1) abilezia maila desberdina duten pertsonekin elkarrekintza aukerak areagotzea; (2) isilpeko ahotsetatik eratorritako bizi-esperientzien gaineko eztabaidea sustatzea, eta; (3) eragile implikatuen, hots, ikasle eta irakasleen, barrura begirako lan autobiografikoak areagotzea. Horiek baliozkoak izan daitezke JFKren esparru desberdinaren barneratutako diskurtsoen inguruko kontzientzia handiagotu eta estrategiok etorkizuneko irakasleen jokabide, ekintza eta jarreretan nola eragiten duten aztertzeko. Barne begirada hori halabeharrezkotzat jotzen da etorkizuneko irakasleen identitatea (ber)eraiki eta, batik bat, HFan ikasle ‘abilaren’ ikuspegi tradizionala (er)aldatu bidean.

Hirugarren helburua: nola ulertzen dute abilezia HFan JFKZ graduko ikasleek?

Elkarrizketatutako ikasleen testigantzetatik abiatuta, abilezia ulertzeko eran ikuspegi biologikoan eta soziopsikologikoan errrotutako sinesmenak antzeman dira. Hala ere, kontestu soziokulturalak abileziaren eraikuntzan duen eragina azaleratu eta arazotzat jo duten ikasleen iritziak ere identifikatu dira. Partaideek HFan inklusioa sustatzearen aldeko jarrera izan arren, abilezia maila desberdina duten ikasleentzako saioak bideratzea zaila ikusten dute, bereziki, HFak berezkoa duen lehiakortasuna, egiten diren jarduera motak eta ebaluazio sistema kontuan hartuz. Era berean, elkarrizketetan, funtzió aniztasuna duten pertsonez eta inklusioaz hitz egiteko erabilitako terminologia mugatua dela antzeman da, eredu medikuan eta integrazioarekin harremana duten ideiak identifikatu direlarik, hurrenez hurren. Elkarrizketatuek abilezia desberdinak dituzten ikasleen arrakasta eta esperientzia positiboa bermatzeko irakaslearen rola garrantzitsua dela

aitortu badute ere, JFKZ graduau gai horren inguruan jasotako formakuntza nahikoa ez dela adierazi dute. Horren aurrean, HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntza programetan abileziaren eraikuntzaren inguruko eztabaida-guneak eskaintza garrantzitsua dela azpimarratu da, hala, etorkizuneko irakasleen ikuspegi mugatuak zalantzan jarri eta diskurso eta estrategia pedagogiko inklusiboagoei bidea egiteko.

Laugarren helburua: nola ulertzen dute abilezia HFan JFKZ graduko irakasleek?

Ikuskera soziokulturalaren begiradapean, JFKZ graduoko irakasleekin egindako elkarriketetatik, HFan abilezia ulertzeko bi ikuspegi identifikatu dira. Alde batetik, ikuspegi biologikoa eta soziopsikologikoa, HFan inklusioa sustatzeko oztopo izan daitezkeenak, eta bestetik; ikuspegi soziokulturala, HFan ikasleen arteko aniztasuna kudeatzeko aproposagotzat jotzen dena. Ikuspegi desberdinok irakasleen aurretiko formakuntzarekin eta ematen dituzten irakasgaien izaerarekin lotu dira. Oro har, irakasleek inklusioarekiko jarrera baikorra badute ere, desberdintasunak identifikatu dira. Ikuspegi soziokulturalarekin bat egiten duten irakasleek inklusioa lor daitekeela uste duten bitartean, ikuspegi tradizionalean kokatzen diren partaideek inklusioa bermatzeko zailtasunak antzeman dituzte, ikaslearen funtzio aniztasun mota eta ikastetxeko baliabideek inklusioaren eraginkortasunean garrantzi esanguratsua dutela adieraziz.

JFKZ graduak etorkizuneko irakasleen abileziaren ulermenaren eraldatzeko izan dezakeen eraginari dagokionez, ikuspegi soziokulturalean kokatzen diren irakasleek gradua gizarte inklusiboago baterantz bidea egiteko transformaziorako espazio bezala irudikatzen badute ere, graduau inklusioaren gaiari atentzio urria eskaintzen zaiola aitortu dute. Horrez gain, irakasleen diskurtsoek ikasleen sinesmenetan eragina izan dezaketenez, irakaslegoaren ikuspegi kritikoa ezinbestekoa dela adierazi da. Hala, abileziaren eraikuntzaren gaineko eztabaidak sustatu eta etorkizuneko irakaslegoaren inklusiorako gaitasunak areagotzeko, HFko Irakasleen Formakuntza programako ikasketa planen birmoldaketa mahai gaineratzea beharrezkoa dela argudiatu da.

6.2. Ikerketaren mugak

1.5.6 atalean (Ikerketa prozesua: partekatzeko hausnarketak) aipatu bezala, tesi lanaldi osoko kontratuekin uztartzeko erabakia hartu izanak eta ikerketa gauzatu den fakultatea nire bizitokitik 100 kilometrotara egoteak, tesi-lan hau burutzeko izandako denboran eragina izan du ezinbestean. Halaber, egoera horrek, ikerlanean topatutako hainbat zailtasun eta oztoporen jatorrian eragina izan du. Horiek ezagutzeak lana bere osotasunean ulertzen laguntzen duenez, jarraian, ikerketa prozesuan identifikatutako lau muga partekatu nahi dira.

Lehenengo mugari dagokionez, talde-fokala elkarrizketa formatuak partaide kopuru jakin bat egun eta ordu berdinatan biltzea eskatzen du, eta hori ez da erraza izan, bereziki, ikasleekin egindako elkarrizketetan. Horren harira, aipatzeko da 14 partaideetatik sei talde-fokal guztieta eta orri baziren ere, gainontzeko ikasleak ez zirela hitzordu guztieta eta orri. Ondorioz, elkarrizketa batetik bestera taldeak berrantolatu behar izan ziren ikasleen ordutegien arabera, talde-fokal guztieta partaide berberak mantentzea oztopatuz. Baliteke horrek elkarrizketa batetik bestera konfiantzazko giroa sortzeko aukerak gutxiagotu izana. Era berean, partaideen ordutegia zela eta, ikasle zein irakasleekin burututako talde-fokaletan ezin izan ziren literaturan gomendatutako gutxieneko sei partaide bildu (Finch eta Lewis, 2003). Hala ere, aipatzeko da ikerketaren helburuaren arabera, partaide kopurua gutxiagoko talde-fokalak onartzen direla; esaterako, ikerlariak gai konkretu baten inguruan sakontzeko interesa duenean. Ildo beretik, partaideak talde txikitak beren esperientziak eta gai sentsibleen inguruko pentsamenduak azaleratzeko erosago sentitu daitezke. Ildo beretik, azpimarratzeko da talde-eztabaidak hiru edo lau kiderekin egiten daitezkeela defendatzen duten autoreak ere badirela (Barbour, 2013). Aipatutako aintzakotzat hartuz, tesi-lan honetan hiru eta bost partaide bitarteko talde-fokalak burutu izana bildutako datuen kalitatea kaltetu ez duela defendatzen dugu.

Bestetik, ikerketa kualitatiboaren helburua gai zehatz bat ikusmira desberdinatik nola ulertzen den aztertzea da. Gainera, errebisio sistematikotik erorritako emaitzetatik abiatuz, abileziaren eraikuntzan sakontzeko ezaugarri anitzetako partaideen ahotsak

entzuteko beharra aldarrikatu zen. Horren harira, aipatzeko da, ikerketa honen kasuan, talde-fokaletan parte hartu zuten ikasleen profila antzerakoa zela: funtzi aniztasunik gabekoa, kirolari *habitus-a*, arraza zuria eta maila sozioekonomiko ertainekoa. Ikerketa gauzatu zen fakultateko ikasle gehienek profil horrekin bat egiten bazuten ere, jakitun ginen ikerketa gauzatu zen ikasturtean fakultatean funtzi aniztasuna zuten ikasleak zeudela. Kolektibo horren lekukotza ikerketa-galderetan sakontzeko aberasgarria izan zitekeela pentsatzen baguenen ere, laginketa prozesuan zehar kolektibo horri gonbidapen zuzenik ez egitea erabaki genuen, batik bat, horrek elkarritzetan parte hartzeko presioa sorrarazi zezakeelako.

Bestetik, aipatzeko da, nire lan egoeraren ondorioz, laginketa prozesuan ez nuela parte hartzeko irizpideak betetzen zitzuten ikasle guztien aurrean proiektuaren nondik norakoak aurkezteko abagunerik izan. Ondorioz, ikasle batzuk ikerketan parte hartzeko gonbita posta elektronikoz jaso zuten. Ikerketaren inguruko informazioa soilik ordenagailuko pantailaren beste aldean jasotzeak parte hartzeko erabakian eragina izan zezakeela uste dugu.

Hirugarrenik, azpimarragarria da ikasleekin egindako talde-fokaletan genero estereotipoak indartzen zitzuten ideiak azaleratu zirela. Kasu horietan inork kontrako iritzirik partekatu ez izana deigarria egin zitzagun, bereziki emakumeen kasuan. Egoera horren aurrean, genero ikuspegian gehiago sakontzea interesgarritzat jo baguenen ere, denbora muga zela eta, ez genuen gai horretan gehiago ikertzeko aukerarik izan.

Tesi-lan honen mugak aitortzea etorkizuneko ikerlanei bidea egiteko lagungarri izatea espero dut.

6.3. Aplikazio praktikoak

HFko Irakasleen Formakuntza programek, horien artean, JFKZ graduak, ikasleen abileziaren ulermenean eta, halaber, hartuko dituzten erabaki pedagogikoetan duten eragina nabarmena izan daitekeela aitortuz, jarraian, programa horien eraginkortasuna

hobetzena bideratutako hainbat aplikazio praktiko eskaintzen dira. Proposatzen diren lan ildo horiek, bereziki, abilezia desberdinak dituzten ikasleen behar eta interesei modu eraginkorrago batean erantzuteko prestutasuna areagotzea dute helburu, azken batean, testuinguru inklusiboagoak eraikitzeko asmoz.

Hala eta guztiz ere, tesi-lan honetan aurkeztu den lan autobiografikoaren emaitzetan oinarritzu, kontuan hartzea komeni da abileziaren ulermenak JFKren bestelako esparruetan ere diskriminazio egoerak eragin ditzakeela. Hortaz, JFKZ graduan, hezkuntzarekin zeharkako harremana izan dezaketen beste arloko irakasgaiek ere, hots, kudeaketa, hastapena, errendimendua eta osasun arloko irakasgaiek, atal honetan jorratzen diren proposamenak kontuan hartzeko eskaintza luzatzen da. Halaber, nabarmentzekoa da, atal honetan eskaintzen diren giltzarriak esanguratsuak izan daitezkeela Lehen Hezkuntzako gradurako, zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza unibertsitate masterrerako.

Hala, tesi-lan honen emaitzetatik abiatuz, aipatu berri diren HFko Irakasleen Formakuntza programetara bideratutako ondorengo hiru aplikazio praktikoak proposatzen dira:

- Formakuntza programetan eskaintzen diren landa-praktiken gaineko hausnarketak ikaskuntzarako balio handikoak direla sinisten dut. Hori dela eta, garrantzitsua litzake hausnarketa horietan inklusioaren inguruko eztabaidak sustatzea, landa-praktiketako esperientzia eta literatura zientifikoa uztartuz. Bestalde, praktikak soilik gradu amaieran eskaini beharrean, ikasturte desberdinatan sakabanatzeak ikasleen usteak dantzan jartzeko eraginkorragoa izan daitekeela uste dut. Ildo beretik, landa-praktiketan genero, abilezia, maila sozio-ekonomiko, arraza eta identitate sexual desberdineko pertsonekin elkarrekintza-bizipenek, abileziaren inguruko aurreiritzien (des)eraikuntza sustatu dezaketela aintzakotzat hartuz, lagungarria izan daiteke HFko Irakasleen Formakuntza programek landa-praktikak egiteko aukeren artean ezaugarri heterogeneoak dituzten pertsonak parte hartzen duten testuinguruak eskaintza.
- Hastapeneko Formakuntza esparrua etorkizuneko irakasleen ikuspegia, uste eta

ideologien inguruan kontzientzia areagotu eta horiek transformatzeko espazio aproposa bada, ikasketa planetan hausnarketa kritikorako joera uztartzea nahitaezkoa da. Eraldaketa horretan graduoko irakaslegoak rol garrantzitsua jokatzen du, beren arteko elkarlana ezinbestekoa delarik. Bide horretan, ikasleen artean hausnarketa kritikoa sustatzeko zein metodologia eta ebaluazio sistema erabiliko den zehazteko, uste dut fakultateko irakasleek haien erabaki pedagogikoen inguruko hausnarketa eta eztabaidetan murgiltzea eman beharreko lehen urratsa dela.

- Aurreko bi proposamenen ildo beretik, HFan inklusioa sustatu nahi badugu, garrantzitsua da HFko Hastapeneko Formakuntza programetako irakasleek erabiltzen dituzten irakaskuntza estiloak inklusioaren filosofiarekin bat egitea. Horrek, ezinbestean, irakaslegoari irakaskuntza-jardunari ordu kopuru handiagoa eskaintzea ekarriko lioke. Eskaera hori aurrera eramatea konplikatua izan daiteke, kontuan hartuta, ikerketa aurrera eraman den hezkuntza sisteman inpaktuzko aldizkari zientifikoetan argitaratutako ikerketak direla merituen lorpenetako atal garrantzitsuenetako bat. Hori dela eta, ikerketa garrantzitsua dela uste dudan arren, irakaslegoak irakaskuntzari dagokion arreta eskaintzeko aukerak bermatuko eta baloratuko dituzten estrategiak abian jartzeko beharra aldarrikatu nahi dut. Gehien bat ikerketaren ‘ekoizpena’ saritzen duen sistemak, gure fakultateko irakaskuntzaren kalitatean eragina duela uste dut eta, horregatik, ikerketaren eta irakaskuntzaren arteko oreka bermatuko duen sistema baten aldeko apustua egiten dut.

Aipatu diren aplikazio praktikoak HFko Irakasleen Formakuntzako irakaskuntza eta, beraz, HFa eraldatzeko tresna izan daitezke, kontzientzia sozial handiagoko biztanleak garatzeko bidean (Felis-Anaya, Martos-Garcia eta Devís-Devís, 2017). Ikuspegি soziokulturalarekin bat eginez, esparruok sozialki eraikitako espazioak direnez, (er)aldaketarako aukerak bizirik dirau (Dowling, 2006). Erronka hori bideratzeko, ordea, gaur egungo politikak aztertu eta inklusioaren filosofia sustatu eta babestuko dituen erabakiak hartzea nahitaezkoa da (Echeita eta Ainscow, 2011). Erabakioak politikarien eztabaida mahaietara indar handiagoz iritsi daitezen ikerketa zientifikoan oinarritutako ezagutzari atea zabaltzeko beharra ikusten dut.

6.4. Etorkizunerako ikerketa lerroak

Lan honek galdera, ideia eta ikerketa lerro berriei atea zabaldu nahi dizkio. Ikerketaren emaitzetatik, abileziaren inguruko ikuspegi tradizionala partaideen diskurtsoetan errotuta dagoela ikusita, garrantzitsua iruditzen zait ikerlan honi amaiera eman aurretik etorkizuneko lan ildo batzuk aditzera ematea.

6.3. aplikazio praktikoen azpi-atalean, HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntza programak birpentsatzeko beharra dagoela argudiatzeaz gain, moldaketak abiatzeko heldulekuak eskaini ditut, helburua etorkizuneko irakasleek testuinguru inklusiboak eraikitzeko prestutasuna areagotzea izanik. Aldaketa horiek eraginkorrak izateko, ordea, prozesuan eragile desberdinen arteko elkarlana eta eztabaidea-guneak ezinbestekoak dira, hala, eragile horiek aldaketak bere egin ditzaten. Horretarako, nazioarte mailan abian dauden ereduen inguruko informazioa izatea lagungarri bezain garrantzitsua izan daiteke, gida-lerro eta ikuspegi berriak ezagutzeko aukera eskaini lezake eta.

Bestetik, gure fakultatean plazaratu diren aplikazio praktikoak txertatzeko erabakia hartuko balitz, ikerketa-ekintza parte hartzaile bat abiatzea interesgarria izan liteke; izan ere, transformazio prozesuetatik badago beti zer ikasia. Metodologia hori tresna aproposa izan daiteke testuinguru zehatz bateko eraldaketa prozesuaren inguruko ikerketa egiteko, bidean sortutako oztopo, erabaki, ikaskuntza eta esperientziak jaso eta, antzeko ezaugarriak dituzten bestelako esparruetan, gurean eraikitako ezagutza partekatzeko aukera eskaintzen baitu.

Horrez gain, HFko Irakasleen Hastapeneko Formakuntzako ikasle eta irakaslekin, haien interes eta beharretatik abiatuta, abilezia, funtzió aniztasuna eta inklusioaren ulermenaren inguruko aurreiritziak kolokan jarriko dituzten esku-hartzeen eragina esploratzea aberasgarria izan daitekeela pentsatzen dut. Estrategia pedagogiko desberdinek ikasleek barneratutako usteetan izan dezaketen eragina aztertu eta ulertzeak, formakuntza programa eraginkorragoak eraikitzeko bideak eskaini litzake.

Bestetik, ikerketaren mugak aintzakotzat hartuz, interesgarria litzake funtzió aniztasuna

duten partaideek HFan abilezia nola ulertzen duten aztertzea. Era berean, Lehen Hezkuntzako graduau gorputz hezkuntzako ibilbidean espezializatzen ari diren ikasleen ahotsak entzutea esanguratsua izan daiteke. Izan ere, haurtzarotik hasi eta nerabezaroaren atarira bitarteko etapan, ikasleek abileziaren inguruko aurreiritziak finkatzen dituzte eta, horrek, JFKren esparruan, ikasleen partaidetza mailan eragin dezake. Ildo beretik, graduondoko irakaskuntza masterrean parte hartzen duten ikasle eta irakasleen sinesmenak azterzeak ikerketa-fokuaren inguruko ezagutza aberasteaz gain, ikuspegি desberdinen arteko konparaketarako aukera eskainiko luke, abileziaren ulermenean eragin dezaketen bestelako faktore eta aldagaiak identifikatzeko atea zabalduz.

Azkenik, kontakizun konfesionalean aipatuko dudan bezala, partaideekin egindako elkarrizketetan, ikasle eta irakasleen arteko deskonexioa antzeman da. Ikasleek, ikasle eta irakasleen arteko harreman bertikala eta irakaslean oinarritutako metodologiak bizirik dirautela kritikatzen duten bitartean, irakasleak ikasleen jarrera pasiboaz eta ikasteko motibazio faltaz kexu dira. Pertzepzio hori JFKZ graduoko partaide guztien errealtitatea denik esan ezin dezakegun arren, elkarrizketetako partaideek biziaren inguru transmititutako ezinegona kontuan hartuz, heldu beharreko gaia dela deritzot. Baino, ikerlan honetan, denbora muga dela eta, ez dut gai horretan sakontzeko aukerarik izan.

6.5. Aitorpen kontakizuna

Tesia hasteko asmoz zuzendariaren bulegoan sartu nintzen lehen eguna gogoratzen dut. Amaierako lerro hauet idazten ari naizela, atzera begiratu eta bidaian zehar ikasitakoaz ohartzen naiz. Hala, tesi-lan hau itxi aurretik, ikuspegি pertsonal bezain subjektibotik, prozesuan bizi izandako ikaskuntza esanguratsuenak partekatzeko beharra sentitu dut.

Ikerketa eraldaketarako tresna dela sinestuz heldu nion tesi-lan honi, doktoradutza programan izena ematea nire barrenak lasaitzeko bidea izango zelakoan; izan ere, 1.1. atalean (Ikerketaren jatorria) adierazi bezala, hein handi batean, JFKren esparruan pertsonalki bizi eta ikusitako diskriminazio egoerak ulertzeko beharrak bultzatuta

hasitako bidea izan da. Ikerketa prozesuan abileziaren eraikuntza soziala gorpuztu duten ikuspegi desberdinak (soziokulturala, post-estrukturalista eta feministak), tresna baliagarriak izan dira emakume ‘abila’ bezala JFKren alor desberdinetan bigitako beldurrak eta hartutako erabakiak ulertzeko, bai eta nire identitate pertsonal zein profesionalaren garapenerako.

Bestetik, tesi-lan honen bidez ikerketa zientifiko bat egiten ikasi dut. Zehatzago esanda, ikerketa kualitatiboa eta errebisio sistematikoa burutzeko procedura teknikoak ikasi ditut: datu baseetan bilaketak egiten, artikulu baten zuzentasun irizpideak bermatzeko alderdiak kontuan hartzen, aldizkari zientifikoetara artikulu bat bidaltzen, ikerketa taldeko partaideei ekarpenak modu eraikitzalean egiten, elkarritzetaren fase desberdinetan moderatzaile lanak egiten, kongresu baterako komunikazioa egiten eta aurkezten, eta abar.

Alabaina, ikasketa tekniko horiez gain, bestelako ikaskuntza prozesuak ere bizi izan ditut, tesi-lanaren bidea gora-behera emozional handikoa izan baita. Hainbatetan tesia uzteko beharra sentitu dut, bat-batean egindako lanak zentzurik ez zuela sinestuta, behe-lainoak median gora harrapatzen nauen egun horien antzera, aurrera bidea ezin ikusi eta buelta erdia ematea egokiagoa izango delaren ideiak itsututa. Bereziki gogorrak izan dira gutxi lo egindako gauak, biztza soziala eta osasunari dagokion arreta ez eskaini izanaren sentipena, tesia birbideratzeko erabakia edo aldizkariek artikulua ez argitaratzeko erabakiaren jakinarazpena jasotzea. Ostera, helmugara iristen ari naizela, tesi-lan hau frustrazio eta etsipen momentu horiek kudeatzen ikasteko aberasgarria izan dela uste dut.

Aurretik aipatu bezala, lanaldi osoko kontratu desberdinekin uztartu behar izan dut tesia ia prozesu guztian zehar, ikerketari eskaini niezaiokeen denboran eragina izan duelarik. Horrez gain, abileziaren eraikuntza sozialaren inguruko ikerketa kualitatiboa egiteko erabakia hartu izanak, ikerketa talde batean sartzeko aukerak murriztu zituen. Hori dela eta, egunerokotasunean bidaia hau nahiko indibiduala izan dela esango nuke, ugariak izan direlarik lau pareten artean bakardadean pasatako orduak. Zuzendariak eta (H)ariketan ikerketa taldeko kideak gertu eta beti laguntzeko prest sentitu izan baditut

ere, egunerokotasunean tesia egiten ari ziren beste ikasle batzuekin harreman gutxi izan dut. Beharbada horregatik, pertsonalki oso esanguratsuak izan dira ibilbide berdina egiten ari diren beste pertsona batzuekin partekatutako momentuak; horien artean bereziki, zuzendariekin egindako bilerak, kongresuetan parte hartzea, (H)ariketan taldeko partaide izatea eta Irlandako Limerick unibertsitatean egindako ikerketa-egonaldia.

Ikerlan hau lagungarri izatea espero dut abileziaren eraikuntzaren problematika hezkuntza komunitateko eztabaidea mahaietara ailegatzeko eta eraldaketarako bideak irudikatzeko. Lerro hauek gizartean inklusioa eta justizia sozialaren aldeko bidean aurrera egiteko aletxo bat gehiago izango dela sinestuta jaitsiko naiz denbora batez tren honetatik. Horretarako, ordea, ezinbestekoa da eraldaketa sustatzeko aukera duten eragileek –politikariek, irakasleek, ikerlariek eta komunikabideek– lerroartean irakurri eta dagokien ardura bere gain hartzea. Nik behintzat, ikerketa mundutik kanpo ere, JFKren esparru desberdinatik eraldaketarako eragile izateko ardura hartzen jarraitzeko konpromisoa obligazio moraltzat hartzen dut.

6.6. Erreferentziak

- Barbour, R. (2013). Los grupos de discusión en investigación cualitativa. Madrid: Morata.
- Dowling, F. (2006). Physical Education teacher educators' professional identities, continuing professional development and the issue of gender equality. *Physical Education and Sport Pedagogy*, 11(3), 247-26.
- Echeita, G., eta Ainscow, M. (2011). La educación inclusiva como derecho. Marco de referencia y pautas de acción para el desarrollo de una revolución pendiente. *Tejuelo*, 12, 26–46.
- Felis-Anaya, M., Martos-Garcia D., eta Devís-Devís, J. (2017) Socio-critical research on teaching physical education and physical education teacher education: A systematic review. *European Physical Education Review*, 24(3), 314–329.
- Finch, H., eta Lewis, J. (2003). Focus Groups. In J. Ritchie eta J. Lewis (Eds.), *Qualitative Research Practice: A Guide for Social Science Students and Researchers* (pp. 170-198). London: Sage.

